


Erramon Astibia "Errenderi Aba" (1881-1916)



Idazlanak



**Errenteriako Udala
Argitalpen Zerbitzua eta
Euskara Batzordea**

TESTU-PARATZAILEA: Elixabete Perez Gaztelu

Laguntzailea: Olatz Elustondo

ASTIBIA ETXEGOIEN, Jose Ramon 1881-1916

Erramon Astibia, “Errenderi Aba” (1881-1916) [Ordenagailuko artxiboa] / testu-
paratzailea Elixabete Pérez Gaztelu; laguntzailea Olatz Elustondo Zubiria;
informatikaria Jose Luis Areizaga – Errenteria : Errenteriako Udala, 2002. - disko
konpakto 1

ISBN: 84-921394-4-7

1. Euskal literatura – XIX-XX. m. 2. Euskal poesia – XIX-XX. m. 3. Euskal kazetaritza
– XIX-XX. m. 4. Euskararen ikerlanak.

I. Pérez Gaztelu, Elixabete, ed. Lit. II. Elustondo Zubiria, Olatz, lag.

821.361 “18/19”

Azala: Errenteriako Udala. Argitalpen Zerbitzua.

Argazkiak: Xabier Olaskoaga, Joseba Lersundi

Partiturak: ERESBIL

© Errenteriako Udala – Errenteria

ISBN: 84-921394-4-7

Legezko Gordailua: SS-0059/03

AURKIBIDEA

1. Hitzaurrea: "Gordeak azaldu"
2. Errenderi Abaren lanak
 - 2.1. Olerkiak
 - 2.1.1. 1935eko lana
 - 2.1.2. Olerki solteak
 - 2.1.3. Itzulpenak
 - 2.2. Hitz lauz
 - 2.2.1. "Yo envidia"
 - 2.2.2. "Amor patrio"
 - 2.2.3. "Un punto etimológico y alguna cuestión adyacente"
 - 2.2.4. "La lengua nacional"
 - 2.2.5. "Las lenguas y el derecho canónico"
 - 2.2.6. "En defensa del euzkera"
 - 2.2.7. "La muerte del euzkera"
 - 2.2.8. "Comentarios"
 - 2.2.9. "Pro euzkera"
 - 2.2.10. "Euzkerafobia"
 - 2.2.11. "Estudio genético y evolucionar del euzkera"
3. Errenderi Abaren gaineko lanak
 - 3.1. Hil ondokoak (1916/1928)
 - 3.1.1. "El P. Ramón de Rentería"
 - 3.1.2. "Errenderi'tar Erramon Aba"
 - 3.1.3. "El P. Rentería"
 - 3.1.4. "Errenderi'tar Erramon Aba'ren azkenak"
 - 3.1.5. "Renterianos que se fueron. Ramon de Astibia"

3.2. Omenaldia egin zioten urtekoak (1935)

3.2.1. "Errenderi-tar Erramon Aba buruñurduna"

3.2.2. "¡El homenaje al Padre Astibia de Rentería!"

3.2.3. "¡¡Aita Errenderi'n omenez!!"

3.2.4. "Astibia'tar Jon Andoni. Aita Errenderi kaputxinoa, olerkari ta idazle"

3.2.5. "Errenderi'tar Erramon-aba buruñurdun olerkari ospetsuaren omena"

3.2.6. "Aita Astibia'ren omenez eraturako jaiak ederto ospatu ziran"

3.2.7. "Poesías vascas: nuevas floraciones"

3.3. 1980tik aurrerakoak

3.3.1. "Erenderia'tar Eramun Aba, olerkari eta lekaide"

3.3.2. Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak

3.4. Entziklopediak eta beste

3.4.1. "Padre Raimundo de Rentería"

3.4.2. "Jose Ramon Astibia Echegoyen. P. Raimundo Maria de Renteria. Errenderi'tar Erraimunda (1881-1916)"

3.4.3. "Erenderi'tar Eramunda Aba"

4. Bibliografia

5. Eranskinak

5.1. Argazkiak, agiriak eta bestelakoak

5.2. Partiturak

5.3. Testuak

1. Hitzaurrea

“GORDEAK AZALDU”

1. Garai bateko diosala zen “Ageriak gorde” sarrerakoari “Gordeak azaldu” erantzutea. Erantzun hori, bada, atariko hitz hauen bururako ere ez bide da desegokia, garai bateko kontuak eta gordeak azaltzeko ahaleginak baitira lan honen funtsa eta mamia.

Garai bateko kontuak dira, urruti samar geratzen baitzaigu Errenderi Aba bizi zen sasoia; XIX eta XX. mendeen arteko bihurtzea. Eta gordeak azaltzeko ahalegina ere bada lan hau, nahiz lehen ahalegina ez den. 1986 aldera, Joseba Lertsundi, Josetxo Fernandez, Xabier Olaskoaga eta Joseba Goñi errenteriarrek aita Santi Onaindiagana jo zuten eta eskatu ea prestatuko zituen Astibiaren lanak berriz argitaratzeko. Lanak prestatu ez ezik aztertu ere egin zituen [karmeldarrak](#), eta argitaratzeko beharrezkoak ziren beste [zeregin](#) batzuk ere eginak zituzten, baina saio hark ez zuen ondore onik izan; ez zen argitaratu.

Orain da, hortaz, garaia aspaldi argitaratutako lanak berriz argitara ekartzekoa eta orain arte denon eskumenean ez zeudenak plazaratzekoa.

2. [Hementxe](#) bertan irakur daitekeen bezala, Jose Ramon Gregorio Astibia Etxegoien 1881eko azaroaren 17an¹ [sortu](#) zen, Errenterian, orduan errota zen [Fanderian](#) eta Nafarroako Tuterako kaputxinoen [komentuan hil](#) 1916ko ekainaren (garagarrilaren) 10ean; artean, 35 urte ez zituela.

Ohiturari jarraituz, sorterriaren izena bere egin zuen fraidetu zenean: *Errenderi'tar Erraimunda² Aba* jo zuen begiz, *Padre Ramón de Rentería* gaztelaniaz, musika —eta, esatea badago, Jose Luis Ansorena kaputxinoa— dela medio, errenteriarrok ia etxeko daukagun Jose Gonzalo Zulaika Arregik *Fray Jose Antonio de Donostia, Aita Donostia* egin zuen bezalaxe. Areago, gizon horien ponte-izena atzendu samar izaki, gerokook sorlekuaren izenaren bitartez besterik ez ditugu (ia) ezagutzen. Baina kidetasun hau ez da halabehar hutsaren ondorioa, zain sakonagoak ditu: adinkide eta gogaide ere baziren bi fraideok.

¹ Epaitegikoa ez dago ongi, antza. 18an jaio zela dio, baina seguru asko idazkariak ez zuen ongi aditu elizako agiriko “día precedente” hori. Bestetan ere errepikatu izan da azaroaren 18an jaio zela. Elizako agiriak 17an dio argi.

² Erraimunda eta Erramon, biak ageri dira paperetan.

Biak hala biak XIX. mendearen bukaeran jaioak (donostiarra bost urte gazteagoa), biak pentsaera politiko berekoak, biak kaputxino (*buruñurdun* diote orduko paperek), biak euskal musikarako horren eragingarria izan zen Lekarozko fraide-etxean bizi izanak³. Baina, batez ere, biak beste eginkizun batek ere lotuak: euskaldunei elizetan euskaraz kantatzeko bitartekoak eskaintzeak. Asmo sendo horrek eraman zuen errenteriarra eresi eta gainerako kantagaien hitzak moldatzera eta donostiarra, berriz, horietako batzuentzako musika sortzera; haien hitzetan esanda, *ereskidetzera*.

Agerian dago, honenbestez, Errenderi Abak musikarekin zuen lotura: aita Donostiak eginez gain, Alfonso Uriartek eta *Olerkiak* 1935eko liburuaren hitzaurregile Tomas Etxeberria Elozegi, *Tomás María de Elduayen (Aldaya)* kaputxinoak ere musika jarri zieten olerkariaren hitzei. Eranskinetan dituzue eskuratu ahal izan ditugun [partiturak](#).

3. “Otoitzak” eta “Abeñi–Oyuak” ataletan bildu zituen Aldayak 1935eko liburuxkan Errenderi Abak egunkari-aldizkarietan argitaratutako olerkiak, bi gai-ildo nagusi horiek sumatu zituelako, hain justu, olerkariaren langintzan. Bi ildook, fedea eta aberria, Astibiaren bi maiteak dira; bestela esan, Errenderi Aba bai kantatzeko, bai irakurtzeko hitzak munduratzera bulkatu zuten maiteak.

Uztarri horren seinale euskaldun franko aipa daitezke, baina aski izan bedi bakarra ekartzea: Errenderi Abaren gorazarrean ikuskizun zuzena izan zuen Luis Jauregi Etxenagusia, [Jautarkol](#) herriko semea, alegia. Bi elizgizonok, besteak beste, aspaldixkotik⁴ datorren hari baten, fedea eta abertzaletasuna lotzen dituen hari sendo baten agerkari garbiak ditugu. Sufritu behar izan zituzten ondorioek erakusten digute noraino bizi zuten maitasun hori. Aldayak eta Aita Onaindiak jasotzen dute Errenderi Abari, eta kaputxino euskaldun edo/eta abertzaleei buruzagi ordenakideek berek gorriak eta bi pasarazten zizkietela. Gure olerkariaren kexu mindua ere irakurri ahal izango dugu gutun batean baino gehiagotan.

Zein eratako poesia den, kritikari nahiz literaturaren aztertzaileek nola hartu duten esana eta hemen jaso dago, alde behintzat. Guztiarekin ere, Koldo Mitxelenaren hitz batzuk hona aldatuko ditugu, euskal literaturaren hari batean kokatzen baitu “errenteriar baten ametsa”:

³ Aldi berean ez baina: Errenderi Aba ikasten (1893-1907), Aita Donostia 1908tik aurrera irakasten.

⁴ Larramendigandik, gutxienez.

Bada euskal literaturan aspaldidanik negar-hari bat gero eta ugariago dariona. Negar-hari honen aleak ezin konta ahal dira eta bat edo beste aukeratzea nahikoa izango dugu (...) Errenteriar baten ametsa ere gogoratzen zait, ameskaitz erdiragarria bera. Bere maitearen bila dabil zelai-basomendietan barrena eta ez du haren aztarrenik inon ere aurkitzen. Eliz-ezkilak ere, haren hiletahotsa bederen eman behar zutenak, isilik daude. Eta honelako ametsen batek gainerako euskal poeten gogoak, begien aurrean zuten edertasuna itsustuz, noiz edo noiz nahigabetu ez dituenik nola esan? (1951, "Euskal literaturaren etorkizuna" in P. Altuna (par.) (1972): *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 25-26 or.).

Ikus orain Errenderi Abaren olerki hau eta erka:

EUZKERAREN ERIOTZA

Nik maite nuen kut'una,
nere atsegin-zoruna,
ibili bai'ta, bai egon,
ez dut arkitzen iñ-iñon:
Bilaka beti bai nabil,
baña da agiyan nunbait il.

Ibai ertzetan galdetzen
dut iya ote dan emen:
Batzutan dagit ojua,
bestetan, beřiz, ulua;
"Maitia, diyot, nun abil?";
baña da noski nunbait il.

Mendi-barenen sarturik,
"nun ezagokek?" dasat nik;
eta dantzut artz-afama,
esaten neri: "Azama!";
Otsuak ere dasa: "ua!"...
Agiyan il da gaxua.

Baso-oyaneko zugaitzak,
pago zardaňak ta aritzak,
enbor-ondotan enetxu
ez al zaizute jarkitu?
ez al dek jafi eunoro
itzal-azpiyan naroro?

Ibar-egiak, aruak,
afobitako zuluak,
arana, muru-mendiyak,
nunbait aldeko tokiyak!
ez al dizkik laztan-edefak
ikertu zuen baztefak?

Juale ozen, zoliya,
txadon-buruan jariya,
zergatik ago geldirik?
zergatik ixil-ixilik?
Il ba'da jo zak íleta
min ta nega'ez beteta.

Juale txadon-gaingua,
gaituen lagun zintzua,
il dek! Ala're ago ixil;
doibazkatuta zaiguk il;
il gure euzkera gaxua,
euzkera garbi txairua.

Areriyuak edonun
pa'ezka dariz gau t'egun.
Zeyetan etsai zo'fotzak;
txadonan ere afotzak.
Bakar-baka'rik nik negar,
Euzkera, igatik ein bear!

Izenik aitortzen ez badio ere, garbi dago Astibia duela gogoan⁵ Goiko kalekoak eta euskal literaturaren "negar-harian" kokatu duela.

Olerkiak ez ezik, Astibia hitz lauuko artikuluak ere idatzi zituen, "euzkeralogia" deitzen zuten gaian kokatzekoak; euskararen azterketa, alegia. Astibia zein tankeratako "euzkeralogoa" zen asmatzeko, berriz, Astarloa, Arriandiaga, eta, batez ere, Arana Goiri maisu eta gidari dituela esatea aski dateke. Hizkuntza ikusteko, eta, honen ondorioz, aztertzeko modu baten ispilua da: hizkuntzaren sustraiak, jatorria, aspaldiaren aspaldian eta amestutako paradisu bekatugabeen bilatu nahi izatearena.

⁵ Gure Koldo Mitxelena Elissalt, *egitasmoa eta egitatea* laneko (1994: 406) hutsa zuzenduta dago, hortaz.

Guztiarekin ere, ikusmolde hori ez da ordukoa bakarrik (bai baita oraindik ere inoizko hizkuntza “garbia”, paradisu galdukoa bilaka dabilenik) ez eta euskaldunen artean bakarrik loratua. Urrutirago gabe, hortxe dugu, beste hamaikaren artean, Aldayak hitzaurrean aipatzen duen Julio Cejador y Frauca (1864-1927), gaztelaniaren defendatzaile sutsua eta Errenderi Abaren gogaidea, hizkuntzen teoria “genetikoz” den bezainbatean. Ikuspegi baten lekukoa dugu, hortaz, Astibia, gaurko hizkuntzalaritzaren⁶ uste eta egiteko moduen antzik ez duen ikuspegi batena.

Olerkari nahiz “euzkeralogo”, Astibia bere garaiaren eta giroaren semea denik ezin ukatu, hortaz.

4. Bi iturri nagusitatik edan dugu gaiak hemen biltzeko: arestian aipatu ditugun erreteriar euskaltzaleek, buruen-buruenik Erreteriar horrenbeste zor dion Xabier Olaskoagak, gordeak zeuzkatenak: 1935eko *Olerkiak*, *El Día*, *Euzkadi* egunkarietako artikulua batzuk, bestelako gaiak: argazkiak, fakturak, aurrekontuak... Eta bestetik gukgerok bilduak: *Euzkadi*, *El Día* egunkarietan, *Euskal Esnalea*-n, *Gipuzkoarra*-n... arakatuta atera diren aletxo batzuk; elizako eta epaitegiko jaiotza-agiriak eta beste agiri batzuk, eta batez ere, partiturak. Partiturak bilatu eta jaso ditugu, uste baikenuen (hitzeekin jostatzea zilegi bada) aukera hau aukerakoa genuela Errenderi Abaren hitzak bere musikarekin batean jendarteratzeko; alegia, testugileak eta musikagileak amestu zuten ezkontza gauzatua erakusteko. Aitzakiarik ez zegoen, gainera, horrelakorik ez egiteko: CDen informazioa gordetzeko ahalmen ikaragarriak eta ERESBIL etxeke izateak eta laguntzeko prest egoteak ezinezkoa egiten zuten lan hau aieka batean uztea. Asmatu dugulakoan gaude.

Aukera honezaz baliatu gara, era berean, bibliografia gaurkotzeko: bai

Astibiai bai Astibiaz eginaren berri jaso nahi izan dugu.

Horrek guztiak, azkenik, gaiak honela antolatzeraz eraman gaitu:

• **Errenderi Abak eginak**

Olerkietan, atal nagusia hartzen du Tomas Elduaiein kaputxino eta musikagileak (*Aldaya*) 1935ean argitaratu zuen [Olerkiak](#) lanak. Bere horretan utzi dugu, gaurko irakurlearentzako erantsi ditugun argibideak izan ezik.

⁶ Baina ezta ere orduko Gramatika Historikoaren.

Baina aukera honezaz baliatu gara liburu horretan jaso gabe geratu ziren beste [olerki](#) batzuk ere ekarri eta denon eskumenean jartzeko. Horietako batzuk Xabier Olaskoagak gordeak zituen, beste batzuk gerok *Euskal Esnalea*-n, *Euzkadi*-n eta *Gipuzkoarra*-n aurkituak dira. Hauen artean sartu ditugu Errenderi Abak egintzat jo ditugun aletxo batzuk, nahiz eta guztiz seguru ez izan harenak edo garai hartako beste norbaitenak ote diren.

[Hitz lauzkoetan](#) ere ikerketan ibiltzearen ondorioz hainbat lan —hamaika, zehazki— bildu eta ekarri ditugu hona. 1910 eta 1914 urte bitartean idatziak dira, *Gipuzkoarra* eta *Euzkadi*-n argitaratuak; gaztelaniaz daude denak. Erramon Astibiari egozten zaizkion izengoitietako batzuek sinatuta datoz: Gabiola, Sarbide⁷, Arrobi⁷tar Danel, Argitzale..., baina badute guztiek lotura: gai beraren gainekoak dira, euskararen gainekoak, hain zuzen ere.

• **Errenderi Abaren gainekoak:**

Olerkariaren heriotzak hainbat artikulua, prentsa-ohar, dolu-agerraldi... sorrarazi zituen. 1916 inguruko hil ondoko [lekukoak](#) jaso ditugu, beraz.

1935eko *Olerkiak* [liburua](#) argitaratzearen kariatz antolatu zituzten [omenaldi](#) eta abarren lekukoak.

Astibiaren lanaren zabalkunderako guztiz garrantzitsuak diren 1980ko hamarraldiko bi lan jaso ditugu: lehen ahotan hartu dugun aita [Santi Onaindiarena](#) eta Xabier Olaskoagak 1981eko [Oarsorako](#) egin zuena.

Lehena ez dugu oso-osorik jaso: lanaren atal luze bat zen *Olerkiak* liburuko olerki berak Onaindiaren irizpideen arabera letraldatuta aieka batean utzi dugu. Horren ordezt, Larreakoak egiten duen azterketa xehean, olerki guztien eta bakoitzaren izenburutik jatorrizkora jotzeko modua bideratu dugu. Onaindiaren beraren azterlana dena, bai, bere horretan utzi dugu. Ez dugu uste karmeldar langile hark oker iritziko zionik gure aukerari.

[Entziklopedia](#), antologia, eta antzeko lanetan egin dituzten Astibiaren aipamen batzuk ere ekarri ditugu izan duen oihartzunaren lekuko izan daitezkeelakoan.

⁷ Erabili zituen beste izengoiti batzuen artean amonaren deitura hau ere hautatu zuen Astibiak. Epaitegiko agiriko idazkariak ez bide zuen ongi aditu, “Sarvias” paratzen baitu. Bibliografian zehaztuta dator nola sinatu zuen Astibiak lan bakoitza.

• **Bibliografia.** Aztarnei segituz, saiatu gara ahalik eta bibliografiarik osatuena biltzen, bai Astibiaren lanena, bai haren gainekoa.

• **Eranskinak.** Teknologia berriek ematen diguten aukera oparoaz baliatuz, hemen bilduta daude Errenderi Abaren berri ematen diguten era askotako gaiak: agiriak, argazkiak, partiturak... Guztiak ditu irispidean irakurleak klik soila eginez.

5. Aipa ditzagun azkenik edizio-irizpideak.

Astibiaren lanen jatorrizko aldaerari eutsi diogu, poetaren pentsaerarekin eta lanaren izaerarekin batago zetorrelakoan eta, gainera, bere eta bere garaiko askoren burubide eta hizkera moldearen lekukoa ere badelakoan. Baina gaurko irakurlea izan dugu gogoan eta horregatik, oker tipografiko eta halakotzat hartuak zuzentzeaz gain, ilunxko gerta zitekeena argitzen ahalegindu gara: ez da, hortaz, beste gabe, Astibiaren lanaren berrargitaldia, edizio osatua baizik.

Arestikoak ekarri du oin-oharretan bi eratako informazioa ematea. Alde batetik baliatu dugu 1935eko argitaraldirako Aldayak egin zuen “Iztitxo” izeneko hiztegi edo glosategia —orduko irakurlearentzat argibide—, eta bestetik geuk erantsia —gaurko irakurleari zuzendua—. Argibide guztiak oin-oharretan eman ditugu “Iztitxo”koa eta gurea bereizita, halaz ere. Inoiz edo behin gertatu izan da “Iztitxo”ko kidea gure ulertzeko moduarekin guztiz bat ez etortzea; beste batzuetan, berriz, hiztegi txiki horrek gaztelaniazko itzulpena besterik ez du ematen. Batean zein bestean, euskaldun guztiak gogoan izanik, nahiago izan dugu gure aditzeko moduaren arabera euskal kidea erantsi. Esan beharrik ez dago Astibiaren hitza gaurko irakurlearentzat aski argia zela iruditu zaigunean, oharririk gabe bere horretan utzi dugula.

Gaurko irakurle horrengan pentsatuta egin ditugu era berean testuen arteko loturak; alegia, klik soila eginez testu atal batetik beste atal batera aise joateko modua.

6. Honela zioen Xabier Olaskoagak 1981eko *Oarso* aldizkarian:

Ez al du Errenderiar olerkari onek bere jaiotzetik baztertua izan zan oroit arriaren ordaiña merezi? Bere jaiotzaren eun urte muga, ez al litzateke egun egokia ordainketa ori egiteko? Orra or nere asmoa. Errenderiko erriak dauka itza.

Eta handik bost urtera, honela osatzen zituen aita Onaindiak hitz horiexek:

Baiña Errenderi'k ez zuen itzik egin, ez arririk Erramun Abaren jaiotz-etxeko ateburuan ipiñi.

Harririk ezean..., hona hemen Astibiaren hitza berreskuratua eta gaurko teknikaren laguntzaz hornitua.

Gordeak azaldu esan dugu hasieran, baina *Zaharrak berri* ere esan genezakeen, zaharra eta berria uztartu nahi izan baitugu. Horren seinale argia da lan honen mamiarentzat bereizi dugun euskarri oso ohikoa ez den hau. Bai euskarri horretara moldatzen, bai azkenean uste baino luzeago egin zaigun bide honetan egin beharrekoak egiten lankide izan ditudan Mikel Madina eta batez ere Olatz Elustondo euskal filologo gazteak aipatu nahi ditut hemen azken desiorako zubi: zaharren eta gazteagoen probetxurako izan bedi.

Elixabete Perez Gaztelu
Deustuko Unibertsitatea

2. Errenderi Abaren lanak

2.1. Olerkiak

2.1.1. 1935eko lana

OLERKIAK

Astibia ta Etxegoyen, Sarbide ta Aldako'ar José Ramón Gregorio Efenderian jayo zan 1881'ean, azaroak 17 zituala. Oyartzun'go mendietatik Efenderi bařena datofen eřeka ondoan dago bere jayotetxea: Fanderia. Inguruko lertxundi, zumardi, arkesti ta makaldegia badakite aren aurtzaro alayaren befi; bai ta ere Fanderia'tik Aranguren-baseři aldera dauden sagasti ta gereiztiak. Oyan-otsak, mendi-oyartzunak, txori-abestiak, lore ta zugaitzen izenak, San Markos ta Aya-tontofen artean dauden malda, muřo, ibar, zelai ta zoko atsegiřetan entzun ta ikasi zituan.

Amairu urteko mutil mardul, zuri-gofia zala Lekarotz'ko ikastetxera juan zan; adiskide batzuek ařetik arako bidea erakutsi-ta. An sartuz-geroztik aurtzaroko euskera goxo-gaxua, lotsatuta bezela, ixilik gelditu zan. Aldi artan lekaide geyenak *integristak* ziran; ta integrista berezkoak ziranez, euskera ta Euskaleřiaz ajola gutxi. Irakasle batek bakařik euskerari begi onez begirutzen zion; ta Virgilio'ren *Eneida* ta Horacio'ren *Arte Poética* tartean, bere Euskaleřiarenganako maitasuna, ezti tantoak antzo, ixurtzen zuan. Azkue apaizak orduan atera beřia zuen *Euskalzale*-a Etxalar Abak ikasleai agirian irakurtzen zien.

Emeretzi urte zituala, buruřurdunen¹ bizitzari lotu zitzayon, Lekarotz'en bertan; eta eskeintza egin bezin laxter, Madrid'era, El Pardo'ko lekaidetxera bidaldu zuten. An, atzeřian, ango bizimodua ikusita, bere Abefiaganako zaletasun biza sortu zitzayon. El Pardo'ko mutilak etziran noski Efenderiko mutil sendoen antzekoak!

Andik edo emendik bereganatu oi zituan orduan ateratzen asi ziran asteroko abertzaleak; batez ere *Gipuzkoa'ra* asieratik begibegikoa zuan. Eta bere Ama, bere Abefia ondo-ondo ezagutu zuanetik, buru-biotz-kemen eta indar guztiak berari opaldu² zizkion. Euskerari osoro eman zitzayon, eta, euskal gaiez landa etzuan ezer entzun nai.

Lekaide-bařutia beste erara antolatu zutela ta, 1908'an El Pardo'tik Napařu'ra etofi zan, ta emengo nagusi beřiak Lizařa'ko lekaidetxera bidaldu zuten. Bere lanik bikaiřenak Lizařa'n egin zituan. Bařo lan oyek egiteko jafi zizkioten eragozpenak nork asmatu? Berak zerbait adieraziko digu:

¹ Buruřurdun: kaputxinoa.

1911-III-2

Arantzadi'tar Ingartzi jaunari.

...Jakin bear dezu gebendu³ didatela ezer idazteko abertzalien izpafingiyetan⁴. Ala ere ikusiko dut iya al nezaken ala ez obenik⁵ gabe idatzi; eta al badut, ez diot jaramonik egingo eragozpenari...

Norbaitek baieztatu zion noski *obenik gabe* idatzi zezakeala. Onela zion beintzat geroxeago Arantzadi berari:

Azkue'tar Dunixi etofiko zela uste nuen egun abetan; bañon zai ta zai egon-ta nekatu naiz itxorotzen. Izan liteke safi etortzia; bitartian, ordia, agindu nizuna Aralar'en bete gabe dago. Ofegatik bidaltzen dizkitzut zazpi idazkun⁶. Geyo idazteko asmuakin gelditu nintzan Gafílan (uztaílan); bañon il obetan deustarako betarik ez dut izan. Bai ta ere gogua baidaukat erdera utzi ta euzkera garbiyari ekiteko. Neretzat samintasun aundiyena orixen da; erderaz egin bear, nai ta nai-ez...

1911g. Ofílako⁷ 31'an

Azkue'tar Dunixi jaunari.

...Eskartxo bat eskatzera natorkizu. Nere idazkunak *Gipuzkoa'ra*-n agertú ziranetik onuntz ez digute eman nai *Gipuzkoa'ra*-rik. Aitzaki arekin gebendu edo galerazi zuen Iruñan bizi dan Aba Nagusiyak, esanez emengo Aba Lendakariyari ez utzitzeko irakurtzen *Gipuzkoa'ra*-k. Ala ere, nondik edo andik, orain arte gureganatu dira gure ingi⁸ maitiak. Baño orain ezin zaizkigu sartu, eta nola edo ala sartzeko asmua artu det; neri galerazpenik ez dit iñork egin-ta. Beraz ez bidali zenbaki bat bakafik ere etxe onetara; bidali era onetan zuzenduta...

Bide neketsua berea, ta arantzez bete! Alaz guztiz ere, aberzaletasun bizia biotzean agintari zebilkiola, bere idazlanak beñere aspertu gabe, jo ta su, egin zituan. *Euzkerología* gaiaz egin zituanetan, Arana Goiri zuan irakasle nagusi; ta onen eta Astarloa'ren irozkaitzat⁹ gogoz erabili oi zituan Cejador ta Frauca'ren idaztiak.

² Opaldu: opa izan, eskaini.

³ Gebendu: debekatu, galarazi.

⁴ Izpafingi: egunkaria.

⁵ Oben: bekatua [pecado]. Kortxete artekoa *Olerkiak* liburu bukaeran datorren hiztegitxotik jasotakoa da. Hemendik aurrera horrelaxe tartekatuta agertuko dira testuan, 1935eko argitaraldian argibide gisa emandako hitzak.

⁶ Idazkun: inskripzioa.

⁷ Ofí: maiatza.

⁸ Ingi: papera.

⁹ Irozkai: euskarria.

Badakigu orduko ta oraingo jakintsu edo sasi-jakintsu askok ez dituztela irakasle oyeak aintzakotzat artzen. Oyen lepotik naiko paña ta iseka egin dute. Paña ta isekak ordea ez dira afazoyak! Ta Astarloaren ta aren kidekoen afazoyai, afazoyaz erantzun bear zaye. Ez degu esango Arana-Goiri'ren edo Cejador'en iritziak betetzen gaituztenik; baño ayen aurka esanak, askoz gutxiago. Batzuek duan bai ta bai diotela? Besteak duan ez ta ez. Dana dala, euskeraren etorkiaz olerkari batek jakin bear duan guztia, gureak bazekian; eta geyago ere bai.

Bi sailetara olerkiak biurtu ditugu: lenengoan "Otoitzak" (geyenak aberkoyak) eta bigafenean "Abefi-oyuak" bildu ditugu. Otoitzolerkiak, bi edo iru ez beste guztiak, ereslari¹⁰ batzuek eskatuta elizan abesteko egiñak dira, ereslari beroyek erdel-bertsoen neufia aüetik eman-ta. Samufak dira, biguñak, beroak, efexak; baño efextasun au noizean bein geyegizkoa deritzaigu. Bigafen saila bai dala berdingabea. Olerki auetan euskerak ezin esan alako indaña ta sakontasuna agertzen ditu. Itzak, ele-jakitunen iritiz, bere otsutsez gauzen izakera adierazi bear omen dute, eta len-lengo izkuntza ori besterik ez omen zan. Efenderi Abaren olerkiak entzutean esan dezakegu an-emenka izakera berberaren abotsak entzuten ditugula.

Ara zugaitz-enboñak nolako otsa dagiten SABIN'en eriotzean:

...enbor gogofak izan-ta
dariz¹¹ biyurtzen kafasiz kifisk-kafaska,
miñaren miñez negarka.

Ara "Lekobidenia" eresian itsasoaren ofu ta eraso-aldiak:

Katazkan¹² afamaka¹³ ari dira uiñak,
Kunkaka kuzkatutzen¹⁴ arkaitzaren oiñak:
Laxter lertuko ondikoz!¹⁵ ditu gain-erpiñak
Ur afo oldarkofaren¹⁶ indar-alegiñak.

Entzun ontza'ren abotsa:

¹⁰ Ereslari: abeslaria, olerkaria.

¹¹ Dariz: [ari dira].

¹² Katazka: gatazka [esfuerzo grande].

¹³ Afama: oihua [grito, bramido].

¹⁴ Kuzkatu: koskatu, jo [chocar, estrellarse].

¹⁵ Ondikoz: damurik, zoritxarrez [ay! por desgracia].

¹⁶ Oldarkof: ausarta [osado].

Gabian geunden biderik gabe galduak,
ta ilundurikan tamalez¹⁷ gure goguak:
Ontzak onela urubi¹⁸-ulu¹⁹ zegigun,
Jun gera gu, jun; guk egin dugu il ta jun.

Benetan olerki auen egilea izadi-amaren magalean bizi zan, ta oni ezpañetatik zerion izkuntza ikasi zion. Bertso oyetan itz bakoitzak zer adierazten duan eztago galdetu beafik; abotsak berak naiko adierazten du.

Afitezkoa da gañera euzkotar lotiak esnatzeko zenbat oyu-mota egin dizkigun: or darabilzki txandaka para ta negafa, itxaropena ta etsipena, leunkeriak eta isekak, ezta ta ozpiña, lafitasun-mafaskak²⁰ eta gurenda²¹-oyu alayak; alde guztietatik gogoa ta biotza astintzen eta kilikatzen ditu...

...Ta gure Abefi amaren seme berezietako au, Abefi amaren abeslari zoli²² bikain au, oraindik ogei ta amabost urte bete gabe, “ludi²³ zitalez nekatuta”, betiko ixildu bear! Muskaria’ko (Tudela’ko) lekaidetxean il zan, 1916’ean, garagafilaren 10’ean.

Abertzaleak esker onekoak badira, Efenderi Aba zanaren oroipenak ayen artean luzaro iraungo du...

ALDAYA²⁴

¹⁷ Tamal: [naigabe aundia].

¹⁸ Urubi: oihua.

¹⁹ Ulu: [graznido de buho, lamento].

²⁰ Mafaska: orroa [chillido].

²¹ Gurenda: garaipena [victoria].

²² Zoli: bizkorra, zalua.

²³ Ludi: Lurra.

²⁴ Aita Onaindiak dioenez, Elduaiendar Tomak izenpetu zuen hitzaurrea *Aldaya* ezizenez.

I'go. SAILA

OTOITZAK

JOSU-BIYOTZAREN ABESTIYA*

Gora²⁵ ta gora - Biyotz Deuna,
abestu beti - Gora Jauna!

I

Josu'ren Biyotz - labe goriya²⁶
denentzat dago - ager, ager;
sartu kistafak²⁷ - an sututzer, a,
an efetzera - laster, laster.

II

Jaunaren kaltez - jaso²⁸ dirade
etsai gaiztuak - ba'endi'tik²⁹;
Josuzaliak - aldeztu, Jauna,

* Errenderi'tar Erraimunda Mirena Aba, "Josu-Biyotzaren abestiyak", *Euskal-Esnalea* 13 (1909) 159; Fanderiya, *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 102 (1909) 4; Panderiya, "Josu-Biyotza Abestiya", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 197 (1911) 1; Errenderi'tar Erramun Aba buruñurduna, *Euzkadi*, 1916/06/30, 1; Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

²⁵ *Gipuzkoarra*-ko argitaraldian sarrera bat dator olerkiaren aurretik:

"Con especial placer publicamos á continuación una bellísima composición euzkérica dedicada al Sagrado Corazón. Un respetable vasco tan entusiasta de nuestras glorias como el poeta, ha puesto música delicadísima á la poesía que puede así mismo cantarse en el tono conocido de *Corazón Santo, Tu reinarás*.

A llegar á nuestras manos con anterioridad hubiéramos insertado al trabajo en nuestra primera plana."

²⁶ *Euskal-Esnalea*-ren hamairugarren alean *gorriya ageri da eta ez goriya*.

²⁷ Kistaf: kristaua.

²⁸ *Euskal-Esnalea*-n *jeiki ageri da*.

areriya³⁰ - garaiturik.

III

Suzko biyotza - gaña biziya
eřetzen zauden - Biyotz ene,
piztu ludiya, - gartu gizonak,
gogo guztiyak - suaz eře.

IV

Eguzki eder - argi garbiya,
sartu kistařen³¹ - biyotzetan;
gero obendiyak³² - eztira iraungo³³
eřu beltzaren - ilunpetan.

V

Atoz, ba, Jauna; - guazen, ba, denak;
guazen, gizonak³⁴; - atoz, Josu;
Sua nai duzu, - sua nai dugu;
betor, ba, Jauna³⁵, - su eta su!³⁶

* * *

Sua darien itz neurtu auek, zegokien ereslaria arkitu zuten. Orduan [ereslari](#) beři
zan Donostiar Jose Antonio Abak ereskidetu zituan.

²⁹ Bařendi: [inpernua]. *Euskal-Esnalea-n Barrenetik* ageri da.

³⁰ Arerio: etsaia [enemigo].

³¹ *Euskal-Esnalea-n gizonen* dator *kistařen* tokian.

³² Obendi: bekataria [pecador].

³³ *Euskal-Esnalea-n egongo* dator.

³⁴ *Euskal-Esnalea-n guztiyok* dator.

³⁵ *Euskal-Esnalea-n* eta *Euzkadi* egunkarian *suba*, eta *Gipuzkoarra-n sua* dator.

³⁶ *Euskal-Esnalea-n* olerkiari buruzko zenbait oharpen dator: "(Abestutzen da "¡O Biotz-Santu..." lez!. Uarrpena: Abestiya = kantuba; abestu = kantatu; barrendiya = inpernuba; kistarra = kristaba; aldeztu = defenditu; ludiya = munduba; obendiya = pekatariya."

OROITU ZAITEZ!...*

(Quia pulvis es, et in pulverem reverteris. Genes. III-19.)

Bizitz igazkor³⁷ onduan dago
eriyotz izugafiya;
beraren esku-atzapafetan
utziko dugu biziya.

Aberats eta txiro guztiyak,
argalak eta altsuak
eriyotzaren guda³⁸ ofetan
izango dira betuak³⁹.

Ara gizon bat... ara bestia...
ara amar... aneigafena⁴⁰...
ezin litezken zenbatu aiña,
orok galdutzen bizmena⁴¹.

Batzutan aufa txiki-txikiya,
polit-polita, gaisua!
eroritzen da obi-zulora
utzita amaren besua.

Beste alditan gaztiak dira,
gazte sendo ta zoliak,
iltzen diranak iritxi gabe

* Errenderi'tar Erraimunda A., *Euskal-Esnalea-ren 'Esku-egundiya'*, 1910, Valverde, Irun, 41; Aita Onaindia, *Mila euskal-olerki eder*, 1976, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 800-803; Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

³⁷ Igazkor: igarokorra [transitorio, fugaz].

³⁸ Guda: gerra [guerra].

³⁹ Betu: azpiratu, garaitu.

⁴⁰ Anei: mila [mil].

⁴¹ Bizmen: bizitza.

beren naikunde biziak.

Orain gizonak lagatzen ditu
ezkon⁴² samuía alargun,
seme txikiyak ume-zurtz eta
sendi guztiya betífun.

Ikusi gero agure zafak
obi-albuan dardarez;
etsi-zoriyan daude, dardaizak
adierazten duenez.

Denak dijuaz, denak aguro
bizitz ontatik bestera...
Autsa ta loya ez izanikan
beste gauzarik ez gera!

Euskal-Esnalea-ren "Esku-Egundiya"-n argitaldua. 1910.

LOURDES

OSTERARIYEN⁴³ ERESERKIYA⁴⁴

Aupa guztiyok, - jo aufera
laxter-laxterka - Lourdes'era!

I

Efi oroen - Ama da Miren,

⁴² Ezkon: senarra edo emaztea [esposo o esposa].

⁴³ Osterari: erromesa.

⁴⁴ Osterarien ereserkia: Erromesen himnoa [Himno de los peregrinos].

* Errenderi Aba, *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 196 (1911) 2; Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

Euzkaditáfen - Ama ere bai.
Ta Ama dalako - Lourdes'en dago
bere Euzkadi'ko - semien zai.

II

Miren garbiyak - Euzko-efiyaz
galde dagila⁴⁵ - bai dirudi;
ofexegatik - gaur bai dijua
Ama ikertzera⁴⁶ - gure Euzkadi.

III

Batzar zařetan - ziyon Euzkadi'k
obenge⁴⁷ zala - Miren beti;
eta Neskutzak⁴⁸ - goguan dauka
oraindik agur - gozo ori.

IV

Masabiel'ko - arkaitz artean
atera zaigu - itufiya:
Bertan euzkuak aseko degu
gogo bařengo - egafiya.

V

Eskafak dira - Lourdes'en dagon
itufiyaren - ur gozuak.
Ama Neskutza, - guretzat ere
ideki, afen, - zure eskuak.

⁴⁵ Dagila: egin dezala.

⁴⁶ Ikertu: bisitatu [visitar].

⁴⁷ Obenge: bekatugabea [sin pecado].

⁴⁸ Neskutz: [Birjiřa].

VI

Ez gera juango - gure etxetara
iritxi gabe - zure eskařak:
Laxter, ba, laxter - onetsi⁴⁹, Ama,
Ama maitia, - euzkotařak.

LOURDES'KO AMA'RI

Amatxo laztan maite-maitia
Euzkadi iltzera dijua,
Min-miñez eta oñaze lařiz
Ezin bizirik gaxua!
Ařen, ba, Miren, gure eřiyari
Beira ta jafi sendua;
Ez utzi, Ama, Aberiya il-ta
Iltzen negařez euzkua!

Atsekabe ta malkoz beterik
Gaizki dagoen guztiya,
Ertunak⁵⁰ eta landeřak⁵¹ datoz
Zuganantz, Miren garbiya:
Ořa Euzkadi elbařitua
Zure aufian jafiya;
Osatu, Ama, osatu, otoi,
Euzkotařaren eřiya.

* * *

Ereserki bi auen beri egileak berak emango digu:

⁴⁹ Onetsi: [bedeinkatu].

* Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

⁵⁰ Ertun: dohakabea [eri-duna, enfermo].

Lizafa'tik Donosti'ra.

Arantzadi'tar Ingartzi Jauna'ri.

Ene biyotz-biyotzeko aberkidia: Desakezu noski onezkero: "Lekautiyari"⁵² deus agintzia baño okefagorik ez da; opaltzen dutena ez dute betetzen. Lurdes'era abestiyak?" Ez kezkarik izan. Zer edo zer egin dut. Izkiyak bidaldu dizkiyot Donostiar Joseba Andoni Abari, eta artu onduan nere izkiyak berotu-berotua idatzi dit ain pozez jartzen dela lanian eta abar. Eresalduko⁵³ du, bada, ederki baño obeto, ereslari izugafi bikaña dalako. Orain arte bi izki-enda bidali dizkiyot: Bat da ereserkiya edo ofelako abestiyaren bat eraltzeko⁵⁴; bestia befiz Lurdes'era eramango dituzuten ertunaz, gaxoaz zer edo zer desana; au, da *Euzkadi minduaz, atsekabetuaz* itz egiten duana. Itz neurtuetan erderazko itzik ez dut jafi; bañon nere ustez denak efaz ulertuko dute. Egi-egiya dasazut⁵⁵ Gipuzkoa'ko lekaretzetan⁵⁶ jafiko bagiñuzteke gipuzkoafari, zer edo zer egingo genuke euzkeraren alde, sayatuko giñake itzaldietan, abestiyetan eta abar. Bañon bai dakizu *euzkota'ra* izatia zer dan. Lekauti españafak España'n bizi dira, pantzetafak Pantze'n, italiafak Itali'n; gipuzkoafak non-nai Gipuzkoa'n ezpada. Amazazpi urte daramazkit Gipuzkoa'tik atayan, eta nai ta naye Erdel-efiyan bizi bear... Donostiar Joseba Andoni Abak argitaltzen dubenian bere lana, gorald⁵⁷ alik aiña bere egintza, abertzaliak gogoz artu ditzaten Aba ofen abestiyak...

(1911-III-2)

Donostia'n, Erviti'enean [argitaldu](#) ziran.

DEUN PANTZESKA-IRUGAËN BATZAREN ERESERKIYA*

Orok:

Goi-gorantz gora - Asis'tar aundiya!

Gora ta gora - gure Zaindariya!

⁵¹ Landef: behartsua [pobre].

⁵² Lekauti: ermitaua.

⁵³ Eresaldu: abestia osatu.

⁵⁴ Erald: eratu.

⁵⁵ Dasazut: esaten dizut.

⁵⁶ Lekaretxe: bakartuta dagoen komentua.

⁵⁷ Gorald: goratu.

Apaldiyak:

I

Bildur gofiiyan daude gaiztuak,
Dardar-dardaéz etsayak,
Ikusirikan beren aufian
Asistaáren anayak.
Ekin gogorki etsai oyeri,
Gudari pizkor ernayak,
Garaitu arte, abestu arte
Gurenda-abesti alayak.

II

Beltzebukide bekotaári⁵⁸
Dakizkiegun su-gaáak:
Su ta gar beti! etsi-lertzeko
Areriyuen indaáak.
Bekuak gorantz azpiratuta⁵⁹,
Goituta⁶⁰ gorantz goitaáak,
agur au ixuri zitzayon:
Mendi gañetan egin ditzagun
Guda-gurenda didaáak.

III

Asistar Abak gure ikuíña⁶¹
Daduka gorantz jasua;
Bere eskuetan ikufin deuna

* Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

⁵⁸ Bekotaá: xehea.

⁵⁹ Azpiratu: garaitu.

⁶⁰ Goitu: garaitu.

⁶¹ Ikufin: [bandera].

Eder-ederki dijua.
Ofen atzetik jafai bildurge,
Asistar anai zintzua,
Berialaxen abestutzeko
Gurenda! pozez poztua.

* * *

Oraingo aldian ere egilea degu bere asmoen beñiemale. 1911-ko Ufia'ren 10-ean Arantzadi'tar Ingartzi'ri zuzendu zion idazki batetik, dañain zatitxo au berezitzen degu:

Irugañen Batza'rentzat egin dizutet ereserki bat. Uste dut Donostiyan **abestuko** duzutela "Goi gorantz gora - Prantzisko aundiya". Beti egin bear dezutena orixen da; eskatu euskeraz egiteko txadongi (funciones de Iglesia) guztiyak.

Emen ai naiz lanian. Oraindaño aberzalerik ez zelako ez nuen iñor ezagutzen, ezta're gogorik izaten iñorekin itz egiteko, Irujo-tafakin ez baldin ba zan. Orain aberzale mordoxka batzuk ezagutzen ditut eta oyekin askotan aritzen naiz. Baditut aberzale langile ta zintzuak. Auferantz goaz. Baxterka-baxterka ta mearka-mearka *Gipuzkoa'ra* ta *Bizkaita'ra* ta *Naparta'ra* nereganatzen dira. *Gipuzkoa'ra* oso poliki dator...

Agur, ene Ingartzi biyotzekua.

GURTZA*
(Salve, Regina!)

Agur, Bakalduna⁶²,
ona baño onago,
zuri beira dago
beti Goiko Jauna.

Amarik maitena,
xamur eta bera,
zu guretzat zera

* Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

itxaron⁶³ bizpena.

Otoi-dei-afenak
ari gera eiten,
negañez itotzen
ludiyen gaudenak.

Beraz, Ama Miren,
Miren Zaindaria,
izan erukiya
guztiyontzat, afen.

Ta ilko geranian
ezañi zaiguzu
zure seme Josu
gentzatuta⁶⁴, aufian.

Agur, Ama xamur
erukitsu ori!
Agur, Miren, beti,
agur, agur, agur!

* * *

Ezin eraman zuan gure olerkariak Euskal-Efiko elizetan otoitzak erderaz egiteko zegoan eta dagoan leia. Birau-mota zeritzayon Jaungoikoarekin itz-egiterakoan Berak guri emandako izkuntza ezetsi ta beste batera jotzea. Ara nolako espa⁶⁵ agertzen dion *Gipuzkoara*-ren zuzendariari:

⁶² Bakaldun: Erregina.

⁶³ Itxaron: [esperar].

⁶⁴ Gentzatu: baketu.

⁶⁵ Espa: kexa, intziria.

Noiz asiko zerate a'ortutzen *Gipuzkoara*-n etoñi zaigula arua erdera baztertzeko, ateratzeko, jaurtitzeko irakastoletatik, txadonetatik⁶⁶ eta alde guztietatik? Bai dakit iñoiz edo iñoiz zerbait esan dela. Bañon oraindaño esana ez da asetzeko aiña. Geyago, askoz geyago esan bear da. Nik zuk bezelako burua banuke beti erdeltzaliak lertzen ariko nintzeke. Donostiyan ainbeste abertzaliak izan ta, zergatik erabakitzen ez dezute, goguak batuaz, ez sartzeko erderaz egiten duten txadonetan? Denak goraltzen dute poloniatafen abertzaletasuna, ukatzen diralako edo nai ez dutelako alemaneraz otoitzak egin, poloneraz baño.

Zergatik ez goraldtu euzkotafen abertzaletasuna, ori bera euzkeraren alde egiten badute? Ondafabiyen esan zidaten orain bi urte dirala zu ango lekaretxetik atera ziñala Mirengurtza edo efosariyoa erderaz asi ta beriala; eta ori esan zidaten zure aberzaletasuna abegi onaz arturik. Ori bera gertatu liteke abertzale guztiyakin Donostiyan eta beste euzkal-efietan...

(1911-III-2)

ARANTZAZUKO MIREN GARBIYARI

Oña or Arantzatzu

oña Ama garbiya;

Oña begiz begira

gure Zaindariya.

I

Guda gogoña

alde guztitik

ondata nairik

gure efiya...

Begira bertan,

Ama onena,

Euzkadi dena

eroriya!

⁶⁶ Txadon: eliza.

II

Ipar aldetik

otzak jotzen du
ta usteltzen gaitu
ego⁶⁷ txarak...
Miren garbiya,
aldendu min-gaitz,
erauntsi-ekaitz
ego-ipafak.

III

Neke arantzez

bete-betia
euzko-efia
da arantzatzu...
Arantzatzu'ra,
Amatxo maite
kutun orixe,
betorkigu.

IV

Ama eldu-ta

arantz-sasira
loratzen dira
arantz denak...
Erdi, Neskutza,
efi onera
guri kentzera

* Errenderia'tar Erraimunda Aba, "Arantzatzuko Miren Garbiyari Obertikiya", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 262 (1912) 1; Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

⁶⁷ Ego: hego haizea.

gaitz-obenak.

V

Indáñez degu

guk aintzatuko

Arantzatzuko

Miren ori:

Aupa luditik

ortze⁶⁸-ondora!

Gora ta gora

beti-beti!!

MIREN EŦU-GABIA*

Miren eŦu-gabia,

neskutz garbi-garbiya,

mendi-elur zuriya

baño zuriyago:

edertasun orixen

aintzatzeko ludiyan

iñon ere bear dan

aintzarik eztago.

Noizpait baldin badabil

ílunditan⁶⁹ ontziya,

Miren da itxas-argiya

itxaso bafenen.

Izar-argitasuna

goguak ílunbian

⁶⁸ Ortze: zeru-sabaia [cielo físico, firmamento].

* Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

gabaz dabiltzanian
orixen⁷⁰ da Miren.

Miren Ama kuf'una,
alaba ta semiak
nekiaren nekiak
ei dituzte ugari.
Naigabe-neke-miñak,
gogo-biyotzen zama
nori agertu, Ama,
baizikan Amari?

Amarik xamur eta
neskutz edefena,
ikusi miñ-obena
gure biyotzetan.
Ikusi, bai, ta ondu,
ondu gure goguak;
zaindu seme gaxuak
guda gogofetan.

Olerki au eta ondorengoa egileak Miren-alabei opalduak daude.

AGUR!*

Agur, Ama maitia, - enetxo gaxua,
zu bakarik utzita - ufutirantz nua.

Gaurtik gerorantz utzik - izango zerade,

⁶⁹ Ilundi: ilunpea.

⁷⁰ Aita Onaindiaren lanean *ortxen* dator.

* Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

zure magal-onduan - alabarik gabe!

Ari beizkit⁷¹ Amaren - begiyak begira,
beñiz biurtu arte - gaur nagon tokira.

Ludi bide guztiyak - dakuskit loituak;
zikinduko ote naute - obenen eñuak?

Etsayak bai-dabiltza - ziñez nere bila,
zauriturik uzteko - ni bidian íla.

Ni gaiztotu-ufunian - nabiía, Ama Miren,
ken zaidazu gogua - gaitzak jo baño len.

Eldu nai dut nik ere - deunakin batera
zure magal-magalan - poz pozez iltzera.

Miren-ondotik ufun - beñak narama;
beñiz etoñi arte - agur, agur, Ama!!

AMA TAMALTSUA⁷²

(Stabat Mater Dolorosa)

Ama bai'zan negartsua

gurutz-oñan iltzetua

Semia zegonian.

⁷¹ Beizkit: bekizkit.

⁷² Tamaltsu: nahigabetsua.

* Afobitañ Danel, *Euzkadi* 17 (1912) 383-385; Arrobitar Danel, *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 240 (1912) 2; Errenderi'tar Erramun Aba, "Gurutze ondoan", *Zeruko Argia*, 4 (1919) 66; Eñenderi'tañ Eñamun A., "Gurutze ondoan", *Zeruko Argia*, 51 (1923) 42; Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea. *Zeruko Argia*-n aldaketa dezenterekin dator olerki bera eta bere horretan jasotzea iruditu zaigu egokiena; "Olerki solteak" atalean irakurriko duzue "Gurutze ondoan" izenarekin.

Bera'ren gogo gaxua
gaitz-naigabez ilundua
aiztuak zaurtu zuan.

Oi! zan itun⁷³, zan atsege⁷⁴
gurutz-oñan Josu Seme
bakañaren Ama utza.

Alege⁷⁵ ta ala zan Miren
zekusala⁷⁶ Semiaren
neke ta min zofotza.

Negar, ziñez, nork ez leike⁷⁷
Josu-Ama balekuske⁷⁸
min oñen aundiagaz?

Nork ez izan malko-leuna
ikusita Ama kutuna
Semiaren intziraz?

Gizaiden obenakatik
dakus Josu oñazturik,
dakus zigorpetua.

Dakus Josu maite-maite
alak⁷⁹ iltzen, utzi arte
azkenikan gogua.

Iya, Amatxo maitagafi,

⁷³ Itun: tristea [triste].

⁷⁴ Atsege: atsekabetua.

⁷⁵ Alege: tristea.

⁷⁶ Zekusala: [ikusten zuala].

⁷⁷ Leike: egingo luke.

⁷⁸ Balekuske: ikusiko balu.

irardazu⁸⁰ miña neri
negar dagidan zukin.

Josu!⁸¹ nere biyotzari
Kisto maitiaz pozkafi
beretzat izan nadin.

Aren, Ama, iltzetuaren
zauriyak biyotz-bafenen
irafi zaizkidatzu.

Nigatik il zaizun Seme
zaurtuaren miñak ere
neronekin banatu.

Zukin negar nik samurki
ta minkidatu Josu'ri
egizu bizi-arte.

Gurutzpian zukin iraun
ta adiyetan⁸² izan lagun
egunero nai nuke⁸³.

Neskutzik bikañen ori,
malkuak ixurirazi
gozotu zaizkidatzu.

Kisto-eyotzaren⁸⁴ seña,

⁷⁹ Ala: tormentua, zigorra [tormento].

⁸⁰ Irafi: zizelatu, josi [imprimir].

⁸¹ *Euzkadi* aldizkarian eta *Gipuzkoarra*-n *Jo jsu!* dator.

⁸² Adia: auhena, intzeria [lamento, estrofa].

⁸³ *Gipuzkoarra*-n hortik atzerako olerkiak ez dira ageri. Bestalde, zenbait hitzen oharpena egiten du: "Ikurr batzuk: Utza = limpio, puro; Ama tamaltsua = Madre Dolorosa; Aizto = cuchillo; Itun, alege, ala = triste, agobiado; Zaurtu = herir; Ala = tormento; Semiaren = á causa de, por el hijo; Irartu = hacer tomar; Irarri = imprimir; Minkidatu = condoler; Adia = gemido".

nekauste⁸⁵-zauri laguna,
Ama, egin nazazu,

Nazazu zauriyez zaurtu;
bañu dena, Kisto Josu,
gurutz-oñazez ase.

Epaikundian ni ziñez
aldeztu, Ama, sukaféz
enadintzat ni éfe.

Il zoriyan, Kisto Jauna,
emadazu goi-zoruna⁸⁶
Miren Ama'ren bidez.

Lufa utzita beriala
gogo auxen dijoala
donokira⁸⁷, eskaféz.

Olaxen.

Olerkariaren negar-zotin auek etziran gezuñezkoak; bañenbañendik zetorzkion.
Bere idazki batean onela dirakurgu⁸⁸:

"Stabat Mater Dolorosa" euzkeraldu dut; bañon ori bai nai nukela ederki ta txukunki egitia, gure Ama Neskutza ma'fe-ma'fiaren aintzarako. Beraz ez dizut orain bidaliko: ofaztu ta garbituta datoñen astian edo geroxiago bidaliko dut *Gipuzkoa'ra*'rentzat. Azketsi⁸⁹ onenbeste itzkeri. Otoi egin zagun, otoi berua Goikuari onenbeste gaitz kentzeko lenbaitlen Euzkadi'tik. Abek lanak!

⁸⁴ Kisto-eyotza: Kristoren heriotza.

⁸⁵ Nekauste: pasioa, nekaldia.

⁸⁶ Zoruna: zoriona.

⁸⁷ Donoki: [zerua].

⁸⁸ Dirakurgu: irakurtzen dugu.

⁸⁹ Azketsi: barkatu.

Biyotz guztiya aspalditik ufatua, lertua edo daukat, eta nonnai eta edonoiz ene Abefiyaren gaxokeri besterik ez dut ikusten...

Agur, agur...

BI EGUBERÍ-ABESTI*

I

Osto ta abar artian - geldi, goitařak;
Aurá lotan dago ta - ez jo abarařak.

Gotzon⁹⁰ egatiyak - bildu egalak,
poliki-poliki, - gotzon goitařak.
Otsik egin gabe, - gotzon dan-danak:
Aurá lotan dago ta - ez jo abarařak.

Neguan atsedan - bai du bearař;
ez esnatu Josu - ega-egaka.
Iñolaz ikutu - ez ba, goitařak:
Aurá lotan dago ta - ez jo abarařak.

II

Malko samin oyeř - txukatu, Josu;
Negarařez bazaude, - nolaz abestu?

Miren-magalian - ixildu, Josu;
Ama daukazu ta - ixil, enetxu.
Begi-betsein⁹¹ oyeř - argi-argitu;
Negarařez bazaude - nolaz abestu?

* Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

⁹⁰ Gotzon: [aingeru].

Jayo zeralako - Betelenan gaur
goiko geznariyak⁹² - poztu dituzu;
Ez orain begiak - malkoz ílundu,
Negáñez bazaude, - nolaz abestu?

Ikusi Lope de Vega'ren "Pues andáis en las palmas" ta "No lloréis, mis ojos". Olerkitxo auek euskeraz ematean, gure olerkaria Donosti'ko Joseba Andoni Aba'ren esanera zetofoen. Onek ereskidetu-ta Erviti'nean argitaldu ziran.

KISTOREN GOGUA*

Kistoren gogua; ni donetu⁹³.
Kistoren Soña, ni gaizkatu⁹⁴.
Urtzi⁹⁵-Odola, ase nazazu.
Gurutz-Nekia, ni indartu.
Kistoren Sayets-ura, ni garbitu.
Josu on-ona, neri entzun.
Zure zaurietan yagon⁹⁶ nazazu.
Ta ez utzi zuretik aldendutzen.
Etsai gaiztuatzaz ni aldeztu.
Nere eriyotzian dei nazazu;
ta agindu ni zugandutzeko,
Deunakin goreztu zaitzadan.
Beti, beti, beti ta betirako.

Olantxe.

⁹¹ Betsein: begi-ninia.

⁹² Geznari: mandataria, mezularia [mensajero].

* Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

⁹³ Donetu: santutu.

⁹⁴ Gaizkatu: salbatu.

⁹⁵ Urtzi: Jainkoa.

⁹⁶ Yagon: [gorde].

Erderazko "Alma de Cristo" otoitz ezaguna.

JOSU MAITIARI*

Mendi-gañetan elufa jariya
elur agitz otza:

bañon urtzera dator Eguzkiya,
eltzen da Biyotza.

Abestu beti abesti gartsua
Josu maitiari;

ereserki bat bero ta sutsua
dagiogun safi.

Josu ni-bila dabilen unetik
Josu-zale nabil:

Bizi izatekoz maitia gaberik
nabila bertan il.

Bafen guztiya zugatik, Jaun ori,
bero-bero daukat:

Zu-zureztat ni, betirako beti;
ta Zu, ni-neretzat!

Itz neurtu auek, ondo neurtuak al daude? Egileak berak etzuan ofelakorik bete-
betean sinisten. Idazki batean dionez, amaikana izkin⁹⁷ dituzten bertso luze oyek bina

* Errenderi'tar Erramun A., "Jesus maiteari", *Zeruko Argia* 1 (1919) 5; Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

⁹⁷ Izkin: silaba.

zati dituzte: lenengo zatian bost izkin irakuñi bear dira; bestean, sei. "Bildur naiz, dio, belafiak zerbait erdeldundu ote zaizkidan. Dana dala, neñi ori eman didazutenezkero...".

ATOZ, JAUN ORI*

Atoz, Jaun ori, zu uñundutzia
biyotzarentzat gaitz zofotza;

Atoz, Jaun ori, ez pa'didazu
nekez ondatu nai biyotza.

Josu kenduta, Jauna gaberik
nere gogua gaizki dago:

Atoz, Jaun ori, bestela atsegez
ezin bizi-ta ill nayago.

Niganantz, Josu, nerekin bertan
idetutzera⁹⁸ atoz, afen;

Zurekin beti bat izan nadin
beti-betiko, onelaxen.

Elduayen'dar Toma Abak ereskidetuta "[Zeruko Argia](#)"n argitaldua. (1923-ko Agofan⁹⁹).

* Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

⁹⁸ Idetu: kideku, berdindu.

⁹⁹ Agof: iraila.

JOSU BIYOTZAREN ABESTIYAK

I

Neke-neke gabiltza - guztiyok ludiyan;
Biyotzian sar gaitetz - atseden gaitian.

Erauntsiya ikusita
etofi-ta negua,
enara bai-dijua
eguaa igesi.
Otz ta gaitzez beterik
luditik egatua
igotzen da gogua
Biyotzerantz safi.

Eiztariyak jo eta
odoldua guztiya
uxu txuri garbiya
arkaitz artera jun.
Ara, Josu-Biyotza,
uxu-kabi guriya;
arantz igo obendiya
etsaitatik urun.

Ufuma ta zemaka¹⁰⁰
ekaitza datořela,
itxaskiyak¹⁰¹ daudela
gu-gañian, Josu!
Jauna, Jauna, guganontz
el-zaitetz beriela;
atoz, afen! bestela

¹⁰⁰ Ufuma ta zemaka: Usoen kurruka eginez eta mehatxuka [rugiente y amenazador].

galduak gaituzu.

II

Ludiya dago - epel, otza;
erain zayozu - su, Biyotza.

Biyotz maitia, - zer nai dezu
ez-pada bota - su eta su?
Maite Biyotza - guk nai degu;
bota sukaña - laxter, Josu.

Gure artian - da negua,
utzitzen dena - izoztua:
Biyotz gugatik - sukartua,
aŕen, bidali - zure sua.

Josu-Biyotza - maite maite,
Biyotz-baŕengo - sutan eŕe:
labe ortako - gaŕik gabe
ez iñoiz bizi - iñolare.

III

Zuganantz guaz - Josu, beti
ideki bada - Biyotz ori.

Maldak betiak - osin, otez:
bidetan laŕa - besterik ez:
bañon gu gorantz - bide-bidez
il arteraño - Kistoren lez.

Ekin-ekinka - itxaskiyak

¹⁰¹ Itxaski: olatu handia [ola, oleaje].

itxasperatu - nai ontziyak:
bañon ez izan - gu nagiyak,
ta auñera beti - gudariyak.

Oña mendiko - gain galúfa;
itxas-ertzian - oña luía.
Gaitz-mota dena - jun omen da,
ta iritxi degu - guk gurenda.

IV

Atoz guganontz - gure Josu;
eta gugandik - ez urundu.

Laxter aguro - jetxi bedi
donoki goitik - Biyotz ori:
Ez gaitzazula - Josu, guri
bakarik, afen! - inoiz utzi.

Ene Biyotza - Biyotz ene,
maite nai eta - ezin maite.
Nolaz ordian - Josu gabe
gure gogua - sutan efe?

Goi oyetatik - ludiratu;
el-zaitez, otoi, - gure Josu,
eta gogotan - sartu, sartu;
gu Zu izateko, - Zu beriz gu.

V

Obenak ideki du - Kistoren albua;
zauri ortatik orain - Biyotzerantz nua.

Etzan aski Josukisto

ondaturik utzitzia,
makil-zigorkaz josia
ta arantzez estundua¹⁰².
Bear ziran erorpenak,
bear ere gurutzia,
ta ilezkeroz izatia
oraindik zauritua.

Gurutz artan azkenikan

il zan alaz Goikua;
soña zeukan ubeldua
ta berantz eroria.
Alaz ere gudariyak
zaurtutzen diyo albua,
bide Biyotzerakua
zabalduez guztiya.

Irain¹⁰³ izugafiya zan

obenak egin zuena;
ebaki sayetz deunena
gofotosun zofotzez.
Bañon, ai! zein beraxtasun
beraxtua Josurena,
egin bertan azkespena¹⁰⁴
ainbat gaitzen ordañez!

VI

Onesten degu, - gure Jauna,
zure goi-beko - jauntasuna

¹⁰² Estundu: inguratu.

¹⁰³ Irain: [ultraje].

¹⁰⁴ Azkespen: barkamena, absolutzioa.

Josuren aginbian
dago beko ludiya;
Ortze guzti guztiya
Jaunak azpiyan du.
Gaitzagatik uruti
dabil nere gogua
zuretik aldendua,
ene Kisto Josu.

Egíliak nai dun lez
ibayak itxasora,
odei lañuak gora
dabiltz oro zuzen:
Bakar-bakafik gerok,
obendi txar-gaiztuak
bide debekatuak
ditugu bílatzen.

Ikusten da Goikua
mendi, oyan ta baso,
naiz legor naiz itxaso
biyotz ta azalian.
Gaitzerik zořotzena!
Jaberik ez da arkitzen
obendi gaiztuaren
biyotz-bařenian.

VII

Izan eskařen - ituřiya
Beti neretzat - idekiya.
Bafen guztiya - sukartua
min-miñez daukat - nik gogua.

Zatozkit, Josu, - len baño len
ni ureztutzero - atoz, afen.

Leyaka gaitza - nairik nabil
eta naigabez - iya naiz il.
Itufi deuna - Kisto Josu,
ni sendatzeko -, non zaude zu?

Griñak gafetan - jartzen gaitu,
ta ur gabe gaude - éretzen gu:
Biyotz ortatik - ura ixuri;
bidali ura - laxter guri.

VIII

Atoz aguro, - Jaun onena,
Zu zera gure - onespena.

Biyotz gartsua, - lanbo suzkua - dariyozu:
Bota txingar bat - bederik¹⁰⁵ gutzat, - ta izeki¹⁰⁶ gu.

Elur otz otza, - orma ta izotza - nun-nai dira:
Berotasuna-ekartzu, Jauna, - ai! ludira.

Sukar biziya, - euzki izekiya, - Biyotz ori:
ekaíi sua, - kendu negua - saíi, saíi.

IX

Jaso gizon orok - goguak goira,
Josu dagolako - an gu begira.

¹⁰⁵ Bederik: bederen.

¹⁰⁶ Izeki: su hartu, sua piztu.

Gora jotzen dute
laño-ke-lufiñak¹⁰⁷;
ortzerantz ariñak
igitutzen dira:
Gure gaurko jai au utsa litzake bere arri oroigarri ori agerian jarri, bere izena nik aipatu ta goratu, jolas pixka bat egin eta gero etorri geran bezela, asmo sendoen bat edo erabaki goitarren bat artu gabe, geren etxeetara itzuliko bagiña. Ez dira jai auek antolatzen, txolarate batean atsegintzeko eta jolas aldi bat gure buruari emateko. Gaur emen gogoratzen degun gure efitar argiak, bere bizitza osoaz ematen digun ikasbide eder bat ondo ikasi eta biotz muñetan betiko itsatsita utzirik, itzuli bear degu guziok geren etxeetara.

Aitatu dizutet len gure Aita Eramonen Euskal Erriaganako maitesuna. Etzuan Euskal Erria, maite zuan eran maitatuko, Euskera ere, Euskal Erria ainbat maite izan ez ba'zuan. Bi maitasunok alkafengandik askatu eziñezkoak ditugu. Euskal Erria maite duanak, beraz, Euskera ere egitan maiteko du; eta Euskera epel maite duanak, ez du bero Euskal Erria maiteko. Argitu dezadan piskatxo bat esan dedan au.

Erri batek, erri berezia izateko, bere ezagungarri bereziak izan bear ditu, bestela ezta erri berezia dala ezagutuko, eta danok besteak bezelako edozein erritzat artuko luteke. Munduko beste erriak ez bezelakoa, erri berezi bat gure erria, Euskal Erria dala, jakintsuak eta ez jakiñak, danak aitortzen dute. Zergatik, ote? Batez ere gure izkuntza bereziagatik, Euskeragatik. Izkuntzak baitira, erriak bat besteagandik geien bereizten dituztenak. Euskera degu ba, gure erri au beste gañerako errietatik bereizten dituna, eta gure erriari bere tankera berezia ta nortasun aparta ematen dizkiona. Euskal Erri izenak berak ere orixe adierazten digu: Euskeraz itzegiten dan Erria. Gure erri osoan euskera mintzatzen zalako, Euskal Erria deitu zioten gure erriari. Gaur zoritxarrez ez dagokio izen eder ori gure erriari, ez baita euskera itz egiten bere lur alde guzietan.

Errien izkuntzak orduan, erritar guzienak dira, noski, ta ez litezke politika baten ezagungarritzat artu. Euskaldun guziak gaude euskaltzale izatera beartuak, gure aurrekoak eta gu jaio geran Euskal Erria itzez eta egitez maitatzera beartuak gauden bezelaxe. Orainarte ondo ari naizela esango dezute noski guziok. Zein euskaldunek esango du, ez duela Euskal Erria maite? Beraz euskera ere maite bear du; orduan euskaltzale izatea beartua dago.

Gañera Euskera, gure guraso euskaldunekin eta gure aurreko guziekin lotzen gaituan maitasun katea degu. Kate ori austeia, aienganako gure maitasuna ukatzea bezela da. Bai dala benetan negargarria guraso euskaldunak eta seme erdaldun utsak ikustea...! Lotsakizunik beltzena da ori eta orrelaxe artu bear luteke, lotsakizun beltz bat bezela, euskaldun guzi guziok. Beste erri guzietan gurasoak beren izkuntza seme alabei erakusten ez al dira, ba, saiatzen? Ori ez egitea, ez al dute lotsakizuntzat artzen?

Euskaldunak...! Gaur, euskeraren alde gogor jokatzeko garaietan gaude. Gure izkuntzaren alde egitea gaur, gure erriaren alde egin genezaken lanik bearrezkoena eta onurakorrena egitea da. Itzez eta egitez gure izkuntzaganako maitasuna ageri agerian azaldu bearrean gaude Euskal Erria maite degula diogun guziok. Lan bide ontan danok alkartuta juan giñezke. Danok, bakoitzak bere alderdian eta bere inguruan, egin genezake lan gure izkuntzaren alde, ta egitera beartuak gaude gure euskaldun izen garbia ukatu edo zikindu nai ez ba'degu, beintzat.

Artu dezagun, guk ere gure anai Xuberotar eta Lapurditarrek bezela, ikurritzat, aien olerkari ospetsu baten bertso au:

Bizi dadin Eskuara
orain eta gero,
saia gaiten ortara
euskaldunak oro.

Nola? Beti ta nun-nai euskeraz mintzatuz. Euskeldunei euskeraz, euskeldunekin, beti euskeraz. Gaizki edo ondo, euskeraz beintzat bedi gure jarduna. Erreztasun gutxi degula euskeraz itz-egiteko? Arituz arituz artuko degu; zenbat eta gutxiagotan itz egin, orduan ta motalago itz egingo degu. Ekin dezagun ortan; agertu gaitezen beti euskeldun.

Gurasoak...! Arren, alegiñaren alegiñaz zuen seme alabetxoei euskera sartu biotz biotzean, eta euskera izkuntzarik maiteena bezela gogoz erabiltzen erakutsi. Gure jatorri izkuntza ori bedi, gure etxeetako izkera bakarra.

Euskal ikastolak umez josita ikusi ditzagula gure Errenteri maitean; euskera maite dezutenik ez dute bestela bazterretan ziñistuko. Gaurko egunean guraso euskaldunen eginkizunik estuena da, etxean eta eskoletan bere umetxoak euskera ondo ikasi dezaten alegiñak egitea.

Nere itzalditxo onen laburpen baten gisan, eta obekigo itsatsita zuen buruetan gelditu dedin, Agate deunaren donuz abesteko, noizpait egin nituen bertso auekin bukatuko det:

Euskera degu gure mintzo ta
biotz bañengo zantzoa,
gure Eriaren oñari bizi
ta gure endaren gogoa.

Ziñez atsegin ba'zaizu txori
kantariaren kaiola,
atsegiñago umez josirik
noski euskal ikastola.

Gure umetxoen ikastola da
euskeraren mintegia,
or sortzen dira mentu sendoak
euskaldun baso beñia.

Ez da euskaldun izenaren gai
gure eskola maite ez duna:
eusko odolaren ukatzaile da
eta sasi euskalduna.

Euskaldun jator zeraten oiek,
ez uka zuen laguntza,
Errenterian gallendu dedin
gure aitonen izkuntza.

Au amaitu ondoren txalots ikaragarriak entzuten dira, ez da arritzekoa, itzaldia ere alakoa izan alda.

Itzaldia bitartean, oartu gaberik Astibia'tar Erñaimunda Aba'ri "Euskaltzaleak" opal dutako oroitarria azaldu dute. Arri polit ta txukuna.

Bereala ekin zion txistu soñuak. Makildantzariak datoz, gazteak "debuta" dute. Irineo jatorrari esker badu Batzokiak bigarren makildantzari taldea. Ederki dantzatu dira gure mutikoak, ondoren aurrekua dagite. Au ere bai ederki dantzatua.

Txalo ugari entzun dituzte ok ere.

Azkenik txistua geldi gabe, jendea dantza ta dantza gaua gureganatzen asi arte.

Egun eder ta alaia izandu da gaurkoa, irakaspén aundikoa, gai onetzaz beste bein idatziko degu.

Eskerrak

Eskerrak lenengoz eratzalleei, baita laguntzalleei ere.

Eskerrak baita ere Udaleko diran Errekalde, Escribano, Hortolá, Zalakain, Barrenetxea eta abar jai guzietan ia ziralako eta eskerrak berriro alboko erritatik etorri ziren euskaltzaleei batez ere agurtu genitun, "Aitzol", Benegas, Laborda, Olaizola, "Enara", Satarka, "Anaxtaxio" eta abar ta abar.

Agur bada euskaltzaleak eta jarraitu bide oneri gure erri osoa euskeldundu arte.

ANDONI

POESÍAS VASCAS: NUEVAS FLORACIONES*

Un frondoso arbolado cobija a una fábrica de harinas denominada Franderia. Rincón poético, propicio a la meditación y a la inspiración. El río Oearso pasa besando las raíces de los enormes castaños.

Aquí es donde nació un poeta. La Providencia le deparó este abrigo encantador para que en él se fortaleciera su inspiración. En este delicioso rinconcito forjó no un alma romántica y apacible, sino un corazón ardiente con erupciones de volcán fogoso.

Cuando todavía la fábrica no era sino un molino, con los ruidos monótonos y acompasados del agua que le animaba, nació el futuro poeta y gran patriota, el que andando el tiempo sería Padre Ramón de Rentería, el año 1881.

Como las hojas del bosquecillo de Fandería movidas por el viento otoñal se dispersan, así las poesías del Padre Rentería se escondían en los semanarios nacionalistas y en las revistas religiosas.

Una mano oculta, un corazón patriota, las ha vuelto a recoger en ese librito que lleva por título "Errenderi'tar Erraimunda aba, 1881-1916. Olerkiak". No caerá ya en el olvido la obra del poeta. El nombre del Padre Rentería será inmortal en la literatura euzkaldun.

La edición es sabrosa. Delicadísimas de por sí las poesías, las ilustraciones intercaladas, con retazos de las cartas del mismo poeta explicándonos el motivo o el origen de aquellas composiciones artísticas, avaleran enormemente el librito. ¡Qué feliz ocurrencia la de esa publicación!

¿El mérito poético del Padre Rentería? Hoy tal vez no lograrán esas poesías un gran renombre. La poesía euzkaldun ha avanzado hacia la cumbre con rapidez vertiginosa. Ni creemos que jamás el vate capuchino presumiera de poeta. Sin embargo, lo era. La fuerza instigadora de su mente no era solamente la creadora de belleza, sino amor a la patria, intensamente sentido, y al ideal religioso, ardorosamente profesado.

Con esto queremos indicar que estaba presto a acudir a todas las demandas. La mayor parte de sus poesías fueron hechas a ruegos de amigos y compatriotas.

* Ariztimuño, J., "Poesías vascas: nuevas floraciones", *Impulsor del renacimiento cultural vasco y social cristiano. Euskal kultura pizkundearen eta kristau gizartegintzaren eragile*, 1987, Erein, Donostia, 341-342. Aitzolek *Euzkadi* egunkarian argitaratu zuen artikulu hau 1935eko irailaren 29an.

Raramente en ningún poeta estas composiciones de encargo logran gran altura artística. Y algunas de ese librito reconocen este origen algún tanto prosaico.

Alentaba con todo en el corazón del Padre Rentería la instigación del poeta. Hay varias composiciones que pueden ser calificadas de magníficas. Las cuales precisamente demuestran que el patriota capuchino era un exquisito artista.

Va para muchos años que aprendimos de memoria la poesía "Euzkeraren eriotza", trenzada con gemidos dolorosos y emocionantes invocaciones, llenas de hirientes imágenes. Varias de esas estrofas son hoy populares. Grave, llena de altos pensamientos y de grandiosas imágenes es "Lekobidenia", simbolismo majestuoso de la patria esclavizada. Estas dos, con su conocidísima "Enara gaxua", son la terna de sus más encantadoras poesías.

A la religión, y especialmente al Deífico Corazón de Jesús, de quien era un ferviente enamorado, y a la patria dedicó su inspiración el Padre Rentería. Fe, patriotismo, arte y gran caudal de corazón encierra este librito de poesías del vate capuchino.

3.3. 1980tik aurrerakoak

EÉRETERIA'TAR EÉAMUN ABA OLERKARI ETA LEKAIDE*

Olerkari onen izaeraz aditzera banuen gaztetxo nintzalarik eta zorionez bere "Olerki-Txorta-Euskal Pizkundearen olerkirik onenak" deritzan idazti bat iritxi zait. 1936'go urtean baño leenago Jemein'tar Keperin'ek bilduak.

Olerki auek irakurriaz, arrituta gelditu naiz, bertan azaltzen baidira ainbat olerki zein baño zein ederragoak. Aita Efamunen nortasun berezia ikusiaz, bere izaeraren berri jakin naiean, bere arreba Pantzeskerengana jo det. Nor bera baño berri emaille ohera...?

Ain zuzen berarengana urbilduaz, bere bizitzako gai bereziak ezagutu arazi dizkit. Eta nola diran gauzak! Bere jaiotzaren Ageriaren bidez jakin det, aurtengo Azaroan bere jaiotzaren 100 urteak beteko dirala. Au dalata "Oarso" aldizkariaren bidez, bere biziaren kondair labur bat egitea bururatu zait, guk, bere erritarrok, orrenbeste aztuta daukagun erritar olerkari ontaz zerbait berri jakin dezagun.

Jose Ramon Gregorio Astibia Echegoyen, 1881'go Azaroaren 11'an "Fanderiko errotan" jaio zan. Bere gurasoak Joxe eta Sebastiana ziran. Aita, "Fanderiko" errotaria, eta hamalau senide izan ziran (amabi mutil eta bi neska). Sendi ontatik bizirik bat bakarra dago, Pantzeske len aitatua.

Ramon gure olerkaria, amabi urtekin Lekarotz'ko buruñurdunen ikastetxera dijoa lenengo ikastaroak egiteko asmoz eta bertan Jainkoaren deiari erantzunaz, lekaide izateko asmo sendoa artzen du.

Ikasle bezela ona izan zan, zuzen jarraituaz lekaide izan arteko urteak, eta era berean, olerkari eta idaz lanetarako gogo bizia agertuaz. Lenengo Meza, 1907'go Eguberri Egunean eman zuan, Ondarrabiko Buruñurdunen Eleizan.

Bere lekaide bizitza laburra izan zan, Lizarra eta Tudelan matematika maillean irakasle bezela. Denbora berean olerki eta idaz lan ugariak egin zituan. Bere abertzaletasunarengatik, oso jazarria izanik, bere lanetan izen ordeko auek erabiltzen zituan: "Buruñurduna", "Ori'tar Koldobika", "Afobi'tar Danel" eta "Panderi'tar Chantecler". Birikako gaitza beretaz jabeturik, 1916'go Garagarrillaren 10'an, Jaunaren besoetan il zan Tudelan, bere bizitzako ogeita amalaugarren urtean, lekaide bezela bederatzi urteraño iritxi gabe.

Gazterik ill arren, bere lanak ugariak izan ziran, olerki eta idaz lanetan. Bañan, tamalez, lan auetako asko guda denboran galdu ziran. Neregana iritxi dan “Olerki Txorta” onetan, Efamun Aba’re nortasun berezia azaltzen da; bere olerkiak bi zatitan banatzen ditu liburutxoak: Abefikoiak eta Jaungoikoiak. Abefikoietan ezin esan alako abertzaletasuna azaltzen du, batzuetan alai, bestetan gartsu, eta egun aietan ere Euskeraren etorkizun illunari buruz, bere biotzaren naigabea itun agertzen du.

Luze joko luke bere lanen gain olerkiz olerki iritzia ematea, bañan ezinegon bere olerki batzuen asierak zueiri azaldu gabe. Ona emen “Argiya” deritzanaren asiera:

Ara ara argiya
Bai dator Euzkiya
Argi befi argi zaña
¡Jaiki jaiki Euzkotaña!
Beira mendiyak sutan sutuak
sutan Euzkadi guztiya
Ilunpetatik iyo dalako
Gure asaben efiya:

Eta ona emen Aíatz abestiyaren azken bertsoa:

Negar egin, negar beti
jun danetik euzkiya
Ene go, biyotz ene
eztafi ta begiya
Pufukatu efai orok
lertu bañen guztiya
Nekatuta dagolako
ondatua Aberiya.

Aldi batzuetan edestitik zear dijoa bere olerkietan. Or azaltzen du ogeita amairu neurtikiz “Lekobidenea” etxearen izaera; or dijoaz beste ainbat, “Negar”, izenekoa — Aita Ibero, euskerazale goi maillakoaren omenez bere eriotzaren ondoren egiña—. Or, “Erne”, “Sabin”, “Gurenda”, “Ufetxindofa”, “Gentza”, “Egi gurenda”, guztiak abefikoitasunez beteak.

* Olaskoaga, Xabier, “Efenteria’tar Efamun Aba, olerkari eta lekaide”, *Oarso* (1981) 50-51.

Jaungoikotasun maillean idazten dituenean, bere kristautasun sinismen eta Zeruko Amarenganako maitasun berezia, sutsu azaltzen ditu. Itz maitekorrak, apalak, xamurtasunez beteak Zeruko Amari bere eskeintzetan, Josuren Biotzari bere amar abestietan, Lourdes'ko Amari, Deun Pantzeska'ri, Arantzazu'ri, Kristoren Gogua, Ama tamaltsua, eta beste asko eta asko... Bañan ezin utzi ez "Eguberri" bi abestiren asierak eta ez da ere bere bizitzako azken olerkia zueiri ezagun arazi gabe.

Osto ta abar artian
Geldi goitafak
Aufa lotan dago ta
ez jo abafak
Malko samin oyek
txukatu Josu
Negafez bazaude
nolaz abestu?

Abesti auek oso ezagunak dira eguberri jaietakoan artean eta bertan ikusten dezutenez biotz maitekor baten xamurtasuna azaltzen da.

Eta ona emen, bere eriotzaren bi egun aurretik idatzitako olerkia:

ENARA GAXUA

Zer esan olerki au irakurri ondoren? Zer geiago esan olerkari batek, orren olerki labur batean? Au zan Efamun Aba eta onela irten zan mundu ontatik enara gaxuaren antzera, egaka ixil batean, ain maite izan zuan Jainkoarengana.

1931'go edo 1932'go Uztaillean, Errenderiko erriak omenaldi bat eskeñi zion eta bere jaiotetxean oroit arri bat ipiñi, bañan guda denborako agintariak baztertu egin zuten eta arri onen aztarrenik ez degu ondoren izan.

Ona emen gure Efamun Aba'ren kondair labur bat, ez berak merezi añakoa, bañan asmo onez beteta egiña, Errenderiarrok bere izaeraren zer edo zer berri izan dezazuten.

Ez al du Errenderiar olerkari onek bere jaiotetxetik baztartua izan zan oroit arriaren ordaiña merezi?

Bere jaiotzaren eun urte muga, ez al litzake egun egokia ordainketa ori egiteko?
Orra or nere asmoa. Errenderiko erriak dauka itza.

1881'ko Garagarrillak 11

Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak

Aita Santi Onaindia
1986

JOSE ERRAMON ASTIBIA*

Illabete batzuk dirala, Urretxun, ango sendagille Dunixi Oñatibia-ri egin genizkion illeta aurretik, leendik ere jakitun geunden bezela, Joseba Goñi, Errenderi-n animazaintzen ari dana, etorri zaidan eliz-gelan idazki-zorro gizen xamarra neretzat zuelarik. Berak eta Errenderi-ko gizatalde batek nai zuen, ango olerkari bikain baten oler-lanak billatu, sailkatu ta tankeraz jartzea.

Auxe zan, ba, nere egitekoa: Errenderi'tar Erraimunda (1881-1916) Abaren *Olerkiak* poesi-liburua, 1935-an argitara zutena ikusi, aztertu ta argitalpen berria egiteko prestatu. Mandatariari ez nion ezetzik esan, pozik egingo nuela eskatzen zidatena, adierazi baizik. Geroago beste ikustaldi bat egin zidan ementxe Larrea-n Goñi jaunak, beste iru gizaseme erreteriarrekin, leengoaz gain beste eskabide batzuk egiten zidatela.

Eta beti ere niretzat, eskabidea otoi bizi danez, ortan saiatuko naiz. Egia esan, etzait lan neketsua, leendik ere olerkari kaputxino au, Aita Errenderi, guztiz begiko zitzaidan-eta.

I. Bizitz-atalak

Errenderi ta Oiartzun, eta or bion gain eta tarte, ainbat gizaseme argi ta jakitun erne izan zaizkigu gizaldiak zear. Ementxe Errenderi-ko "Panderia" auzotegian jaio zan Jose Erramon Astibia, 1881-ko azaroaren 17-an. Parrokiko Bataiatuen liburuan, onela: "Jose Ramon Gregorio Astibia Etxegoien, 1881-ko azaroaren 17-an jaioa, 1881-ko azaroaren 18-an bataiatua izan zan Errenderi-ko Santa Maria elizan.

Bere gurasoak: Aita, Jose Fruktuoso, erreteritarra; eta ama, Sebastiana Etxegoien, oiartzuarra. Aitaren aldeko aitona-amonak: Bizente Maria Gregorio ta Josefa Frantziska Eduarda Sarbide¹⁰, biak erreteritarrak. Amaren aldekoak, ordea, Pedro (Pablo erriko agirian) Etxegoien eta Maria Josefa Aldako, biak Oiartzun-goak. Aita-ama besoetakoak: Teodoro Landaiz eta Manuela Josefa Bengoetxea. Bataiatzaillea: Jose Ramon Irigoien".

* Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea. Izenburu hori argitaratzaileok jarria da.

¹⁰ Hemendik hartu zuen izengoitietako bat.

Panderia-ko errotan, gaur ere ederki ageri dan etxe ederrean, bere gurasoak bizi ziran lekuan jaio zan. Eta esan dezagun, aurrera baiño leen, Tudela-n il zala 35 urteko¹¹, 1916-garagarrillaren 10-an, agiriak dioskunez, birikietako gaitza beret¹²[...] jabeturik. Panderia errotakoa izan zan, beraz; aita errotaria, eta Astibia sendian amalau senide izandu ziran, amabi mutil eta bi neska ziralarik. Auetatik Erramon izan zan bigarrena. Naiko gazte il ziran geienak; nesketatik Pantzeske (Pakita) Maria de Lezo kalean, Erretereri-n bizi da gaur ere.

Leengoan, azaroaren 7-an, itzaurre au ongi osatzeko neure barnea girotu nai nuelako, Erretereri-rako autobusa artu nuen Donostia-n. Istillu, zalapart eta tirotsak zirala-ta, etzan busik araiño irixten, Pasai-raiño bakarrik. Emen jetxi ta, Erretereri egi-giaz ikuskatzearren, “Kaputxinoak” mendi-gaintxotik ibilli nintzan. Laiñorik gabe ta eguzki-dirdaitsupean, zoragarri zegoen erri zaar au; inguruak, mendi, ibar, itxaso ta landa, zoragarriago oindio. Zentzunak eta biotza ederrez ase, jatsi nintzan urira eta an neukan zai olerkari bipil bat nai nuena ikusten lagunduko ninduna.

Lendabizi Panderi-ra zuzendu giñan. An dago aintziñako errota, oraindik berri, itxura oneko; goratxoago bizi da nere urteetako adiskide miña, Kepa Garmendia; artazuritzen ari zan une aretan: zenbait berri eman zigun onek. Ango ezagun, zugaitz, errota te abarri agur esanik, Erretereri zaarrean sartu giñan. Ez genekian nun bizi zan Pantzeske Astibia, baiña galdezka galdezka idoro genuen billatzen genuena.

Egunero kaleratzen danarren, bakar-zale bizi da etxean, sendikoen magal beroan. Gela ixilla dauka beretzat egiña, bere jarleku, oe, liburu ta gaiñerakoekin: gu ara giñanean, “Orduen Liturgia” zeukan eskuetan. Bera zan Errenderi Abaren arreba, ez nolanaikoa. Guraso gabe gelditu zan gazte xamar zalarik. Erropa denda euki zuten. Urduri ta zori-zale bait zan, Bilbo-ra aldatu zan eta itzaldi aberkoiak emateari ekin zion, Euzko-Gastedi-ko idazkari izanik. *Jagi-Jagi*-n idazten zuen. Ba-ditu olerkiak “Onintze”-z izenpetuta, *Euzkerea*-n eta nire poesi-bilduma *Milla olerki eder*-en bi beintzat. Gerra amaitzean Frantzia-ra jo zigun, andik Barzelona-ra ta azkenez urte-mordoa erbesteratua emanik, 1970-an Erretereri-ra biurtu zan ezkondata. Emakume jatorra, euskal idazle ta olerkari fiña, aipamen au merezi duela uste dut bere anaiaren liburu ontan.

¹¹ 34 urte zituen.

¹² Iluna jatorrizkoan.

Erramon gazteak, adiñeko mutikoekin, bere jaioterrian osatu zituen bere leenengo ikasketak. Ikasgai guztietan zebillen zaletsu, gogo biziko; laster konturatu zan mutikoak olgetara bakarrik ez dutela joan bear ikastetxera, leiatsu ikasteari emon eta saiatzan baizik. Orixe zan gurasoak eskatzen ziotena, eta auen naia zintzo-zintzo beterik, eziketa bikaiñaren duin gertatu zitzaigun gazte-gaztetatik.

Amabi urte egiñez, ikas-griña ta zaletasunari eutsi naiez, gurasoak eta irakasleak ortarako bideak egokituz, Lekarotz-eko kaputxinoen ikastetxera joan zan. Eta antxe ikasle on zala, leku atsegin artan somatu zuen lekaide kaputxino izateko goi-deia, Jainkoaren ate-olesa zan barne-dei samur orreri egiaz erantzuteko asmoa arturik. Artzera zijoan bide orrek kalbario latza emango zion arren, etzan egundo ere damutu; gurutz astun orrenpean ere beti aurrerantz jo zigun.

Artu dan bideari etzaio iñoiz ere muziñik egin bear, oztopo ta larrak aurkituta ere, aurrera ekin baizik, mendigoizale errimeak bezela, "Gorago" oi egiñaz. Edu¹³ ortan urrats bikaiñak tinkatu zituen Errenderi Aitak bere eliz-karreran. Ikasle bezela azkar dijoa, nota onak ateratzen ditu, artutako bizibidean gero ta alai-gogotsuago dirudi. Zuzena ta ongi ikusia, nagusien atsegiñetan bete zituen Lekarotz-eko urteak.

Ementxe zegoela oartu zan barne-muiñean garraxi egin naita zekarren beste zerbaitekin: idaz-lanerako garra noski, olerkirako deia. Eta gure bertsolari ta poeta zaarrak lanak irentsiz zijoan. Bertako irakasle batzuen onu ta eragiñak, gramatika, literatura ta ederkera ikastean bereziki, akuillu ziztagarri izan zituen. Baita ori bakarrik ez-ezen, ezker-eskubi ta aurre-gibel zeuzkan mendarte, ibai, zugaztieta eta baserri zuri-gorriak ere pizle ta adoregarri zitzaizkion: bikain-bikaiña bait duzu Baztan arana, Panderia ta Lekarotz bazter atsegiñak olermenari eragiteko.

Kulturaz ta birtutez jantzi ta ederturik zijoan Erramon gaztea, amasei-amazazpi urtekoa. San Frantziskoren abitua artu nai zuen, eta 1901-eko otsaillaren 15-ean jantzi zuen, pozez beterik gero, urrengo urtean egun berean, ots, 1902-ko otsaillaren 15-ean profesia txikia egiñik. 1905-eko martxoaren 19-an eman zioten profesia nagusia. Auxe ta Meza berria izan oi dira lekaide izan nai duen gazte baten ilusio ta ametsik aundi-ederrenak.

Amets oien artean laister agertu ziran ortzipean laiño beltzak ere, azken-arnasa Jainkoaren eskuetan utzi zuen arte, gaiñ eraman zitunak. Izkuntzari buruz izandako goraberak eta miñak dakarzkite gogora; ez zeukan era egokirik amaren magalean ikasi ta

¹³ Edu: era.

berak gazte-gaztetatik maite zuen euskera zaintzeko. Esan dezagun bertatik: euskera auzia izan zan Errenderi Aitari, bizitza guztian, buru-austerik samiñenak ekarri zizkiona.

Egia duzute, ikastaroan, Etxalar Aita napartarrak utzita, ba-zutela orduko ikasle gazteak, batzuk beiñik-bein, Azkue’k Bilbo-n ateratzen zuen *Euskalzale* ta Donostia-ko *Gipuzkoarra* euskal asterokoak irakurtzeko egokitasuna. Aita Errenderi-ri bigarren auzitzaion oso begiko: lau orrialde zeuzkan, euskeraz eta erderaz; larunbatero kaleratzen zan, eta zeazki jarraitzen zion Arana-Goiri-ren irakatsiari. Bi aro izan zituen, 1907-V-18-an asi ta 1913-raiñokoa leenengo ta gero, urte batzuk ixill egin ostean, 1931-tik gerra egunetarañokoa. Berton geien idazten zutenak: “Jel-Alde”, “Kizkitza”, Eleizalde’tar Koldobika, Kanpion, Seber Altube ta besteak. Joskera oneko euskera zerabilten.

Auxe zan, Aita Etxalar-ri esker, Errenderiarrak ikasle zala irakurtzen zuen eta oso maite zuen asterokoa. Etzan bide makala ikasleen espirituan abertzaletasuna sutuazteko. Lekarotz-en irakasle zegoen gaiñera Ibero Aita, garai artan doi-doi *Ami Vasco* liburuxka idatzi zuena. Ona zer dion Aldaya’k erbestean il zan buruñurdun ontaz: “Bera ta berak ereindako azia lertu, zapaldu, ito naiez, arerio zitalak (pizti uzu talde antzo) goitik eta betik, ezkerretik eta eskubitik eraso zioten, atzerrira bota zuten, ixilerazi zuten, naigabez il zuten. Ta oraindik bere illobitik altxatuko ote zan bildurrez zeuden... Lagatzak badaki nor nolakoa dan!”

Ibero Aita au Erramon gazteak ere irakasle euki zuen, il baiño amar bat urte lenago; Aritmetika ta Algebra irakatsi zizkion, baiña olerkariak maiteago zituan poetak Aritmetika idazleak baiño. Zenbaki-arloan ere, orraitio, etzan ikasle meko gertatu. Elizkarrera ondoren, beintzat, bere bizitza ez luzean, 1908-tik 1916-ra, Aritmetika ta gai onen birako zerak azaltzen ibilli zan Lizarra-n eta Lekarotz-en.

Aipatu dugunez, 1905-an estu loturik gelditu zan profesia nausiz San Frantziskoren kaputxino ordena barruan. Eta nagusiak, azken ikasketak —Teologia ta abar— bukatu zitzan, Madrid-era bialdu zuten, orduan emengo lekaideen barrutiko ere zan El Pardo-ko komentura noski. Bere lurretik, jakiña, ez urbil, baiña menpekotasuna ziñez onetsi zuen ezkerro, zin egiña leial bete bear zala-ta, eusko lurraldea deiez zeukalarik ere, etsi-etsian bertakotu ta gogoz ekin zion egiteko zeuzkan eliz-gaiak gaintitzen.

Azkenez, Eliz-Araudiak eskatzen zitun ikasketak amaitu ondoren, antxe bertan artu zuen, gotzaiaren esku-ezartzez, apaizgoa, 1908-ko abenduaren 19-an; eta ondoren,

pozaren pozez, meza berria Ondarribi-n —Amute-ko kaputxinoen elizan— 1908-ko abenduaren 25-an, Eguberri egunez.

Andik laister Lizarra-n daukagu irakasle. Euskaldun errian lan egin nai zuen, baiña Lizarra, eusko lur zalarik ere, etzan euskalduna, an etzan euskeraz mintzatzen erria. Aita Intza, Oieregi ta beste buruñurdun predikari batzuen antzera, berak ere Kristoren fedea ereiteko-zabaltzeko baimena ta ortarako titulua ba zitun ezkeru, euskaldunen artean lanean jardun opa zuen, baiña etzun gurari ori iritxi.

Kaputxinoen Ordenak garai artan antolaketa berria jasan zuen Espaiña-n: Euskadi-koak aurrerantzean emen inguruko komentuetan izango zituzten bere egoitzak. Euskal lur osoa Naparroa probintzi barruan sartzen zan, eta uste zanez, Goi-Naparroa ta Gipuzkoa beintzat, euskal erriarekin ar-eman gozo ta estuan izango ziran. Emengo Nagusi berriak, baiña, Lizarra-ra bialdu zuen, eta El Pardo-tik napar lurrera etortzerakoan, Lizarra-ko komentura joan bear izan zuen. Ala ere, esaneko izateak onik asko ekarri oi dizkigu. Errenderi Aita esanekoa ez-ezik langillea genduan, eta Aldaya’k onela: “Errenderi Abak bere lanik bikañenak Lizarra’n egin zituan. Baño lan oyek egiteko jarri zizkioten eragozpenak, norik asmatu?”

Eragozpen oiek zirala-ta, izate barruan sastadaka zeraman arantza ezin jasanez, ona nola idazten zion 1911-ko martxoaren 2-an bere adiskide Arantzadi-ri: “Egi-egiya dasazut: Gipuzkoako lekaretzetan jarriko bagiñuzteke gipuzkoarrari, zer edo zer egingo genuke euskeraren alde, sayatuko giñake itzaldietan, abestiyetan eta abar. Bañon bai dakizu euzkotarra izatia zer dan... Amazazpi urte daramazkit Gipuzkoatik atayan, eta nai ta naiez erdel-erriyan bizi bear...”.

Erdel-errian eta ongi loturik, au da, zaibe gogorrean. Zer irakurtzen zuan, norekin mintzatu... guzti oiek kuku egiñik. Zer edo zer idazten ba zuen berari eder zitzaizkion asteroko ta izparringietan, ixil-gordeka jokatu bearrez beti. Susta¹⁴ gabeko barne-burruka latz naitaez gizona ondatu bear. Berez ere osasun auleko izanik, olako samiñaren samiñez garrastu ta suntsitu bear.

Orrez gain, Pantzeske-k kontatu zidanez, Lizarra-tik Aralar-era egin zuten osterabaten, bidean euriak busti-busti eginda utzi zitun eta, andik batez ere, etorri zitzaion gaitz-epela. Gaitza gero ta nabarmenago zijoalarik, 1916-ko apirilaren 3-an Lizarra-tik Tudela-ra eraman zuten. Eta antxe, Muskaria-n, Naparru be-bean, eman zuen azken arnasa, 1916-ko garagarrillaren 10-an.

¹⁴ Iluna da jatorrizkoan.

Sufritzen zekiena zan. Eramankizun aundia erakutsi zigun azken egunetan, Elizaren azken sakramentuz indartua izan zanetik bereziki. Ogetamabost urte bete barik zeuzkan oindio. Illetak atzeratu egin ziran, urrengo egunez Pentekoste jaia jausi bait zan, biaramonean baiña aundikiro egin ziran aren illetak.

Kaputxinoen Probintziko ildakoen liburuan, zeaztasun auen ondoren, oar au jarri zuten: "Aita onek Euskal literatura landu zuen. *Espasa* iztegiak, 21-garren alean, 1451-garren orrialdean, aintziña-aintziñako izkuntza ontan nabari-nabari diran idazleen artean aipatuz"¹⁵. Denak etzitun, beraz, etsai. Muskaria-ko buruñurdunen komentuan datzaz aren auts-ondarrak berbizkunde egunaren zai.

II. Ikasle eta irakasle

Txango luzea duzu eliz-karrera, amalau-amabost urtekoa. Gai askori eldu ta kemena jarri bear zaio, apaiztasuna artuz meza ematera iritxi ta "alter Christus" Jainko-itza otsegiten asi orduko. Kristoren ordeko izatea, bai duzula eder! Pozaldi uka-eziñak eman oi dizkio onek Jainkoaren gizonari. Dakianak daki, au zer dan!

Lekaidetzak, orraitio, ba-ditu bere loturak, iru boto dauzka profesa egin duenak, eta eskeintza oiek bete bear. Aita Errenderi-ren pozik beteena izango zan, eta orren irrikaz zegoen, euskaldun ziran errietan apostolu izatea, Jainko-itza ereiñik arimai zerubidea irakastea, labur Euskalerrian apostolutza egitea. Menpekotasun botuak ala ere, tai gabe esaten zion: "Zaude zu Nagusiaren esanera". Eta Nagusiak, ikasle izan ondoren irakasle aulkira bidali zuen.

Ain atsegin etzuen gai bat erakusten jarri zuen: Aritmetika ta Algebra. Alor idorra bene-benetan. Orixegatik edo, "olerkariari Lope de Vega ta Vollegas, Cortázar ta Queipo baño atsegiñago zitzaizkion" esango digu Aldaya-k. Errenderi Aitak, alan ere, agindutakoa zeatz-zeatz betetzen zekian ezmezik bage, eta ortan alegiñak alegin, mende zeuzkan ikasleen adimenak jakitatez edertzen etzan egundo ere aspertu. Bost bat urte eman zituen lanbide orretan.

Munduarekin artu-eman geiegi gabe, ikasgaiak gertatu ta ikasleen aurrean alik eta ongien oiek argi-azten saiatu zitzaigun. Noizik bein, asti-uneetan, egin zituen ibillaldi batzuk Azketa, Arronitz edo Yurramendi aldetik; baita bein edo bein Zudaire,

¹⁵ Aurrerago zehazten du J. M. Leizaolak egin zuela lan hori.

Irantzu ta Ibiriku aldera ere luzatzen zitun bere ibilaldiak, bazter aietako aize garbi-izkirriz bere birikiak zanpatu nairikan.

Bakar-zale genduan eta eder zitzaion bakarrik ibiltea. Leenengotan leku ezezagun zitun Lizarra aldeak. "Emen ari naiz lanian —idazten dio 1911-ko urrillaren 10-an Ingartzi Arantzadi-ri—. Oraindiño abertzalerik ez zelako ez nuen iñor ezagutzen, ezta ere gogorik izaten iñorekin itz egiteko, Irujo-tarrakin ez baldin ba zan". Gerora, bai, ibilliz-ibilli egin oi ditugu adiskideak; baita Errenderi Abak ere, ta jarraian, onela digu adierazten: "Orain abertzale mordoska batzuk ezagutzen ditut eta oyeekin askotan aritzen naiz".

Lizarra ez da toki txarra erakusteko ta bizi izateko. Alan eta guzti, kontzientzi barru arantzaren edo kez karen bat dugunean, onek dakarkigun penak ez digu bizi izaten ez bear gendukean aiña lan egiten uzten. Auxe gertatzen zaion errenderitarrari. Au ere, baiña, esan bearra dago: mendiz inguraturik eta kondaira zaarrez kuin-kuin daukagun uri ontako kaputxinoen komentuan bizi zalarik, 1910-1916-ra mamitu zizkigula bere euskal lanik eder-ederrenak.

Langille danarentzat, toki guztiak eder lanerako.

III. Abertzale

Maiz gertatu oi zaigu: zergatik jakiteke, ideia, oldozkun, aurpegi naiz zaletasun batez birloratu oi gera. Zerk egin ote zuen abertzale porrokatu Aita Errenderi, laga zizkigun olerkietatik agertzen dan einean? Egia aitortzerakoan, orduko giroa orixe zan, Arana-Goiri'tar Sabin'ek erein eta zabal-azi zuen aziarena. Eguzki antzera edatu zan aren eragiñaren adorea. Ba liteke errotan bertan, gurasoen alboan, aize orrek joa izatea. Etxean ikusi ta ikasia, berriz, seme-alabengan laister sustraitu ta indartzen. Lekarotz-en ere Panderia-tik zekarren suak bizitasun geiago artu ote? Ba liteke. Ba ziran an abertzaletasuna barren-barrenetik sentitzen zuten irakasleak, eta norbere lurraganako maitasuna zabal-aztea txalogarri ez ote?

Dana dala, abertzale zintzo-zintzoa bilakatu zan Astibia. Garai artan idatzi ta zabaldua zan gaiñera liburuxka pitik ura, gazterik asko bera irakurriaz bakarrik abertzaletasun-su biziak joak utzi zituna. Gogora Loiola-n sarberriakin gertatu zana, Zaitegi, Ibiñagabeitia, Lauaxeta... dozena bat gutxienez, idaztitxo ori irakurrita egiazko euskaltzale egin ziranak.

Liburutxo ori osatu zuen lekaidea, Aita kaputxinoa, Lekarotz-en irakasle egona, Hajar-en il zan, Teruel-go probintzian, 1909-ko iraillaren 1-an. Ikasleak samurki maite izan oi du bere irakaslea, eta Errenderi Aitak esker ona zor zion Ibero irakasleari. Onen eriotzak zarrazta latza egin zion Astibia-ri, eta aren eriotz-izparrez jabetu ordukoxe, “Negar!” deritzan amaika estrofako olerki unkigarria eskeiñi zion. Ona bi aapaldi, leenengoa ta amargarrena:

Aba gurgarri maite-maitia Espain-errian il zaigu;
ludi onetan gizagaxuak azken-arnasa egin du,
azken-arnasa egin du.

.....

Euzkera piztu, Euzkadi jaso, etsai gaiztuak eratsi;
ene Ibero'tar zure asmua, nola zu gabe iritsi?
nola zu gabe iritsi?

Uda ederraren azkenerantz il zan. Olerkariak amaituz,

alargun-jantziz
jantzi dedilla
Euzkadi gaixo
gaixua!”

Puntu bat oargarri zaigu emen. Naiz Probintzi-barruti berezia egin aurretik naiz gero, napar euskaldunak alkarrekin bizi ziralarik ere, naigabe ta barru-oiñaze gorriak ikusi ta jasan bear izan zituzten. Tamal zait aitortzea: Euskal erriko kaputxinoen garairik eder indartsuenean, euroatik asko ta asko, azken mende onen bi amarkunetan, eta azken gudaldian batez ere, oso nekerazi ta zigortuak izan dirala. Leen-aroan “integristak” omen ziran beren nagusiak. Eta gero? Bigarren aroan ere, buruñurdunak ez-ezik, besteok ere, nagusien erruz izan giñan espetxeratuak.

Gerra aurreko urteetan aldizkari eder bat kaleratzen zuten euskaldun kaputxinoak: *Zeruko Argia*. Guda ondoren, berton lan egiten zuten geienak, erbesterratuak izan ziran, erruki gabe: Aita Intza, Oieregi, Olazaran, Ataun, Gaztelu... Mingarri nunbait Aita jakintsu ta langille auen zoria! Pekatu ain latza, larria ote dugu — berriro diot— norbere lurra ta etxea maite izatea? Ezetz dirudi; baiña...

IV. Idazlari

Larritasun bat, guztiz irtena, daramagu —nork ez?— izate barruan: argitan jarri nai izaten dugu, ezkutu-zale gerala ere, geure barru-leizea, ortxe bait da biltzen geran guztia, adimen ta naimen, buru ta biotz euskaldunok adierazi oi dugunez. Gizon naiz emakume, bi adore auekin gera osatzen.

Aita Errenderi, zein gaztetan zein gero nagusiago zala, azkar bezin trebe agertu izan zitzaigun beti. Gazterik il ba zan ere, itxaro aundikoa zetorren. Eta idaztea irrikatzen zuelarik, idazteari eman zion gogotsu, euskeraz ta erderaz idazteari eman ere. Emen, ez luzatzearren, oler-lanari gagozkio bakarrik, baiña ainbat ditu itz-lauzko lanak ere. Oraindik egiteko daukagu aren lanen bilduma¹⁶. Donosti-ko *Gipuzkoarra* asterokoan, *Euskal-Esnalea*-n, Bilboko *Euzkadi* aldizkarian eta abar idazten zuen. Irakurtzen zituen baita, naiz-ta ixilka, *Napartarra*, *Bizkaitarra* ta *Arabarra* ere.

Idatzi nai zuen, *Gipuzkoarra* asterokoan adibidez, orduko idazle abertzaleekin parekatu. Baiña galazi egin zioten. Onela idatzi zion Ingartzi Arantzadi-ri, 1911-ko jorraiaren 2-an: “... Jakin bear dezu gebendu didatela ezer idazteko abertzalien izparringietan. Ala ere ikusiko dut iya al nezaken ala ez obenik gabe idatzi; eta al badut, ez diot jaramonik egingo eragozpenari”.

Eta Azkue'tar Dunixi-ri 1911-ko orrillaren 31-an: “... Eskartxo bat eskatzera natorkizu. Nere idazkunak *Gipuzkoarra*-n agertu ziranetik onuntz ez digute eman nai *Gipuzkoarra*-rik. Aitzaki arekin gebendu edo galerazi zuen Iruña'n bizi dan Aba Nagusiak, esanez emengo Aba Lendakariyari ez utzitzeko irakurten *Gipuzkoarra*-k. Alaere, nondik edo andik, orain arte gureganatu dira gure ingi maitiak. Baño orain ezin zaizkigu sartu, eta nola edo ala sartzeko asmua artu det; neri galerazpenik ez dit iñork egin-ta. Beraz ez bidali zenbaki bat bakarrik ere etxe onetara; bidali era onetan zuzenduta...”.

Bai olako giroa, olako egunak, olako nekeak! Nik eta gutarrak ez genduan taiu ortako eragozpenik ezagutu. Bestera bai, bear bada. Gu Gasteiz-en giñala iru urtetan Filosofia ikasten, berton zegoen Aita karmeldar urteetan aurreratu batek, *Euzkadi* artzen

¹⁶ Hutsune hori betetzeko ahalegina da lan hau.

zuen egunero, eta liburutegi orokorrean pillo aundia zeukan azal dotorez apainduta, gero gudaldian suak artu zituenak.

Errenderi Aitak, eragozpen artean ere, eta eguneroko erakus-lanak gorabera, beti izan zuen astia ta aspertu gabe erabilli zigun idazkortza, euskeraz naiz erderaz, prosaz naiz itz-neurtuz. Esan digute, Lizarra-n irakasle zegoela osatu zuen lanik geiena, gaixotu aurretik. Zainduta zegoen ezkerro, ala ere, idazlanak etzitun bere izen-abizenez marratzen, izen-orde auekin baizik: “Buruñurduna”, “Ori’tar Koldobika”, “Arrobi’tar Danel”, “Panderi’tar Chantacler”, ta abar. Orduko —ta geroko— ekandua zan norbere izena gorderik, ordezkoz izenpetzea.

Ona jakitea egoki zaigun beste zeaztasun au ere. Arana-Goiri-ren idazkera, “Euzkeltzale Bazkunak” onartua, darabil irutik bitan, edo-ta beti; esku mende, ordea, beti zeukan iztegi au: “Bera’tar Erroman Mirena Aba Buruñurduna, *Diccionario castellano-euzkera* - Lopez Mendizabal’dar Ixaka *Euzkel-Erdel-Iztegia*”. Izkera erreza du geienbat, eta iñoiz ain ezaguna ez dan itzeren bat ba’darabil, iztegi ontakoa duzu.

V. Olerkari

Olertigintza arte-lana dugu eta artea ez da iñolaz ere joku bat, ez idurimenaren jolas, ezta amets soil ere. Bizitzan orok daramagun zerbait noski. Pizkat txoro ta artezale guztiok omen gera, esakun danez; geure kautan bil-bil egiña daramagun oni, baiña, norbaitek edo zerbaitek zirkin eragin bear dio, igiera artuz ibiltan asi dedin.

Astibia Aitak izan zuen zerbait —edo norbait— egonean zeukanari bultz-eragin eta olerki-lanean jarri zuena. Inguruko landa, alderdi ta ikuskariak indartsu dira gure zentzuak dardarazteko; irakurriak eta esanak berebiziko kemena dute guri idurimena ta biotz-zirrada azkortuz oler-gaia oparo eskeintzeko; norberak naiz erriak sufritzeak ere asko esan nai du olerkariaren munduan: barne-miñetan bizi diranak geienbat poeta onak izan oi genuen Astibia.

Nun ikasi zuen Astibia-k koplak iruten? Etxean, ziur asko. Garai artan ere ugaria zan inguru ura koplartan. Tabernetan bezela —orduko gaitza?— errotetan berdintsu bilduko ziran bertsolariak. Eta dudarik gabe orduan biztuko zitzaion bertso zaletasuna, griña ta leia, urteak joan urteak etorri, olerkari ain trebea izango zanari. Kalez kale ta baserriz baserri zebiltzan bertso-paperak ere irakurriko zituen, bestelan ezingo zuen

bereganatu olerkietan, “Aberri-Oyuak”-etan batez ere, agertzen digun neurkera ta rimarako txairotasuna.

Elduaien Aita kaputxinoak, aro aretan Lekarotz-en zan euskal giroa aipatuz, onela diosku: “Aldi artan lekaide geyenak integristak ziran; ta integrista berezkoak ziranez, euskera ta Euskalerriaz ajola gutxi. Irakasle batek bakarrik euskerari begi onez begiratzen zion; ta Virgilio-ren *Eneida* ta Horazio-ren *Arte Poética* tartean, bere Euskalerriganako maitasuna, ezti tantoak antzo, ixurtzen zuan. Azkue apaizak orduan atera berria zuen *Euskalzale*-a Etxalar Abak ikasleai agirian irakurtzen zien”.

Emendik errez atera genezakenez, beste gai batzuk baiño maiteago zituen Aita Errenderi-k latindar olerkari puntarengo auen neurtitz-lanak. Beraz, ixilik lendabizi ta lotsarik gabe ondoren, olerki-sorpenak osatzen dabilkigu. Maite zuen erlejioa, maite San Frantziskoren jantzia, maite bere aberria... eta oiek izango dira alegia berak kopletan geienik goraiapatuko ditun gaiak. Ixillean esan dut, eta alaxe duzu, etzuen ba oraindik esateko lanik beintzat iñun argitara eman. 1910-an, Donosti-ko *Euskal-Esnalea* aldizkariak urte ortako bere *Esku-Egundiya* atera zuen, eta orduko euskal idazlerik oberenen artean dator, 44-garren orrialdean, Errenderi Aitaren “Oroi zaitez!” olerkia ere.

Bego emen, naizta luzetxu, Bozas Urrutia idazleak, bere *Nere Herriaren Ibillaldiak eta Gora-beherak* liburuan, XXIII kap., 317 orrialdian gai oni buruz dioskuna: “Tudelan 1916-ko uztailean¹⁷ ildako Aita Errenteria (Juan Ramon Astibia izen-deituraz) olerkari abertzaleen artean ospetsuenetarik bat zen. Nazionalista ta elizgizona izateak ez dit eragozten halere, hartaz behar bezala aritzea, haren kulturaz, talentuz eta birtuteaz errespetu aundienarekin mintzatzea.

Haren idazlanik ugari irakurri dut, bai erderazko prosaz, bai euskarazko bertsoz. Berehala nabaitzen da haren barne-giro borrokalaria, polemikarako zeukan “erraztasun zaila”, kondaira arloetan zuen jakinduria, haren argitasun sakon eta zabala. Kasik aldi berean han eta hemen argitara ematen zituen artikulu-mordoa irakurrita, erraztasun izugarritz idazten zuela nabari da; ez, noski, artikulu arruntak eta erdipurdikoak, ez, baizik-ere nabarmenak, oi-ez bezelakoak, guztiz bere gisakoak. Arrazazko indar batek eragiten dio muin-muinetan; euskal abertzaletasuna. Eta, puntu hontan harekin bat etorri ez arren, eta haren argumentuak norberaren iritziak eta usteak okerrerazi ezin izan arren,

¹⁷ Horrela dakar liburuak euskal aldaeran; jatorrizko erdarazkoan “junio de 1917” dio. Biak oker, 1916ko ekainaren 10ean hil zen eta.

argi ta garbi esan behar da haren lojikak baduela indar, haren argitasunak ematen duela atsegin, haren kemena txit arrigarri dela.

“Urteak joan urteak etorri —esaten du haren biografo batek— eta San Frantzisko-ren seme apal hau, olerkaritzarako zeukan bikaintasunagatik eta euskeraz naiz erderaz, prosaz naiz bertsoz erakutsi zuen jakinduriagatik, euskaldun argienetarik bat bezala gailurreko lekuetan ipinia izango da.”

“Bekaizti natzaiote ni —idazten zuen beinola— ez zurikatzaileei, bulartsuei baizik, azkarrei, beren interesak ez-ezik, beren bizia bera ere arriskuan jarriaz, jauntxokeriei gogoz egiten dieten hoiexei”.

Aitor dezagun bide batez, ez zuela Aita Errenteriak nor bekaizturik, ez baita “hemen” —gu gabiltzan eremuetan— ez eta “han” —bera ibillitako bazterretan— gizon azkarrik eta kementsurik bere interesak, are gutxiago bere bizia, arriskuan jarriko duenik, edozein jauntxokeriari gogor egin beharrez (...)”.

VI. *Olerkiak* liburua

Gari ona kaxan saltzen dela otsegiten zuten aspaldi bateko baserritarrak. Orixe berori esan dezakegu olerkari baten sorpenai buruz ere. Lurbirako literaturak, eten gabe, jasoten ditu idazle onaren frutuak, edizio bikaiñetan jaso, edatu ta gorde. Olan gertatu zan Errenderi Aitaren olerkiekin. Joan zitzaigun mundu ontatik, baiña ark emen utzitako ainbat adiskide miñek —asko diote Dunixi-k eta Elduaieen-ek— ezin laga izan zituzten lakaripe aren neurtitzak bederen.

Eta gure pozerako, aiekin txorta eder bat osaturik, Errenderi'tar Erraimunda Aba (1881-1916) zanaren *Olerkiak* zeritzan idazti apaiña kaleratu ziguten. 72 orrialde ditu beronek, 13 x 7 zm. Tolosa-n, I. Lopez Mendizabal-en irarkolan argitaratu zan, 1935-ean; “Aldaya” izenpean kukutzen dan Elduaieen'dar Toma musikalaria, Errenderi-ri lan batzuk eresiz jantzi zizkionak ain zuzen, gertatu zuen argitalpena, itzaurre oparo joriz apainduta.

Liburu antolatzaileak bi zatitan banatu zitun Errenderi-ren olerkiak: “Otoitzak” eta “Aberri-Oyuak”. Leengoak 16 otoitz dauzka, “Josu-Biotzaren Abestiya”-tik asi ta bera il aurretxoan egindako “Enara gaxua!” deritzaioneraiño. Bigarren saillean, ordea, 17 kantu aberkoi datoz.

a) Otoitzak

Sail ontako geienak, musikalariengandik pitean bein irixten zitzaizkion eskabideai erantzuteko egiñak dira. Aita Donostia'k eta Elduaien'ek, esaterako, edozein eresi-gairako euskal letrea nai zutenean, arengana zijoazten. Jesu-Biotzaren eraspena zabal zebillen elizetan sarri ez zuten ontzat artzen erdel-izkirik, ez erdel-letrazko abestirik. Joera onen aurka beti jokatu zuen sutsu.

Emen datorren leen-abestirako, ba, Euskalerriko elizarik geienetan kantatu oi zan "O Biotz Santu...!" ordeztan, aurrerantzean erriak abestu zezan, Aita Donostiak eskatuta, aurre-leloa ta bost aapaldi dauzkan ereserki au eratu zuen. Eta Aldaya'k onela: "Sua darien itz neurtu auek, zegokien ereslaria arkitu zuten. Orduan ereslari berri zan Donostiar Jose Antonio Abak ereskidatu zituan". Erriak dages leen leloa, organuaz lagunduta, eta ondoren batek bakarrik abesten ditu estrofak organua lagun auek ere. Orrelaxe datoz *Euskal-Esnalea*-n.

Bigarren olerkia, "Oroi zaitez!" esandako *Esku-Egundiya*-n daukazu. Gero, Lourdes-erako abestia dator. Euskaldunak Bernardetxo Zubiru-ri agerturiko Amaganako eraspena mundu guztiaren aurrean argi ta zabal gelditu zedin joan-etorri ta peregrinaziño zaratatsua eratu zuten. Tarteko ziran garai artako abertzalerik sutsu ta nabarmenenak, euron artean Arantzadi'tar Ingartzi zalarik. Euskal kutsuzko letra batzuk eskatu zizkion onek Errenderi Aitari, aruzkoan, bertan eta onunzkoan Andra Mariari abestuteko.

Kizkitzak azkar nai zituen letrok, baiña egunak joan egunak etorri etziztaizkion eskuetara irixten. Aserre xamar, lekaideak "opaltzen dutena ez dutela betetzen" aurpegira botaz idatzi zion. Eta buruñurdunak, 1911-ko epaillaren 2-an, onan erantzun: "Ez kezkarik izan. Zer edo zer egin dut. Izkiyak bidaldu dizkiyot Donostiar Joseba Andoni Abari, eta artu onduan nere izkiyak berotu-berotua idatzi dit ain pozez jartzen dela lanian eta abar. Eresalduko du, bada, ederki baño obeto, ereslari bikaña dalako. Orain arte bi izki-enda bidali dizkiyot: Bat da ereserkiya edo orrelako abestiyaren bat eraltzeko; bestia berriz Lurdes'era eramango dituzuten ertunaz, gaxoaz zer ego¹⁸ zer desana; au da, Euzkadi minduaz, atsekabetuaz itz egiten duana Donostia-n Erviti-ren etxean argitaratu ziran bi abestiok.

¹⁸ [Sic].

"Asistar aundiari" deritzana ere, gure elizetatik erdel kantak uxatu nairik aragitua duzu. Donosti-ko Kaputxinoetan asko ziran dirudienez San Frantziskoren Irugarren Ordenakoak, eta elizkizunak erdel kantuak erabilliz ospatzen zituzten; ori etzitzaion atsegin arako joera zuen Aranzadi-ri eta euskerazko izkiak eskatu zizkion bere adiskide lekaideari. Errenderi Aita bertatik jarri zan lanean eta bere Aitaren omenezko ereserkia bidali zion, korua orok eta aapaldiak batek abestutekoak ain zuzen. Bidaltzearekin au ere esaten zion: "Beti egin bear dezutena orixe da; eskatu euskeraz egiteko txadongi guztiyak".

Ez, etzitzaion gogoko euskal errietako elizetan otoitzak erderaz egiteko zeukaten leia. Sarri agertzen du ori bere idazkietan, eta berriz esanda ere, orixegatik aren espa, intziri ta kezka. Garbi nai zuen, erdel-itz gabe, Errosario ta Agurtza, garbi elizkizunetarako kantak; "Miren erru-gabia" eta "Agur!" ("Agur Jesusen Ama" bezela abestutekoa) Mariaren alabei eskeñirik daude. "Stabat Mater Dolorosa" euskeratu zigun, txukun euskeratu ere. Bere erria zerabilkion, une aretan, elorri zorrotz bezela, barruan zasztaka. Onela idazten du: "Otoi egin zagun, otoi berua Goikuari onenbeste gaitz kentzeko lenbaitlen Euzkadi'tik. Abek lanak! Biyotz guztiya aspalditik urratua, lertua edo daukat, eta nonnai eta edonoiz ene Aberriyaren gaxokeri besterik ez dut ikusten...".

Ezin naiz-ta ere Eguberriak aitzurik utzi. Zeinbat gauza ditun Aita Donostiak gai ontaz! Erdel olerki bi zeuzkan biotza xamurtzen ziotenak, unkigarriak benetan, Eguberri aldirako; Lope de Vega-renak ziran. Donostiarrak adeitsu eskatuta Errenderi Aitak euskeraz ipiñi zitun bi olerkiok, eta Aita Donostik ereskidetuta Erviti etxeak argitaratu zituan. Nork ez du ezagutzen:

Osto ta abar artian - geldi, goitarrak;
Aurra lotan dago-ta - ez jo abarrak.

Gotzon egatziyak - bildu egalak,
poliki poliki, - gotzon goitarrak.
Otsik egin gabe, - gotzon dan-danak;
Aurra lotan dago-ta - ez jo abarrak.

Letra ta doiñu guztiz dituzu goitarrak. Bi anima goxok egiñiko lana.

Elduaien Aitak ereskidetua da "Atoz, Jaun ori", *Zeruko Argia*-n datorrena, 1923-ko agorraren alean. Jesus-en Biotzari opal dutako 10 abestiak, ordea, Alfonso Ugarte musikariarentzat egin zituen.

Otoitz-sail ontako azkena, "Enara gaxua!", Errenderi Aitaren olerkirik eder, bero, xamurrena, oian zerurantz begira zegoela asmatua duzu; gelako leioa idiki ta gorantz begiak luzaro egonik, "lagun bati deitu zion, eta esatera zijoana ingian jarri zezala eskatuta, biotz-ezpañetatik azken-agur au ixuri zitzaion: ENARA GAXUA!". Irakur leenengo bi estrofa samur-berak:

Orra, Josu on-ona,
enara gaxua,
ludi ontan miñ-gaitzez
gutziz ondatua.

Orain ega-egaka
zukanantz dijua;
ez duzu edatuko
Zuk zure besua,
ene Josu Maitia,
ene Jaungoikua?

Josu-ren Biotzari kantatzen bizi izan zitzaiguna, Ari kantatzen eman zuen azken arnasa. Ludi zitalez nekatua zegoenak atsedena aurkitzen Josu-ren besarte urrikaltsuan.

b) Aberri-Oyuak

Aberriari buruzko intziri ta oiua daukazuz bigarren saillean, biotzondotik erneak diranez eder-ederrak danak.

Leenengoa, "Sabin!" deritzana Errenderi-ko Batzokiari eskeiñi zion. "Eresi onen egillea etzan noski olerkari makala; erpin-erpiñeraño igo zala deritzaigu", idazten du Elduaien Aitak. Ogetazortzi aapaldi eragikor eta azarri. Arana Goiri il zanean —1903-11-25-ean— lurra joa gelditu zan Errenderi; etzekian zer egin: beltz eta goibel zekuskin bazterrak, bira-biraka odei zakarrak, mendiak marraska, itxas-aldetik zema ankerrak,

erauntsi-otsak nun-naitik, illetariak ugari... Zer egin? Berak ez du nai Sabin il daitenik. Ez, eta ez! Eta... onan diosku:

Txadonan auzpez otoi ein nion Urtziri;
“Bertan ni il nadin, bañon iñolaz ez Goiri,
bañon iñolaz ez Goiri”.

Banaketan eioten dira antzeko eskariak. Ala ere, gizonak ekin eta Jainkoak egin. Gauden Aren naiera.

Tarteka-marteka beste oiur aberkoi batzuk ere gorpuztu zitun arren, “Eguzkirik gabe!”, “Arrats-Abestiya”, “Euzkeraren eriotza” ta abar, sentipen bipilez gaiñezka noski, “Negar!” bego bigarren, Aita Ibero-ri egin ziona. Maite zuen Errenderi Aitak, Lekarotz-en irakasle euki zuelako ta zigorturik erbesteratua izan zalako. Hija-en il zan 1909-ko iraillean. Zoritxar aundi orren aurrean, onela dabe¹⁹ [dio]

Galpen aundiya onegatikan Euzkadi dago betillun,
eta gaixua negar ta negar ez da ixiliko gau t’egun,
ez da ixiliko gau t’egun.

Onela darrai zazpigarren estrofan:

Euzkerarentzat ez du bizmenik; langille zintzo-zintzuak
ez du ikusiko geyo euzkerik... Il dira Abaren asmuak!
Il dira Abaren asmuak!

Ondoren datoz “Urretxindorra”, “Uxua”, “Karnaba”, “Aberri-miña”, “Ai Ama!”, “Erne” ta “Nere Elia”. Bere ele, euskerari zion maitasuna nabari jartzen [da]²⁰ azken-lan onetan. Bere ezpainenetan auxe nai zuen bakar-bakarrik, Panderian, bere amaren altzo epelean edoski zuen euskera. Txasta zazu “Nere Elia” deritzan amargarren estrofa:

Erdera nik ez – nai ta zuk autik
botatzen duzu – zitala;
bañan euzkeraz – egingo dut nik
egiñaletan – eiñala.

¹⁹ Iluna jatorrizkoan. [dio] guk sartu dugu.

"Lekobide", or leienda bat mamiturik. Euskaldun zaarren jauregia, euskaldunon zabarkeriz, ta ajolarik ezez, beera etorria.

Itokiñaz dirade sapayak erori;
egatzak erroizturik, guztiya da ageri.
Orma tartetan untza, zaigu berebizi,
lurrian osiña ta naiko lar ta sasi...

Parrezka dari beti emengo sorgiña,
euzkelduna ikusirik erdeldun egiña:
Gau zomorro itxusiyen iseka samiña
atsekabez biyotza lertzeko da adiña.

Bada oiñazkarrik eta erasorik; sargori nazkatuak jo du txistua. Eta olerkariak, izutua, darrai:

Oldarrean odoyak erruz bildu dira;
ekaitz izugarriyak biraka ta bira
mendiz-mendi datorzte Etxe-Nagusira,
ulu-marruak joka, egiten intzira.

Olerkariak maiz darabilzkin erre-ak nolako barne-kemena ezarten dion pentsamentuari.

Ozantzak erruz diyo: "Lekobidenia!
Non dugu antziñako Lekobide-Etxia?"
Goyetan bat-batian dager jutzuria
uxtuz idazten ortots beraren galdia...

Lertu zaigu ortzia, istandu da lurra,
astintzen du dardarka mendiyak gallurra.
Itaunak bai ditugu, baitare bildurra...
Entzun, entzun aguro, euzkotar andurra!

²⁰ [da] guk sartua da.

Oraindik ere, Euzkadi ta Euzkera galdu arren, ajolik ez dion euskotarrarentzat madarikapena eskatzen du. Betoz suge gorriak, betoz sorgiñak, txerren biurrak, bele ta arranoak, “nausaz irotu arte euzkotar lepuak”.

Azkenez, Lekobide, Basajaun ezaba,
ager adi ire etxian, Lekobide Erkaba²¹,
eta gogor-zorrozki idekirik aba (aoa)
birautu zak irainka euzkotar billaba (billaua)

Eresi arrigarri au, txukun-txukun idatzita, gordetzen zuen egilleak.

Laburtuz, lau azkenko auek —“Agur!”, “Gurenda”, “Egi-Gurenda” ta “Argiya”— ez dituzu gero exkasagoak. Olerkariaren barne-leizeraiño jetxi ta gantzutu zizkizun koplak baratz-baratz aztertuz gero, euskal poeta gailen baten aurrean gaudela aitor-azi bear.

Nork antolatu zuen *Olerkiak* liburu au? Errenderi-ren poesi lanak, esango dugunez, biotz-ikara ta zauskada ekarri zuten beti. Ondo artuak izan ziran, irakurriak eta gordeak. “Euzko Pizkundera” zeritzaion alkarteak kutun-kutun zuen Aita kaputxinoa, Jemein’dar Kepak²² batez ere. Onek osaturik or zebillen liburuxka bat, *Euskal Pizkundiaren olerkirik onenak* zeritzana; emen zetozen Aita Errenderirenak ere, batzuk irargabeak eta beste batzuk *Euzkadi* asteroko jeltzalera bialduak, emen argitalduak eta emendik jasoak. Olerki-txorta au begien aurrean zeukala Aita Elduaie-ek burutu zuen Errenderi-ren olerkien zatiketa ta *Olerkiak* deritzaionaren argitalpena.

VII. Sari irabazle?

Labur bizi izan zan Aita Errenderi, eta garai artan ez zeukaten oraindik gaur bezelako sari-ugaritzerik. Ernanin zeudelarik ere, noizik-bein soilki eratu oi ziran. Olerkari onek, bestalde, etzuen sari-egarriz idazten, lanak eskatzen zietenai poza emateko ta barne borbor zerion labe-suari arnas-bidea izteko baizik. Euskal idazle ospe

²¹ Erkaba: asaba, lehen gurasoa.

²² Zeferino Jemein eta Lambarri (1887-1965).

larriko ziranen artean, ala ere, bazuen entzuterik. Aipua egiñik utzi genuen *Esku-Egundiya*-ko lanarena, orduko euskal idazlari puntarengoen artekoa.

Onez gaiñ, adiskideren batek zirikatuta, bear bada, Arjentina-ra ere bialdu zizun lantxoren bat. Euskal jaiak ango Nektxean, olerki-konkurtsu ta guzti. Gai bi jarri zituzten olerkirako. Lenengo gaian Aita Errenderi-ri eman zioten len-saria eta bigarren gaian len-saria Kepa Enbeita, Muxika-ko koblakari ezagunak eraman bere "Gora Euzkadi" olerkiarekin. Urrezko domiñaz sarituak izan ziran irabazle biak. Zillarrezko sariak, berriz, beste auek eskuratu zituzten: Bitoriano Iraola, Jeronimo Elizegi, Luziano Monasterio ta Enbeita'tar Imanol-ek.

Errenderi Abari sariztu ziotena "[Garaipen Abestia](#)" izan zan. Bego emen bera²³:

Jaunari oben
gaitz-gaiztuak
jarri begiyak
negartuak.
A!, dongetsiya
beti-beti
nik egin detan
oben ori!!

Azketsi, Jauna,
arren, arren...
Negarrez nago
ta auzpez emen;
ta iritxi arte
azkespena
ez naiz jaikiko,
Jaun on-ona!

Onezkero bijoa emen erabat, il aurretxoan, bere amari igorri zion "Agur" au ere:

Agur, oi! Agur, ama,
Jaungoikuak narama.
Orra nere oroitza,
zuk egin otoitza!

VIII. Omenaldiak

Olerkia ezta, askoren uste danez, tartegarri edo denpora-pasa bat, askoz goragoko jarduera baizik. Itxura barrua dauzka edozein poesik, alkarregandik ezin bereziak, eta bekoz-bekoz ezarri eziñak. Zer lan baten mamia? Poetak somatu ta jantziz apaindu duen gai jakin bati dagokion zera. Au da, poesi baten itxura duzu, olerkian sartutako gaietan ikusten diran elementu sentikorren ar-emanean bateratzea olerkariak sentipenari ta adimenari lan eragiñik, burutu du mirari ori.

Guk ordea, olerkariaren aldamenean gaudela, olerki-lana irakurri edo abestuz, atzematen dugu lanaren itxura, batasuna, barne-gaien dardara, zati bakoitzak duen balioa, egitura eder iraunkorraren azpia. Guk egiña, orraitño, ezta besterik izan, irakurri, somatu, aztertu ta atsegin artzea baizik. Aita Errenderi-rena izan da, "Lekobidenia" lango poesi bat bere barru-bizitasun osoan eta gain-azal zoragarrian guri eskaintzea.

Eta nik diot: txaloak ez al ditu merezi edu onetako eder-langilleak? Zerori ere eder-zale zaitut, baiña ez zera gauza olerki panpots bat iruteko. Ona Goethe-ren au, oso arin erreza:

Zelai orlegi nasai zear
aize oartzen zerbel,
arnas gozo, laiño estalkiz
argi-xinta ur agertuz ozpel...

Eta Aita Errenderi-k:

Atsekabe garratz au - zein negargarriya!
estutasun beltz auxen - zein estu-lafiya!
Mendi-aruntz ezkeroz - asaben euzkiya,
mendi-onuntz abetan - il da gure Erriya!

Pentsamentu auek bai dotoreak, errez ta lau esanak! Baiña zu al zera beste orrenbeste egiteko? Eta nik dasat: Olako gizaseme ta emakumek ez ote dute merezi gure esku-zartarik, oroigailurik, omenaldirik? Gu bai esker gaiztoko! Beren bizitzaldi osoa

²³ Olerki hau ez dago beste inon jasoa.

orretan, ots, erria jasotzen, oitura ta lege ta jolas ta kantak bildu ta sailkatzen, gizon ospetsuak kondaira zear gatzatu dituzten egintsariak kantatzen, lur joriaren emaitzak goratu ta gizartearen egite, asmo ta lorpenak aintzatzen konta-ezin-ala lan burutu dituztenak ez ote dira aomenaren jabe? Ez ote gure txaloen duin? Nainun daude munduan onakoen oroitarriak, bide-ertzetan naiz zeietan²⁴ ikusgarri.

Erri bakoitzak gogora bear ditu bere auzoak emandako seme-alabak. Zor zaiona bakoitzari. Urteak diralarik, 1935-ean, euskal giroa dir-dir zebilela, Errenderi Abari bere erriak egin zion omenaldi polita. Errenderia poeta ta bertsolarien seaska zala iragarri, antxe bertan urtarrillaren 11-an²⁵ egingo zana adierazi ondoren, onan jarraitzen zuen **egitarauak**: "Goizeko 10'etan meza abestua erriko eliz nagusian; 11,15'etan, itzaldia, Muñoa-ren euskal eskolako irakasle argi Eli Etxeberriak; jarraian, ikastetxe ortako ikasleen ariketak, aritmetika ta beste gaietan, On-Bide deritzan aretoan. Arratsaldeko 4,30'etan, "Panderia"-n, ta Astibia-ri eskeiñitako arri-iduria estalgetzea, olerkari saritu ta erriko seme **Jauregi'tar Koldobikak** itz-egiñik. Azkenez euskal dantzak eta erromeria".

1935-eko uztaren 14-an ospatu zan jai au, bere jaiotetxean oroitarria ere ipiñiz. Donostia-ko "El Día"-k ondo azaldu zuen jai onen albiste zeatza, uztaren 11-an eta abar, Andoni idazlearen ardurapean. Astibia-ren "Enara Gaixua!", "Agur" ere eman zitun. Eta Errenteria-ko "Iñor"-ek beste au:

Aita Erramun Astibia jauna
nun ez zuten ezagutu?
Eusko olerki batzaldietan
zenbat aldiz zan saritu?
Olerkari bikaña
nor izan bera aña?
Danak zituben arritu.
Errenderi'ko erriyak beti
olerkari onak ditu!

Gaztetandikan izandu zuben
olerki zaletasuna
bai eta ere maitatzen zekin
bere Aberri kutuna:

²⁴ Zei: plaza, merkatua.

"Euskeraz beti mintza"

izan da bere itza.

Ori da biotz zuzena:

guk ez badegu ori egiten

errua ez da bestena.

Euskaldunaren izkuntz ederra

benetan zuben maitatzen,

gaztetandikan bere lagunai

aritzen zan erakusten.

Gure²⁶ saya gaitian

bizi geran artian

geren izkeran mintzatzen

Ama euskera iseka egin!

Ez al zerade lotsatzen?

Il baño bi egun lenagotik

idatzi zun olerkiyak

Bilbao'n izan zan batzaldian

irabazi zun sariya.

Olerkiya gozoa!

da "Enara gaxoa!"

Ematen dit enbiriya

nolakoa izandu ote zan

ark zuben jakinduriya!

Panderiyako txoko polita

(bera jayo zan lekua)

jai batzuk egiteko asmotan

daukagu aukeratua.

Jayak ikusgarriyak

dizkigute jarriyak.

Entzun dezagun oyua!

Euskotar danok an bildutzia

ez al da gauz alaitsua?

Euskaltzaleak baldin bagera

bildu gaitezen guztiyak,

²⁵ Okerra da. Uztailaren 14an omendu zuten Astibia.

esan dezaten maite dirala
euskotar olerkariyak.
Gora Errenderiya
gure jayotterriya!
Gora erritar maitiak!
Artu bezate kanpotar danok
gure ongi etorriya.

Jai onekin batera, Errenteri-ko Euskaltzaleak aztertu dugun *Olerkiak* liburua atera zuten. *Yakintza* aldizkariak onela: “Los Euskaltzaleak de Errenderi tributaron un homenaje al poeta Ramón de Rentería, capuchino, y en su honor se han publicado las poesías de este vate. Las composiciones poéticas son de dos clases: religiosas primero, y la segunda parte, patrióticas. Las primeras, de un sentido totalmente popular, están hechas para ser cantadas en la iglesias y la mayoría de ellas, en honor del Corazón de Jesús. En las patrióticas hay dos o tres como “Lekobidenia” y “Euzkeraren eriotza”, que son realmente primorosas. Hora era ya de que se editaran estas poesías y felicitamos al Sr. Mendizabal por haberlas publicado”. (1935, 403 of.)

Omenezko jaiok zirala-ta, 17-ko [El Día](#) luze ari izan zan.

IX. “Eun urte gaur”

Urte mordoa ixillari emanik igaro ta gero, 1981-ko azaroaren 17-an, Aita Erramon olerkaria jaio zanetiko eungarren urte-eguna zala-ta, Errenteria bertako *Oarso* aldizkariak eta beste eguneroko ta asteroko batzuk artu zuten parte euren erriko seme argiaren jazokun ori arik eta aundikien ospatu zezaten.

[Oarso](#) aldizkariak, 1981-ko garagarrillaren 11-an ain zuzen ere, errenteriar poetaren ainbat datu ta zeaztasun eman zituan Xabier euskal idazle fiñak bilduak. Emen oietatik ebakitako zenbait zatiño:

- “Olerkari au, gazterik il zan arren, bere lanak ugariak izandu ziran olerki eta idazti lanetan, bañan tamalez lan auetako asko guda denboran galdu ziran, bañan bere *Olerki Txorta* —*Euskal Pizkundearen olerkirik onenak* deritzan liburuan azaltzen dira; berauek 1936ño urte aurrez Jemein’ dar Keperinék bildu eta jasoak izan ziran”.

²⁶ Gure: gu ere.

- *Olerki Txorta* onetan Erramun Aba'ren nortasun berezia azaltzen da, olerkari bezela bi zatitan banaturik bere olerki saila, Aberkoiak eta Jaungoikoiak izentaturik. Aberkoietan ezin esan alako abertzaletasuna azaltzen du, batzuetan alai, besteetan gartsu eta egun aietako Euskeraren etorkizun illunari buruz bere biotzaren naigabea itun agertzen du. Ona emen bere olerki "Gurenda"-ren aurren eta azken bertsoak:

Eriyotzian, iya-iya illa euzko-erriya zegoen;
dena galdua zegon gaxua Sabin etorri baño len.
.....
Sabin aundiya, Sabin aundiya! berbiztu duzu Abenda;
Euzko-semiak, Euzko-semiak! Ojuaz esan: GURENDA!

Eta beste au, "Euzkeraren Eriyotza"-ko azken bertsoa:

Areriyuak edonun
parrezka dariz gau t'egun.
Zeyetan etsai zorrotzak;
txadonan ere arrotzak.
Bakar-bakarrik nik negar,
Euzkera, igatik ein behar!

"Enara gaxua!" dator ondoren. Eta Xabier idazleak dio itsasten: "Zer esan olerki au irakurri ondoren? Zer geiago esan olerkari batek orren olerki labur batean? Au zan Erramun Aba eta onela irten zan mundu ontatik enara gaxuaren antzera, ega ixil batean ain maite izan zuan Jainkoarengana. Ona emen gure Erramun Abaren kondaira laburra, ez berak merezi añakoa, bañan asmo onez beteta egiña".

- "Errenderiko erriak omenaldi bat eskiñi zion guda aurretik, eta bere jaiotetxean oroitarri bat ipiñi zan omen-egun orretan; bañan guda denborako agintariak baztertu egin zuten eta arri onen aztarrenik ez degu ondoren izan. Ez al du Errenderiar olerkari onek bere jaiotetxetik baztertua izan zan oroit-arriaren ordaiña merezi? Ez al dute ondorengoak jakin bear nor izandu zan olerkari abertzale au? Bere jaiotzaren eun urte muga, ez al litzake egun egokia ordainketa ori egiteko? Orra or nere asmoa. Errenderiko erriak dauka itza". Baiña Errenderi-k ez zuen itzik egin, ez arririk Erramun Abaren jaiotz-etxeko ateburuan ipiñi".

X. Aipamenak or-emen

Bilboko Euzkeltzale-Bazkunak maite zuen Errenderi Aita. Onek zeatz-zeatz betetzen bait zitun ark zerabilen idazkera sabindarra. Bazkuna onek argitaldu ingurraztiak, bere aldetik, gogo maitekorrez artu ta erabilli oi zituan Errenderiarrak, *Euzkel-Abestijak* liburuetan datozten kantuetatik, doiñu ta neurri, maiz sarturik bere oler-lanetan.

Adiskide zintzoak zitun Arantzadi'tar Ingartzi ta Eleizalde'tar Koldobika batez ere; eta auek, ordenatik kanpora, asko lagundu zioten bere gauzetan, ordena barruan Aita Donosti-k eta Elduaieken bezela.

1923-an, Jesus Maria Leizaola-k *Espasa*-n aipatu zuen.

Aita Feliziano Ondarribi-k *Biografía de la Provincia Capuchina Navarra, Cantabria, Aragón* deritzaionean eta Aita Julen Yurre-k euskal buruñurdunen bizitza ta lanen edesti zeatza damakigu.

Gorago aipatu dugu *Yakintza*-k dakarrena.

Nik *Milla euskal olerki eder* bilduman onela: "Olerkari bero, bigun ta erreza, euskera ta erria maite ebazana. Euskaldun lotiak esnatzeko zenbat oiua-mota! Txandaka darabiltz "parra ta negarra, itxaropena ta etsipena, leunkeriak eta isekak, ezitia ta ozpiña, larritasuna, marraskak eta gurenda-oiu alaiak; alde guztietatik gogoa ta biotza astintzen eta kilikatzen ditu" (800-gn. of.).

Luis Michelena: *Historia de la Literatura vasca*, 143-an.

Eduardo Bozas Urrutia: *Andanzas y Mudanzas de mi pueblo*, 316 of.

Añamendi, *Literatura*, II, 187 of.

N. Kortazar, *Cien Autores vascos*, 12-garren zenbakian.

Jon Bilbao, *Bibliografía*, I, 369 of. eta III, 165 of.

Oarso, 1981, 50 of.

Larrea, 1986-XI-11

AITA ONAINDIA

OARRAK²⁷

Astitsu ta zentuz²⁸ irakurri ezkeru, ez dut uste Errenderi Aitaren poesi-sorpenak aztertu bearrez daudenik, zabalkiro ta xe-xe beintzat. Aski argiak dira alakorik gabe ere, bai barren-gunez eta bai azal-egituraz.

Ikasten ari diranentzat, ala ere, ongi datoztela deritzait oar pitin batzuk, Errenderi-ko Aita kaputxinoaren lanak obeto ulertuak izan ditezen. Beraz, beiñola Lauaxeta-ren lanakin egin nuena egingo dut emen ere: poeta bikain onen lanai, ots, oarkizun labur batzuk erantsi, ark darabilzkin gai, egitura, aditz berezi ta itz ez arruntai zeaztasun batzuk ipiñi.

Egia aitortzeko, ez didate zer oni buruz ezer eskatu. Baiña, nik uste, onela biribillago lotzen dirala olerki txanbeliñok, naiz aberkoiak naiz jainkotiak.

Iru puntu dantzatu ditzakegu emen: olerkiari dagozkion neurkera, erdiko geldiunea ta azken oskidetsua; egilleak olerkirako autatu duen gai berezia, ta atzenez idaz-jardunean, gaia azaldu ta adieraziz erein ditun itz biur, adizkera arraru ta esakun oargarriak. Atsegiñago izaten zaigu, beti ere, errez ulertua.

1. JOSU-BIYOTZAREN ABESTIYA

Lekaide dugu olerkaria, ta ez da iñolaz ere arritzekoa bere emaitzak goitar arnaskoak izatea: iturriak berea duen ura ematen. Egun aietan, gaiñera, bizi-bizi zebillen Jesus-en Biotzari erriak zion eraspina.

Egitura: Bi bertsoko sarreraz, bost ahapaldi lau bertsoko ditu lan gartsu onek. Sarrerea, 5/4. Bost estrofak, berriz,

-5/5 (uts)

-5/3²⁹ (a)

-5/5 (uts)

-5/3³⁰ (a)

²⁷ Aita Onaindiaren lanetik olerkien azterketa besterik ez dugu ekarriko, Astibiaren olerkiak ez errepikatzeko.

²⁸ [Sic]. Tentuz? zentuz?.

Kontutan izan beti, Aita Errenderik onako lanak, ez gutxi, musika jartzeko egiñak ditula, Aita Donostik, Elduaien-ek eta abar eskatu, erderazko itza zeramatena euskerazkoa jarritz. Olan ez da, ba, arrigarri neurkera euskal-ekak maiz erabiltzea.

Gaia: Labe gori duzu Kristoren Biotza, gizasemeon maitasunez beti su-jario. Jakin bear duzunez, giza-biotz billa zerutik jatsia.

- Denontzat dago "ager, ager!" Gizon esker txarrekoa, baiña, urbiltzen ote zaio bertan sututzera? Bai, goazen, an erretzera "laster, laster!"

- Ona ta gaitza, burrukari dakioke munduan. Suleize barrendik jaiki dira etsai gaiztoak, Jaunaren kaltez jaiki ere. Kristauok, jantzi iskilluz ta jo Jaunaren alde, izterbegiak gaindituz. Oiu: "Nor Jainkoa ainbat?"

- Biotz onagana olerkaria biurtzen... Mundua bait dakus txarraren besoz-beso, Ari dagio deadar: "Suzko Biotza, erretzen zauden Biotza, piztu ludia; jan garretan, gizonak".

- Goitar Eguzki dugu Jesusen Biotza, argi aratz dizditsua. Kristau biotzetan berau sar badadi, pekatariak ez dira geiago erru baltzaren illunpetan egongo.

- Ederki landutako azken estrofa onetan egillea ta sorkaria —gizona, emakumea— aurrez aurre, sutan murgildu nairik. "Goazen, gizonak; zatoz, Josu", diño Errenderi Abak.

Sua nai duzu, sua nai dugu;
betor, ba, Jauna, su eta su!

2. OROITU ZAITEZ...!

Euskal Esnalea, sortu ta gero, laster asi zan liburuxkak atera, txapelketak eratu ta itzaldiak antolatzen. Idaztien artean egutegi polit bat ere azaltzen zan. Esku artean dut 1910-garrenean, Irun-en, agertu zana; 103 orrialde dauzka, ta eder-ederra da, lenago Arana-Goirik egiñiko "Lenengo Egutegi Bizkaitarra, 1898", ormarakoaren antzekoa, ta Donostia-ko *Argia*-k geroago urteetan atera zuen bezelakoa. Orduko euskal idazlerik

²⁹ [Sic]. 5/4 da.

onenak, 71 guztiz, idazten dute bertan. Ementxe dator Errenderi Aitaren lan au ere, Azkue, Kanpion, E. Arrese, Kirikiño, K. Eleizalde, R. Gandasegi, M. Landerretxe, Lopez Mendizabal, P. Orkaiztegi, Urkixo, Zamarripa ta besteen artean.

Egitura: Au ez dut uste kantatzeko egin zuenik, egutegia osatu zutenak eskatuta baiño. Ala dirudi beintzat, gaiez ezpada ere, bai arduraz ezarri zion egituraz. Zortziko nagusi eraz egiñiko zortzi ahapalditan dago. Neurria, etena ta errima ondo zainduta daude. Onela:

- 5/5 (uts)
- 5/3 (a)
- 5/5 (uts)
- 5/3 (a)

Gaia: Auts-eguna dakar gogora. Asiera liburuko esaria aipatuz: "Auts zera ta berriz ere auts biurtuko" (3-19).

- Igazkor duzu bizia. Leikide izugarri, auzo daramazu erio zitala; onen atzapar artean utzi bear ain maitagarri zaizun bizi-doaia. Aberats zein txiro, argal zein altsu, eriok eratsiko.

- Or gizon bat, neskatx bat bide zear... Or amarreko taldea, or millakoa. Lerroz lerro doaz Futbol ikustera, alai ta ustetsu; baiña denak galduko dute, ez izan ezmezik, beren bizmena, bizi-arnasa.

- Ikus amaren besoetan aur txiki, polita... Atzo tximistak jota bezela lurrera zitzaigun; amaren besoak, laztanak utzi bear: eriok eraman zuen obi-zulora.

- Ikusten, ote...! Gazteak, itxaropenez beteak, sendo ta lirain! Naikunde ta ametsez, gaiñezka... Zer gerta da? Itzali dira, beren asmo ta nai biziak iritxi gabe.

- Senar gazteak or laga du emazte samurra alargun; umezurtz seme-alabak, sukalde illuna, sendi guztia negar-erostaz.

- Sarri dijoaz agure zarrak, eta atso urtez beteak, eta ainurtetsu ez diranak, kanposantura. Gurasoen, seme-alaben, adiskideen erakarpina dabil tarteko; or dardarrez batzuk eta bestetzuk. Etsi-zorian daude dardaraziz...

³⁰ [Sic]. 5/4 da.

- Orixe bait da guztion azken-etxea. Denok, eta aguro, bizitz ontatik bestera joan bearra. Auts eta loi besterik ez gara ta... Gizonto, zergatik orrenbeste puzkeri?

3. LOURDES

Euskal erri ertzerantz izanik ere, Andre Maria Lourdes-en bertan eusko abizen eta odoleko neskatx bati agertu izan zitzaion lengo mendearen azken aldean. Arrezkero, ainbat txango ta ibillaldi gartsu izan ditu munduak toki zoragarri artara, eta euskaldunok ere ez gera orretan atzenengoak izan.

Antzeko joan-etorrietako egiña duzu, ots, arantzakoan eta onantzakoan, Lourdes-era erromes doaztenak abesteko moldatua. "Osterariyen Ereserkiya" deitzen dio berak. Eta neri Harrazpi-ren "Eskualdun Fededunak" kantika gogora:

Lurden hautatu zuen / tronitzat harpea,
Ainhoarren artean / aldiz, arantzea.

Egitura: Artalde antzo, erromesek ba dijoaz arpera. Eta aurrelariak bi bertso parekatutan gisa onetan oi: "Aupa guztiok, - jo aurrera!" Laster gera Lurdes-en.

Ondoren datoz sei ahapaldi, onan egiñak:

- 5/5 (uts)
- 5/4 (a)
- 5/5 (uts)
- 5/4 (a)

Neurkera au ez da euskal metrikan maiz erabilten; beraz, ba liteke erderatikoa izatea. Etena ondo, ta azkena ere, naiko egoki. Beti egiten ez duanarren, emen sinalefa ere zaintzen du.

Gaia: Erri ta gizaki guztien Ama da Maria. Baita gu euskaldunona ere. Eta geure Ama dalako, Lurdes-en daukagu Euzkadi-ko semeon zai.

- Euskal erriaz galde dagi Mariak, antza danez, eta gaur euskaldunak Maria ikertzer³¹ dijoaz pozez kantari.

- Batzar zarretan Euzkadi-k, Gernika-n, Maria orban bagea zala beti, aldarrikatu zuen ozenki. Eta Amak, Lurdes-ko Amak, gogoan dauka agur gozo ori.

- Iturria sortu zaigu Masabiel-ko arkaitz artean; leia gaitezen euskaldunok egiaz asetzen gogo barrenko egarria. Edangarria bait da arkaitz arteko ura.

- Mundua, Ama, auspez daukagu aurrean, andik eta emendik erromes urbildua. Guretzat ere, Ama ezitia, ideki zeure eskuak, eta betorkigu zure grazia: ugolde antzo bite³² guretzat zure ur gozoaren betea.

- Emen gauzkazu otoizka, zure doai ta mesedeen zai; oiek iritxi arte ez gera biurtuko gure etxetara.

Laxter, ba, laxter / onetsi, Ama,
Ama maitia, / euzkotarrak.

4. LOURDES-ko AMARI

Egitura: Ahapaldi bi, zortziko nagusi bi. Maisuki egiñak. Metrika legeak eta abar zintzo-zintzo zaintzen ditu. Onela:

- 5/5 (aske)
- 5/3 (a)
- 5/5 (aske)
- 5/3 (a)
- 5/5 (aske)
- 5/3 (a)
- 5/5 (aske)
- 5/3 (a)

Olerkari onak, bere buru-sorpenak eta biotz-dardarak, jantzi ederrez apaindu bear ditu. Orixe dagi emen, ain zuzen, Errenderi Aitak.

³¹ Ikertu: bisitatu, ikusi.

Gaia: Amaren begi aurretik ezin alde egiñik daukazu, euskaldunakin noski erromes joan zaigun olerkaria. Goiko kapera ixillean belauniko, andik aldendu baiño len, otoitz samurra egin dio Amari bere erriaren alde.

- Iltzera doa bere erria, Euzkadi; min eta oiñazez larri dago gaxoa, ezin bizirik. Zuk, baiña, Ama, osasuna duzu eskuan. Begitu ta sendo egizu gure erria. "Ez utzi, Ama, Aberria il-ta, iltzen negarrez euzkoa!"

- Ertunak (doakabeak) eta landerrak (ezeukiak) datoz zugana, Ama maite; atsekabez ta malkoz beteak! Orra Euzkadi elbarritua, zure aurrean auspez:

Osatu, Ama, osatu, otoi,
Euzkotarraren erria!

- Otoitz bizia, olerkariak maite zuen erriaren onerako Andre Mariari zuzendua.

5. DEUN PANTZESKA-IRUGARREN BATZAREN ERESERKIYA

Garai artako egunak etziran euskeraren aldekoak, gaur ere ez diran bezela. Nainun agertzen dira etsaiak, gure izkuntzaren etsaiak, alegia. Eta ez atzerritik etorriak soilki, etxeakoak askotan ez bait dira obeak. Irugarren ordenakoak orduan askotxo ziran, buruñurduñen eleizetan batez ere, eliz-ospakizunak baiña sarri erderaz, euskeraz egin bear lirakenak izanarren. "Egin bear dezutena orixen da", idazten dio Arantzadi'tar Ingartzi-ri, kantu ta beste euskeraz egin. Orrek eraginda osatzen du ereserki au, "Gora Frantzisko" ere esaten zaiona.

Egitura: Orok abestuteko bertso biko sarrera txiki ondoren, iru ahapaldi datoz zortziko nagusitan.

Bertso biko sarrera, bitxia benetan euskal metrikan, au da;

- 5/6 (a)

- 5/6 (a)

³² Bite: izan bedi.

Iru estrofa, ordea, zortziko nagusian zuzenki borobilduta; neurri, sinalefa, eten eta amai oskidetsu, akatsik gabe.

Gaia: Asis'ko Prantzisko deunak badu garrantzirik. Bildur gorrian daude gaizto ta etsaiak beronen aurrean. Aren anaiok, ekin erasoari Deunaren ikurrinpean. Ura gurekin, nork gu azpiratuko? Kanta gurenda-abesti alaiak...

- Suleizeko seme duzu Beltzebu. Jo ta ke egin bear zaio orri, burua zartatu ta kilimon egin arte, gaitzaren etsai biurri bait zaigu; orren indarrak lertazi bear ditugu, goikoak bekotarren kontra noski. Mendi-gaiña irabazi bear da, gurenda didarra an ots-egin dezagun.

- Asis-ko Santuak gorantz jaso dauka gure ikurriña, eta aurrera doa, gorantza aspertu barik, bi eskuekin ikurrin deuna jasorik. Goazen orren atzetik, asistar anaiok, abots zoli ozenarekin gurenda abestuteko berealaxen.

6. GURTZA

(Salve, Regina)

Aspalditik dator gure eleizetan otoitzak erderaz egiteko oitura, azken urteotan baztertuaz doan arren. Askotan meza-zuzendariak edo-ta Errosario esaleak euskeraz ez dakialako; beste batzutan —oitura txarra— beren artean erdeldunen bat aurkitzen dalako, erderara jotzen da. Iñoiz ikusia dugu, ori egitean, bat-edo-bat elizatik irtetzen. Eta Errenderi Abaren oiua: "Zergatik erabakitzen ez dezute, goguak batuaz, ez sartzeko erderaz egiten duten txadonetan? Denak goraltzen dute poloniatarren abertzaletasuna, ukatzen diralako edo nai ez dutelako alemaneraz otoitzak egin, polonieraz baño. Zergatik ez goraldtu euzkotarren abertzaletasuna, ori bera euzkeraren alde egiten badute?". Orixegatik, Agurtza ostean, Andre Mariari esaten diogun "Salbea" ere euskal bertsotan ipiñi zigun.

Egitura: Eresi au ere erdel kanturen bati, jakin ez zeñi, ezartzeko egiña dala dirudi. Sei ahapaldi dauzka, lau bertso lerroko. Onela:

- 6 (a)
- 6 (b)
- 6 (b)
- 6 (a)

Neurkera bitxia benetan, euskal metrikan ia iñoiz ere agertzen ez dana. Amaiak ez daude gaizki.

Gaia: "Salbea" deritzagun otoitza, arrena edo kantua Elizeak oso aintziñatik Andre Maria goraltzeko darabillena duzu.

- Agur, diño olerkariak len-itzetan; agur, Erregiña, Zugan begiak josita dago Jainkoa bera ere. Ama zera, samur ta maitekor; itxaropen zera, ta bizitza. Agur!

- Negarrez gagoz ludian, Zuri deika. Ama zaitugu, biotz-bera; Zaindari zaitugu, errukiz betea. Ama!, entzun gure otoitza.

- Lagun eiguzu orain bizitzan, eta eriotz-unean. Azken orduan batez ere ager bekigu irripartsu Jesus, zure Semea.

- Agur, Ama errukitsu ori. Agur, Zuri, Ama. "Agur, agur, agur!".

7. ARANTZAZU-KO MIREN GARBIYARI

Oian ertzean iturriak ura lez, gure biotzak maitasuna erakusten zeruko Andre Mariari. Maite izan du onek, eta gaur ere maite du, gure erria. Ikus zeinbat jauretze ibar ta mendi, berak aukeratuta toki ixil-zoragarriak! Or arkaitz arte izugarri, Arantzazu-ko kabi goxo, Gipuzkoa-ko Zaindari eztiaren gordeleku atsegiña. Zein gipuzkoarrek, eta ez gipuzkoarrek, ez dio biotza erakutsi esker onez gaiñezka? Baita Errenderi Aitak ere.

Egitura: Lau bertso sarrera bat eta bost ahapaldiko ditu oler-lan onek. Abesteko esan dezakegu. Sarrera edo leloa onan:

- 7 (uts)
- 6 (a)
- 7 (uts)

- 6 (a)

Neurriz ta amaitzez, akatsik gabe. Eta bost estrofak edu onetan:

- 5 (uts)

- 5 (a)

- 5 (a)

- 4 (b)

- 5 (uts)

- 5 (z)

- 5 (z)

- 4 (b)

Rima aberatsa, utsik gabe.

Gaia: Arantzazu-n dago olerkari kistarra. Elizan, Ama garbia, eder, aldare nagusian duela. Gure Zaindaria, nunbait. Begiak negar malkoz asetzen.

- Bertatik bere erriaren gomuta. Alde guztitik ondatu nairik dabilzan etsai artean estu ta larri. Olerkariaren biotz-zauskada: "Ama onena, Euzkadi dena eroria!"

- Ipar aldeak otza ematen, eta ego txarrak estaltzen... Ama garbi, Zuk dena dagikezu: aldendu gugandik min-gaitza, ipar eta egoak ekarri diguna.

- Neke-arantzaz asetua duzu gure erria; neke ta arantzapean akiturik, il ez dadin gure erri maite au, el zakizkigu, Ama ezta, ta onik atera zure semeok. El zaitez gure errira, guri kentzera arantz-sasiak gaiñetik.

- Eta guk beti Zu aintzatuko, gora-goraka Zu beti! Erakunde ta sendi zureak izango! Lege, oitura ta izkuntza, euzkotar, zureak gera izango!

8. MIREN ERRU GABIA

Mariaren alabai eskeiñitako olerkia, berak eskaturik bear bada.

Egitura: Barru ta azal ederki moldatua. Badu adimen-giarra ta biotz-sua; baita jantzi ñabarra ere, irudikizun apaiñez eioa.

Lau ahapaldikoa duzu, bakoitzak zortzi bertso lerro dituna. Trebe, antzetsu osatua. Onela bertsoak:

- 7 (uts)
- 7 (a)
- 7 (a)
- 6 (b)
- 7 (uts)
- 7 (z)
- 7 (z)
- 6 (b)

Dotore. Onan³³ ez du euskal poesiak maiz duen ots bakar eta era berekoak dakarkigun zurmur ertuna. Olerki-lan arin laburrak moldatzeko, eredugarri dugu joera au.

Gaia: Erru gabea da Maria, mendi-muiñoko elur zuria bezin zuria, edo-ta zuriagoa oraindik. Munduan ez dago eder ori berdintzeko ederrik.

- Itxas-ontzia sarri dabil kresal-gaiñ illundian; galdu ez dadin, baiña, an du urtzean kai-argia. Maria da gogo-illunbean dabilzanen izar-argi.

- Munduan, nekepean, andra ta gizon, gazte ta zaar, ugari. Naigabe, neke ta miñak, gogo-biotzen zama. Nori, Zuri ezik, dei egin, Ama?

- Ama samur, Neskutz eder! Ikus gure biotzen larria. Guda ta naspilla dugu gogo-biotzetan... Ikusi Zuk, ondu ta zaindu zure ama gaxoak, griña arteko burruka latzean sartuak!

9. AGUR!

³³ Honela.

Au be Miren-alabei opaldua, berak diñoanez. Leen asko, orain gutxiago, neskatzak Euzkadi egoaldekoak Madrid'era ta iparraldekoak Paris'era mirabe safi joan bear izaten zuten. Gurasoen ondotik urruti galduko ote ziran bildurrez ez gutxitan, baiña bear-izanak saka eragin oi zieten ezkeru, jaiotz-etxeari agur esanik, urrutirako bidea artu bear. Eta gaur legez orduan ere bideak, gazteentzat aurki, oztopo ta galzoriz beteak iruditzen zitzaizkien ezkeru, ezta arritzekoa laguntza eske gorantz jotea.

Egitura: Zortzi bikotez osatua neurtitz txanbelin au. Oler-lanak eskatzen ditun baldintzak polito zainduta. Onela:

- 7/6 (a)

- 7/6 (a)

Ez du esateko akatsik. Adizkera ez-ezagunak, bear bada: "beizkit" (bekizkit, beude neri begira) eta "dakuskit" (ikusten ditut).

Gaia: Urruti doa neskatzak, bearrak eramana, kutun duen Ama bakarrik utzita. Galzori artera doan Mariaren alaba batek egin dezaken egintzarik bikaiñena Amaren oiñetan auspeztu ta babesa eskatu.

- Gaur-arte, bai, umetatik zure magalera egaz egin oi nuen; aurrerantzean, baiña, ez nauzu emen izango, zure magala "alabarik gabe" izango zera. Enetxo gaxua, Amatzu maitea!

- Ari bitez, ala ere, zure begiak neri begira. Bebil nerekin zure maite-itzala ni berriro ere itzuli arte gaur nagoen lekura. Ez dut utzi nai abi goxo au.

- Munduko bideak oro loiez narras ikusten ditut: or-emen obena da nabari, zikinduko ote nau pekatuzko erruak? Etsaia, ziur asko, ibilliko zait biraka leoi antzo, ni irentsi naian. Ni, bidean, zauritu ta illik ikus gurarik.

- Ni gaiztotu ta illik? Ken zaidazu leno gogoa, gaitzak jo baiño len. Ori gurago dut zure Semea ukatu baiño. Zure magal-magalean pozez iltzera eldu nai dut nik.

Zure ondotik urrun - bearrak narama;

berriz etorri arte - agur, agur, Ama!!

10. AMA TAMALTSUA

(Stabat Mater dolorosa)

Ona biotz txit samindu bi. Andre Mariarena, bere Semea gurutzean zintzilik ikusiz; Errenderi Abarena, bere erria naigabez, gaitz-miñez ilzori aurkituz. Sarri irakurri ta abestu zuen onek eliz-kantu zaar samintsua, "Stabat Mater". Ederki ta txukun berau euskeraz jartzen alegindu zan. Orixe-k bere *Urte guziko Meza Bezperak* eliz-liburuan egin zuenez, latiñezko musikan bezela euskeraz ere abesteko moduan.

Egitura: Ogei estrofakoa da. Estrofa bakoitzak iru bertso-lerro ditularik. Onela:

- 8 (a)

- 8 (a)

- 7 (b)

- 8 (z)

- 8 (z)

- 7 (b)

Neurkera zailla izanda ere, rima batez ere, ez du utsik egiten. Bere "Ama Neskutza maite-maitiaren aintzarako", txukun-txukun egitea nai izan zuen ezkerorrelaxe osatua dugu ereserki samintsu au.

Gaia: Negarrez Ama gurutz-oiñean, Semea, Kristo iltzatua ikustean. Ai, Seme bakar ta Ama bakar, biak oiñaze miñetan! Semea gurutz-abea zintzilik, eta Ama gurutz azpian ezpata latzak zauritua.

- Amaren naigabea ta zerion negarra! Nork negar ez egin Jesus'en Ama ba lekuske (ikusiko balu) neke-min orren aunditan? Nor ez urtuko malkotan, ama ikusiz Semearen intziraz?

- Giza-seme-alaben gaiztakeriengatik dakus Jesus zigorpetua, oiñazetan; Jesus ikusten du "alak iltzen", azken arnasa ematen...

- Ia, Ama maitagarri!, zurekin negar dezadan ezar eidazu neri ere negar ori. Jesus, bai!, ezar nere biotzari, Zuretzat izan nadin. Arren, Ama, iltzatuaren zauriak irarri ta josi neri biotz-barrenean.

- Nigatik il zaizu Semea. Neu izan naiz errudun, nere pekatuak josi du gurutzean zure Seme laztana. Bana, otoi, Ama, zure Semearen min-zauriak nereakin, izan gaitezen biok erdikide. Egizu, bai, bizi naizeño zurekin negar egin dezadala, Kristorekin minkide izanik.

- Ari ta ari, egundo aspertzeke, Zurekin iraun nai nuke gurutz-oiñean, Kristo maitatzen eta adietan zure lagun. Ama berdin gabea, zurekin gura nituke malkoak ixuri, mundu gaiztoa zerura dadin.

- Biotzez deskatzut, Ama, biur nazazu neke-samiñen lagun; zauriez zaurtu nazazu, eta naizen guztia, Kristo!, zeure gurutz-oiñazez ase nazazu.

- Epai-orduan Zuk, Ama, aldeztu naizu, "sukarrez ez nadintzat ni erre". Eta Zuk, Kristo Jauna, nik gurutzean josi Orrek, emaidazu goi-zoriona zure Ama Mariaren bitartez.

Adizkerak: "Balekuske" (ikusiko balu); "dakus" (ikusten du); "irardazu" (irarri, josi: jos eidazu); "alak iltzen" (penaz iltzen).

11. BI EGUBERRI ABESTI

Bi nork alkar artuz egin oi duten lana, bai eder! Orrela jokatu zuten bi Aita kaputxino auek: Aita Donosti ta Aita Errenderi. Donostik ainbat Eguberri-kanta antolatatu zituen, baita Lope de Vega-ren "Pues andáis en las palmas" eta "No lloréis mis ojos" bi poesi auri ere musika jarri zien, Aita J. Riezu-k argitaraturiko *Obras Musicales del Padre Donostia*. *Navidad* 45, 71 eta 74 orrialdeetan datozanak. Olerkiok A. Errenderi-k ipiñi zizkion euskeraz, gaur ere eliza askotan abesten diranak.

Egitura: Taiu berdiñez egiñak dituzu biak: bi bertso-lerroko sarrera eta bi estrofa bakoitzak. Erderazko neurkerari lotu bearra izan du emen ere, euskeraz arrunta ez dan neurkerari noski. Onela:

Sarrera: - 7/5 (a)
 - 7/5 (a)

- Estrofak: - 6/5 (a)
 - 6/5 (a)
 - 6/5 (a)
 - 6/5 (a)

Errima auzian badu emen utsik, bi bederen, oker ezpanago.

Gaia: Betlen-en sortu zaigu Kristo, Jainko Semea. Askan ipiñi du amak, eta lo dago, Artzaiñak eta aingeru goitarrak ara dijoaz, argi-diztirak lilluraturik. Egal-otsez, adar-joka ez dute esnatuko Aurra? Olerkariak diotse: "Geldi, goitarrak! Ostoa ta abar artean, lo dago Jesus; ez ikarazi abarrik. Biotza soilki dardar bedi maitasunezko ikaraz".

- Bil egalak, zuok, gotzonok; miretsi bai, poliki urbilduz... Aurra lotan dago-ta, ez atera otsik! Otoi, gotzon goitarrak! Poliki, poliki!

- Negua da-ta, Aurra bear du atsedena. Ez, arren, esnatu Josu ega-egaka. Aurra lo dago-ta, inñolaz ez ikutu, goitarrak, ez jo abarrik.

Bigarrena, ostera, Amak artu du-ta besoetan Aurra:

- Malko oiek, Jesus, txuka itzazu. Negarrez ba zagoz, nola guk abestu.

- Amak altzoan zauzka, bero; ixil, beraz, enetxo! Begi-betsein oiek argi-argitu. Negarrez ari bai zera, nola guk abestu!

- Betlen-en gaur jaio zeralako, goitar geznariak dituzu pozkarioz jarri. Orain ba, Maite orrek, begiak ez malkoz illundu. Negarrez bazaude, nolaz guk abestu?

12. KISTOREN GOGUA

"Alma de Cristo" eskaria duzu, zenbait izkuntzetan biotzez esana. Otoitz au ere euskeraz opa zuen A. Errenderi-k.

Egitura: Jaunartu ondorengo otoitz au itzulia duzu munduko izkuntzarik geienetara. Une ortarako, izan ere, bizi ta sutsuak dira arimak bere barnetik jalkitzen ditun zauskada bipillak.

Emen olerkariak ez die garrantzi aundirik eman ez neurriari ez azkeneri, oizko duen musikeari eutsi nairik ziur asko. Amairu bertso-lerro, baiña olerki lanak eskatzen dizkigun baldintza zeatzai geiegi begiratu gabe.

Gaia: Arimeak dei dagio Kristoren gogoari, santutu dezan; dei baita Kristoren Gorputzari ere, gaizkatu dezan; Jainko-odolari ase dezan; Kristoren saiets urari, garbitu dezan...

- Ez, ez dezala utzi Beragandik alde egiten, etsai gaiztoen sare barru erori ez dedin. Gorde ta zaindu, bai, eriotz-orduan batez ere.

- Kristorekin alkartu nai du bero ta seguru. Beti ta beti, "Deunakin gorestu" dezan. Olantxe.

13. JOSU MAITIARI

Egitura: Bitxia nunbait olerkitxo onen egitura, beste batzuen bezela. Zortzi ahapaldi biko, edo-ta lau ahapaldi lauko ditugu. Onela:

- 5/6 (a)

- 6 (b)

- 5/6 (a)

- 6 (b)

Badu erdel kutsurik. Eta olerkaria bera ere oar da orretaz. "bildur naiz, dio, belarriak zerbait erdeldundu ote zaizkidan. Dana dala, neurri ori eman didazuten ezker". Erdel itzezko kantagaia ematen zioten, eta neurri orren-pean jorratu bear errenderitarrak.

Gaia: Mendi gaiñetan —gure errietan— elurra kokatu da, elur otza. Urtzera dator, baiña, Eguzkia, gure biotzen jabe dan Kristo gure maitea.

- Abes dezaiozun kitara otsez Jesus laztanari, abestu zoli ta gartsu; ereserki bat leial ozentsua otsegin dezagun. Ur ta lur izadiak, esker onez, ematen dion antz-antzekoa. Jo kitara ta zakdabai!

- Josu nire billa dabil, ni ere Josu-ren billa: bizi izatekoz, maitea gabe, il nadilla bertan. Barrena oso-osorik Zure maitez daukat, ene Josu.

Zu-zureztat ni, betirako beti;
ta Zu, ni-neretzat!

14. ATOZ, JAUN ORI!

Elduaien'dar Tomas Aita kaputxinoak musikaz jarri zuen. *Zeruko Argia*-n dator, 1923-garreneko azaroan.

Egitura: Sei ahapaldi bikotan, naiz iru ahapaldi laukotan idatzita. Onela:

- 5/5 (uts)
- 5/4 (a)
- 5/5 (uts)
- 5/4 (a)

Neurriz ondo, ta azken oskidetza, azkenengoan ezik, oso-osoa.

Gaia: Atoz, Jauna, niregana, Zu urrun egotea nireztat gaitz aundia da-ta; zatozkit bai, nekez ondatu ta lertazi nai ez ba didazu biotza.

- Zu kenduta, Jauna, Zu gaberik, txarto ta galzorian dago nire gogo; zatozkit, bestela naigabe gorritan, ezin bizirik, il naiago dut.

- Zatoz azkar, Jauna, nerekin bertan idetutzera, bat egitera; Zurekin beti bat izan nadin, "beti betiko".

15. JOSU BIYOTZAREN ABESTIYAK

Kanta txorta bat duzu, amar eresikoa. Alfonso Ugarte ereslariak eskatu zizkion, eta Errenderi Abak ezin eskabide orri ukorik egin. Erdel-itzak ereslariak eman zizkion eta Errenderi-k aiei orpoz-orpo jarraituz bereak osatu zituen.

Egitura: Amar eresiok, bakoitzak bi lerroko sarrera ta iru estrofa dauzkate; neurritz ta oskidez, baiña, denak edo geienak dira ezberdiñak. Onela:

I

Sarrera: - 7/6 (a)
- 7/6 (a)

Ahapaldiak: - 7 (uts)
- 6 (a)
- 7 (a)

Ahapaldiak: - 6 (b)
- 7 (uts)
- 7 (z)
- 7 (z)
- 6 (b)

II

Sarrera: - 5/4 (a)
- 5/4 (a)

Ahapaldiak: - 5/4 (uts)
- 5/4 (a)
- 5/4 (uts)
- 5/4 (a)

III

Sarrera: - 5/4 (a)
- 5/4 (a)

Ahapaldiak: - 5/4 (a)
- 5/4 (a)
- 5/4 (a)
- 5/4 (a)

IV

Goikoaren antz-antzeko sarrera ta ahapaldiak.

V

Sarrera: - 7/6 (a)
- 7/6 (a)

Ahapaldiak: - 8 (uts)
- 8 (a)
- 8 (a)
- 7 (b)
- 8 (uts)
- 8 (z)
- 8 (z)
- 7 (b)

VI

Sarrera: - 5/4 (a)
- 5/4 (a)

Ahapaldiak: - 7 (uts)
- 7 (a)

- 7 (a)
- 6 (b)
- 7 (uts)
- 7 (z)
- 7 (z)
- 6 (b)

VII

- Sarrera: - 5/4 (a)
- 5/4 (a)

- Ahapaldiak: - 5/4 (a)
- 5/4 (a)
- 5/4 (b)
- 5/4 (b)

VIII

- Sarrera: - 5/4 (a)
- 5/4 (a)

- Ahapaldiak: - 5 (a)
- 5 (a)
- 4 (b)
- 5 (z)
- 5 (z)
- 4 (b)

IX

- Sarrera: - 5/5 (a)
- 5/5 (a)

- Ahapaldiak: - 6 (uts)
- 6 (a)
- 6 (a)
- 6 (b)
- 6 (uts)
- 6 (z)
- 6 (z)
- 6 (b)

X

- Sarrera: - 7 (a)
- 7 (b)
- 7 (a)
- 7 (b)

- Ahapaldiak: - 7 (uts)
- 7 (a)
- 7 (a)
- 6 (b)
- 7 (uts)
- 7 (z)
- 7 (z)
- 6 (b)

Metrika bitxia egiaz, erdel izkiak euskal musikari itsatsi nairik erabillirik. Leendik ere nabari dira gure euskal poesian, geureak ez diran neurriak, zergatik beraz auek ere, noizik bein, onartu ta erabilli ez?

Gaia txit ezaguna bait da, ez du azaldu bearrik. Adizkera zaillik ere ez datorkigu berton.

16. ENARA GAXUA

Bere eriotza baiño bi egun lenago idatzia omen da. Azken unean aurkitzen da olerkaria, utzi egin bear du mundua, berari ainbat atsekabe ekarri dion mundua. Enarak egaz dagi; baita berak ere Aitaren egoitzera. Irudikizun atsegiña.

Egitura: Lau ahapaldi dauzka, politak, arin sakonak. Lenengoak, lau bertso lerro ditu, bigarrenak sei, irugarrenak amar eta laugarrenak bederatzi. Onela neurtu ta oskideturik: 7/6 neurritz, bigarrena, laugarrena ta abar txandaka -ua'ka oskideturik. Bertso-neurkerak eta azken-errimak etzuen arentzat iñoiz ere izan oztopo ez zailtasunik.

Gaia: Olerkaria, egazka ta egazka lurralde otz-beroak igaro ditun enara legez, erri-miñezko gaitzetan ondatua aurkitzen da.

- Josu on-onagana doa orain bere naigabea azaltzera. Ez didazu Zuk, Jaun maite orrek, besoa zabalduko?

- Dardaiz gabe dago, ludi zitalez nekatua. Ba-daki Jauna urrikaltsu duena... Ez, jauna, ez uka lekua igesi doanari! Idek atek, idek leioa!

- Enarak, Jauna, bere egoa bete du, ta zure deiaren zai dago artega. Orduan, oi!, ni egaztean, eman zeure laztana, eman zeure muxua! Eta donoki barrenean betiko saria!

II'GARREN SAILLA

ABERRI-OYUAK

1. SABIN!

Senditik itxura danez oso abertzalea genduan Errenderi Aba, ots, maite zitun bere erria, legeak, izkuntza, gizonak, uzkurtza. Eta iturri beteak legez, al zuen eresi guztietan erakutsi oi zigun barne zeramana. Ondoren datozen aberri-oiuak guztiz bikain landuak dira, sakon, goxo ta antzetsu.

Egitura: Ogetazortzi ahapaldi ditu olerki gartsu onek, irukoitzetan banaturik.

Onela:

- 7/6 (a)

- 7/6 (a)

- 8 (a)

Irugarren bertso lerroa bigarrenaren erdia duzu, errepikatua. Ez du aintzat artzeko utsik.

Gaia: Olerkariak beti du begi aurre Arana-Goiri'tar Sabin, baiña bereziki aipamen gozoa ta eskari sutsua egin oi dio urtean bein, bere egunean ain zuzen. Gaur ere bai, malkoz urtua eldu da Maixuaren oiñetara.

- Aren eriotz-egunak arrotzen dio irudimena, ta negartzen biotza. Bai samiña! Porrokatua darabil barrua. Poza aldendurik, negarra eurrez³⁴; negar dagi, ez besterik. Zu ziñan, Arana, "ene biotzeko Aba maite ta laztana".

- Nolako aitortza! Sabin il-urren zelarik, Errenderi Aita, aren alde, eriotz-eske ibilli zitzaigun: "... ba-dakizu, ziñez ibilli nintzala". Elizan auspez otoitz egin zion Urtziri: "Bertan ni il nadin, bañon iñolaz ez Goiri". "Aberriak zer? Euskereak zer, iltzen ba zaigu Sabin?".

- Entzuten ditut Euzkadi-ren marruak, aditzen euzko guztien uluak. Or gau-arrats izugarria, beltzez goibeldurik zerua. Bira-biraka odeiak, goi ta bee dardarazten tximist, ortots, aize ta euri-jasak, ortzea ta lurra naspildurik...

- Auxe nekea! Ainbeste burruka, intziri nun-nai entzunik dardar-ikaraz dago. Aize ta ekaitz, zugaitz-enborrak suntsiturik, ortze zabala jutzuriz orruka... Arkaitzak iraulez, eraso txistuka, itxaso marrua. Euzkadi dago miñetan, gogo-barrenean sartu diote aiotza, "erdibiturik biotza!".

- Iltzen dago Arana, erio beltzak darama; odei baldar eta laiño narrasak illundu dituzte bazterrak. Eraunsi-otsak oro biurtu du negar-elito itun. Illetariak alde guztitik ditugu, Arana Goiri dalako azkenetan.

³⁴ Eurrez: erruz, ugari.

- Zardain-enborra zartatu da-ta, negar egizu karrasiz, Euzko mendiak estal zaitezte lañoz, ez agertzeko beiñere alargun iduri. Larri-ikara, ama Euzkadi samiña: Sabin il da-ta, bota azken zotiña!

- Arana, il omen zera betiko! Nola ni orain biziko? Auxe barrengo negarra! Negarra da nik dagikedan gauza bakarra!

2. NEGAR!

Aita Ibero buruñurduna il zanean, ari eskeiñitako oler-lana. Teruel probintziko Hajar erritxuan, kaputxinoen komentuan il zan Aba au 1909-garreneko irailaren lenengoan. *Ami Vasco* liburuxka idatzi zuen onek, eta Errenderi Abak oso maite zuen, bai liburua eta bai egillea. Makiña bat euskaltzaletu dituan idazti da izan be Ibero Abak osaturiko ori.

Egitura: Amaika estrofa dauzka, aurrekoaren gisara moldatuak. Onela:

- 5/5/3 (a)

- 5/5/3 (a)

- 8 (a)

Irugarren ahapaldi zortzi silabakoa, bigarrenaren azken zatiaren errepika da.

Gaia: Ibero gizagaxoak Espain errian eman du azken arnasa, erbestean il zaigu. Galpen au dalako, betillun dago Euzkadi, negar ta negar.

- Uri, kale, aran eta mendi, laiño beltzez estali dira oso. Ortzi ederra bera, euzko zerua goibeltasunez jantzia daukagu. Itxas-marruak diñoie zurtz-aroan sartu generala. Oi, biotzak, euskal biotzak!

- Zoritxarrezko zoria! Ibero-tarraren adimena bezin argirik, nun aurkituko? Gizon aundi ta azkarra galdu du Euzkadi-k. Aberri gaixo il zaizu seme argia, jakintsu ta ernea.

- Il dira aren asmoak. Gure izkuntzaren alde jokatu zuen zintzo-zintzoro: ez du geiago jokatuko. Gaixoa! Auxe bai dala neke ta atsekabea! Negar eizu, aberritar orrek. Ixur malko garratzak!

- Itzali dira aren gogo sugarrak... Nork dagizki orain gure alde bezelako indarrak? "Euzkera piztu, Euzkadi jaso, etsai gaiztuak eratsi". Nola guk zure asmoak, zu gabe, iritsi?

- Ai, au nekea! Bijoa uda, betor udazken beltza, goibel tristea. "Alargun jantziz jantzi dedilla Euzkadi gaixo-gaixoa".

3. JUAN ZAN!

Bilbo-ko Euzko Gaztediak argitaldutako *Euzkel Abesti* txortak ainbat kanta goxo atsegin dakarzte. Errenderi Abak esku artean erabili zituen, eta ikasi ere bai. Bere lantxoak osatzeko eredu zitzaizkion. Eresi au, berak diñoskunez, an datorren baten antzera egiña da, ots, "[Argizariak zelütik](#)" lez. Ona berau:

Argizariak zelütik
argitzen dizü eijerki;
ene maite pollita eztüzü ageri.
Zelüko Jinko Jaona! zer eginen düt nik,
zer eginen düt nik!

Zuberotarrez dago, izki ta musika bikain.

Egitura: Iru ahapaldi dira, lenengoak eta irugarrenak bost bertso lerro dauzkatela, ta bigarrenak lau bakar-bakarrik. Onela:

- 8 (a)

- 8 (a)

- 7/6 (b)

- 7/6 (b)

- 6 (a)

Dakusgunez, ez dio osoan jarraitzen zuberotar oskidetzari. Azken bertsoa laugarrenaren errepika duzu.

Gaia: - Il zan Arana, joan zaigun³⁵ mundutik. Joan zan Jaunagana, Urtziren atsedean betierekoara. Eta euzko Aberri kutuna, Erkaba³⁶ gabe! Zein zori gaiztoa!

- Zugaitz orriak jausi dira, bira-biraka erori zaizkigu lurrera. Aberri laztan, eta zu? Zure gizonak, zure legeak, zure euzkera, zure askatasuna? "Aberri kutun ene, galdurik euzkera".

- "Ostoak orbeldu, zugaitz adarrak igartu... Orbel eta zugaitzak sargoriz il dira. Ego-gaitzak darama Euzkadi obira".

4. EGUZKIRIK GABE

Egitura: Aberria ikusten du Errenderi Abak beltz eta errukarri, gau belun itzaltsuan. Gauaren izugarri! Barne zarrazta unkigarrienak emen ere asazkatzen. Olerki ondo eioa, barru ta azal. Lau ahapaldi ditu, neurritz akats gabe ta oskidez oso aberats. Edozein antolojitan dotore letorkena. Onela:

- 7/6 (a)

- 7/6 (a)

- 7/6 (a)

- 7/6 (a)

Lenengo ta bigarren estrofen bukaera: -iya, eta irugarren eta laugarrenarena: -ua.

Gaia: - Mendi atzean ostendu da eguzkia, izarki eder, Urtzi-k ixiotua. Berak argi-azi ditu euzkotar guztiak. "Argi gaberik iraon, a zer illundia!"

- Zein negargarria, zein estu-larria, atsekabe au! Mendi aruntz joan dan ezkeroz gure asaben eguzkia, mendi onuntz auetan il da gure erria!

³⁵ [Sic].

³⁶ Erkaba: asaba, lehen gurasoa.

- Eguzkia itzali ta Aberria il danetik, gau itunak gure gaiñ edatu du bere il-zapi beltza. Eta zapi orixe omen euzkoen soiñekoa, eta gure negarra, ontzaren ulua. Gauak daraman ots utsal gaixoa!

- Nolako gaua! Zer ulu ta urubi! Eguzkirik gabe, illoztua datza Euzkadi. Negar eizu, negar, euzko semea; negar, bai, azken malkoa bota arteño!

5. ARRATS-ABESTIYA

Arana il zanetik, sentimentu sakon, garratz batek dardar dagi Errenderi Abaren izate barruan. Ori azaldu nairik, tai gabe urkultzen dizkigu koplak, beti negar-ulua zeritenak. Sail ortakoa duzu arrats-abesti au ere. Kanta auek txukun osatu nai izan zituen.

Egitura: Sei ahapaldi dira, lau bertso lerroko; onela:

- 8/7 (a)

- 8/7 (a)

- 8/7 (a)

- 8/7 (a)

Ikus nolako neurkera duten onek eta goikoak. Biok errima ere, osoa eta aberatsa, utsik gabe. Kantatzeko egiñak dira nunbait, edo-ta kantari osotuak. Onek ez du, berriz esanda ere, oldozpen eta biotz-zirrara giar-galantak neurri apain barru egokitzeke, bertso zurira jo bearrik.

Gaia: - Sartu da eguzkia. Diamantezko printzaz? Ez, margo beltz itunez jantzia. Olerkariak sartaldean josi ditu begiak. Nolako ikuspegi! Eta idazkortza artz-artean, idatzi du:

Negar egin, negar beti - il dalako Eguzkiya;

ene gogo, biyotz ene, - eztarri ta begiya.

Mingarraztu errai orok - mindu barren guztiya,

illunduta dagolako - illunpian Erria.

Bada emen biotz-ondoa, bada kemenik, bada sentipenik!

- Illunpeko abestia beti nekezkoa; nik illundurik dut gogoa, poz-argi gabarik. Ixildu da nere barreneko txirul ezta; ixildu baita txorien txorro-txioak. Zozo beltza ere, kanta itxita, "jun da bere sasira". Eta nik orain, sartalderantz begira, kanta zoli ordeztu negar dagit, eta intzira.

- Zoritxarpean gaude intzirika, azkatasun eguzkia joan zaigu-ta. Arrats illuna, gau beltza! Ba dugu orain gaitz-miñik, gabarekin etorrita. Illargi gabe ortzia, ez da ageri izar-izpirik. "Illunpetan illundua Aberria".

- Artzak eta otsoak orro dagite izugarri, bildur-dardar ipiñirik Euzkadi. Pozik ezin dugu, ba, abestu, ta saratsetatik zintzilika dauzkagu jogailluak. Min, naigabe ta izuak bakarrik abestuko. Negar egin, negar beti, ene gogo; purrukatu errai oro, lert barren guztiak, "nekatuta dagolako, ondatua Aberria".

6. EUZKERAREN ERIOTZA

Baxe-Napartarrezko "Lili eder bat" eredu lez artuta egiña duzu olerki au, gure eleagazko sentipen samurrez betea. Zazpi ahapaldi ditu jatorrak; onela lenengoa:

Lili eder bat badut nik
aspaldi begietaturik;
bainan ez nainte mentura/haren eskura hartzera,
banaki zer dan lanjerra,
juan nindaite aldera.

(J.D.J. Sallaberri, *Chants Populaires du Pays Basque*)

Eta Aldaya-k Errenderi-n olerki onen oiñean au diosku, abestu nai izan ezker doñu au aipatzen digula esan ondoren: "Nola ordeztu olerki itunari doñu alai erantsi? Ez ote du bata bestea ezeztatuko? Nere ustez nasketa polita egiten dute".

Azken ahapaldiak gaur ez gaitu kezkarazten, baiña orduan bai itxura danez; egilleak uste zuen obe izango zala azken ahapaldia ixillik uztea olerki au giza-talde aurrean esatera ezker.

Egitura: Zortzi estrofa dauzka, poliki taiutuak, bakoitza sei bertso lerroekin.

Onela:

- 8 (a)
- 8 (a)
- 8 (b)
- 8 (b)
- 8 (z)
- 8 (z)

Emendik atera dezakegunez, Errenderi Abak maite zuen euskal olerkia, eta aintziñakoak eta oraingoak (bere garaikoak) irakurriz, asko ikasi zuen.

Gaia: Askoren buru-muiñak onartu ez arren, izkuntza da erri batek euki leiken doairik eder-ederrena. Olerkariak ba zekin ori, eta berau ikasi ta zabalazten gutxi aiña saiatu zitzaigun.

- Biotzez maite du euzkera, bere kutun zoragarria. Il ote danaren susmoa sartu zaio, ta billa dabil mendi, ibar, uri ta baserriz. Billaka beti, baiña ez du aurkitzen iñon, eta illa dalakoan dago.

- Ibai ertzetan dabil, orain oiuka, gero uluka; "Maitia, non zabiltz" deadarka: noski illa da nunbait. Oianetan sarturik, "Nun?" Baiña zalantzazko erantzun oiartzunak bakarrik. Otsoak berak diotsa: "Ua!" Illa da agian.

- Ez da jarri baso ertzean, ez pago zardaiñen itzalpean; ibar-egiak ez dute ikusi, ezta muru-gaillurrak, ez aldeko tokiak eta bazterrak ez duten aren lorratzik. Illa da, bai, nunbait.

- Eta juale ozen, eliz-buruan jarria, zergatik ago geldirik? Il bada, jo zak "illeta, min eta negarrez beteta". Ez adi muturik egon; jo egik durundutsu, eriotz aundietan legez, astun, ozen, sarkor.

- Il dek bai, eliz-gaiñeko juale zintzo! Alere ago ixil! Doibazkatuta — exkomulgatuta— il zaiguk! Il gure euzkera gaixoa! Etsaiak parrez daude, zeietan, elizan... Bakar-bakarrik nik dagit negar, Euzkera maite, igatik negar!!

Adizkiak: "Dasat" (esaten dut); "dantzut" (entzuten dut); "azama" (ama ordea) emen; "jarkitu" (eraso); "dariz" (dagoz).

7. URRETXINDORRA

Egitura: Arin polita; ta, ain zuzen, onakoxeak zaizkigu atsegin, ez bait gagoz lan luzeak xurgatzeko. Bai, leen eta orain, oler-lan laburxeak ditugu begikoago. Iru ahapaldi dauzka onek; leenengo iru bertsoak zazpi ta sei silabakoak, irurak alkarrekin kidedurik, eta azken biak seikoak, alkarrekin otskide auek ere. Onela:

- 7/6 (a)
- 7/6 (a)
- 7/6 (a)
- 6 (b)
- 6 (b)

Ez dario utsik.

Gaia: Ez dugu urretxindor askorik euskal lurraldean; asko, ordea, gaztel errian. Nozik bein, baiña, ari dira emen ere kantari.

- Olerkariak iruditzen deuna, alere, leen kantuz ari zana, ixildu egin da; ez daki zergatik. Ez ote dugu geiago aren kanturik entzungo? Udazkena ta negua datoztelako, igesari eman dio gaixoak.

- Illun duzu arratsa; gaitzez euzkaldun erria. Otz gorria Euzkadi-n. Orixegatik ixildu bear txio zoliak. "Ezin ari beraz / txiyotan iñolaz".

- Aienatu ezik negu gogorra, etzaigu biurtuko gure urretxindorra. Geure erruz urrutiratu da-ta, etzaigu itzuliko gu zentzatu ezik:

ilko da atzerrian
naigabe min-pian.

8. UXUA

Azkar darabil emen ere luma, uso egalariaren pareko.

Egitura: Iru ahapaldi ditu, bakoitza lau bertso lerroko; laurak alkarrekin oskideturik. Era onetan:

- 8 (a)
- 8 (a)
- 10/7 (a)
- 10/7 (a)

Gaia: Uso bat dauka olerkariak. Arin zolia, aratz ederra... Ori dalako bear bada, ire atzetik zebilk eiztaria, i atxiki naiez.

- Erne, txoriño kutun! Eiztari anker, doillorra, or ire billa! Ire jabe egin nai dik. I lumatu ta iresteko, ziur asko. Kontuz, bada!

- Gaixoa! Iges egik lasterxe; oa bertan! Abil ortzi zear azkatasun betean. Beti ortzian egazari emanda!

9. KARNABA

Irudikizun eta metaforak bolbolka zebilzkion buru-muiñean Errenderi Abari. Orain ere, leiotik begira dagoela, karnaba bat, kardantxillo bat ikusi du miru gaiztoaren erpa artean, iltzear. Eta berealaxe datorkio burura bere mintzoaren egoera larria. Eta ahapaldiok ariltzen ditu.

Egitura: Lau ahapaldi irukoz edo bi seikoz osatua duzu. Onela:

- 10 (a)
- 6 (a)
- 8 (a)

- 6 (a)

- 7 (a)

- 6 (a)

Gaia: Karnaba maite, or egazka mirua, ortxe arerioa. Erpaz au urratua utziko. Oi gaixoa!

- Barnean dut samiña ta negarra begian, zu orrela ikustean. Ezin besteko burruka dagizu. Baiña jausiko zera... Ene atsekabe bizia!

- Euskera enetxua: zu zera miru gaiztoak erpape zauzkana. Erderakin burrukan erderapetua zaude. Gaixoa! Bai, gaixoa!

10. ABERRI-MIÑA

Asko izanik ere gai-griñak joak, ots, materialistak, ba dira beste asko beren lurra ta gizonak, onek dituen tasun guztiekin gero, maite dituztenak eta beuron alde gau ta egun etengabeko lanean ari diranak. Oietako bat genuan Errenderi Aba. Lizaso'tar Pelipa, gerra aurreko izlari erneak, irratizkiñez eta erriz-erri lan bikaiña osatu zuen Jel-alde. Onek Donostian emandako itzaldi bat izan zan olerkariari bere "Aberri-miña" idazteko zergatia ekarri ziona.

Egitura: Lau ahapaldi lau bertso lerroko. Onela, neurritz eta oskidez:

- 10 (a)

- 8 (b)

- 8 (a)

- 8 (b)

Gaia: Zoriontsu da goi-eguzkia, bere goialde zabaletik Euzkadi ikusten duelako. Gu ez, ordea, gu ez gera doatsu, geure erria ez dakusgu-ta zabal, azte ta zorionez betea.

- Olerkariak sarri du burua goi, eguzkiari begira, goizetik illuntzera. Eta eguzkiak, ba daki arek, ikuskatzen duela urradurarik gabe berak egundaiño ikusiko ez duena: opa duen aberri azkatasuna.

- Zergatik, Jauna, ez nauzu egin izar, eguzki edo olako zerbait, neure Aberri kutuna ikus dezadan; goi-goitik eta azke ikus dezadan?

- Ene Irazalia, biotzez deskatzut, nire barru au asetu dadin betiko, ispil ezazu ortzia, edo, naiago ba duzu, ni izartu. Olan Euzkadi beti ikus dezadan.

11. NERE ELIA

“Jel-Alde” azkoitirra, buruñurduna, izlari ta idazle ona ta abertzale ohea; Costa Rica-n il zan. Aren eriotz berria izan ondoren aragitua duzu olerki au.

Egitura: Amar ahapaldikoa, lau bertso lerrotan. Onela:

- 5/5 (a)

- 5/3 (b)

- 5/5 (a)

- 5/3 (b)

Dala neurrian dala azken amaian, etzaio utsik atera.

Gaia: Arrotza ikusten du poetak —eta etxeakoak ez ote?— bere elez iseka ta birau zitalak botaka aoz izkuntza maitagarri orren kaltetan. Euzkotarraren aiñen gorriak biotza zorrotz zauritzen.

- Lore bakoitzak du margo berea, orlegia, gorria naiz zuria. Euzkadik du bere erea, margoa ta izana. Ots berezkoa du txoriak, kantatzeko; “nik nere euzkeraz ari nai”.

- Ba dakit, ez dala ama lakorik. Aufa ez dago egundo ama nolakoa dan begira ez landerra ez aberatsa. Bere ama du.

- Irri zuk, gazte, neska ta mutil, gure euzkerari, amaren ele eztiari? Auxe da biotz gogorra!

- Zuk gizaseme gazte orrek, euzkeraz artu zuen ezkona; eta zuk ere, emazte orrek, euzkeraz aurkitu zendun gizona. Eriotz orduan “ene-enetxuak!” esango duzue, gure elez, ume gaixoak ikusirikan zeuen ondoan negarrez. Jaupariak ere euzkeraz dizu erakutsiko nolaz igotzen dan gora.

- Nik ez erdera. Naizta zuk aotik biraoak bota, zital ta doillor, nik euzkeraz egingo dut, nere izkuntza, nere elea dalako.

12. ERNE!

Egitura: Zortzi ahapaldi dira bikotetan, alkarrekin oskidetuta. Onela:

- 7/6 (a)

- 7/6 (a)

Ez dute utsik.

Gaia: Bi etsai-mota ikusten dizkigu olerkariak: barrukoak eta kanpotik etxeratuak, arrotzak. Erne, abertzale ori!, dio. Ez egin lo, esna ordua duzu-ta. Euzkeraren etsaiak erruz dabilta, ito naiez euzkera al duten bezela.

- Aberrian ba dira arerio gaiztoak, batzuek geutarrak, besteak arrotzak. Eta bitzuak³⁷ ari dira lan eta lan errietan, "ari dira saiatzen asmo beltz orretan".

- Etsai *onak* eta *gaiztoak* ditugu: egin bereizketa, baiña biok gure arerio. Ikus auteskunde ta ospakizunetan... Gorri ta zuri, denak dute arazo berdiña. Zabal dezagun asmo kaltegarri ori!

- Erdera jaso ta euzkera zabaldu, erdel-zaleak ez dau ori besterik opa. Egiazko euzkaldunok, beraz, jo dezagun zantzoa, "asper dezantzat etsai *ona* ala *gaiztoa*".

13. AI AMA!!

Egitura: Lantxo txiki polita. Pentsamentuz eta biotz-zauskada errimez gatz-ozpindua. Estrofa bi dauzka, onela:

- 6 (a)

- 6 (a)

³⁷ Bitzuk: bi.

- 6 (b)
- 6 (b)

Bigarrenak sei bertso daramazki. Onela:

- 6 (a)
- 6 (a)
- 6 (a)
- 6 (a)

Leenengo ahapaldiaren bi lerroak bir-esanez:

“Arrotzak, ai Ama!
euzkera darama!”

Gaia: Esna zaitetz! erri maite; utz ezazu lo-zorroa. Ixil-ixilka etsaiak daramazu euzkera, zeure arima zatirik bikaiñena. Esna zaitetz eta zaindu zeure altxorra, asabak utzitako erentzi jator ezin-obeia.

- Ia, ia, alabarik gabe zagoz. Ez, ez euki begiak, lo-zorroz betiak. Arrotzak, Ama, ixillik dagi lana, zu suntsitzeko lana!

14. LEKOBIDENIA

Euzkeraz eta erderaz euskal literatura barruan ere sarri erabilitako gaia. Errenderi Abak, astitsu, osatu zigun olerki luze au, berak bere eskuz txukun-txukun idatzita utzi ziguna. Onen alboan, Ander Isasi-ren Opera, Aita Arriandiaga-k euskeraz ipinia jarri bear da.

Egitura: “Eresi arrigarria” deitzen diote oni. Eta ez diogu guk oztoporik jarriko on-iritzi orri. Ogetaamairu ahapaldikoa da, ahapaldi bakoitzak lau bertso lerro ditularik. Neurri, erdiko eten eta azken oskidetza, axola aundiz zainduta. Onela:

- 7/6 (a)
- 7/6 (a)
- 7/6 (a)
- 7/6 (a)

Gaia: Jauregi zar bat duzu Lekobide, mendi muiñoan lerdan jarritakoa. Leen gudaletxea zara, orain sai-tokia. Arrano ta saien ulu-otsak sorginirrak iduritzen; an dabilta zurrumbilloan egazti txerrenak. Olerkaria, alere, barreneratu da. Eta bat-batean ango bele, sai ta txerrenak ixildu dira, "antxen utzirik neri bakar-bakarrikan".

- Jauregia da Lekobide etxea, gudarako egin-egiña. Itokiñez dira sapaiak jausi; egatzak eroizturik dena zaizu ageri; orma tartetan untza, sasi ta lar ugari, bizi ta azileraz. Oroz galdua Etxe Nagusia: makoak lurtean, lertzen arresia. Laster suntsitua jauregi osoa.

- Lekobide sendo! Gutzat bai galpen izugarri! Gudaletxea zana beera eroria, ondope utsa ta bakarrik zaborra, ez dugu besterik. Gezurra dirudi! Leen zindo ta gaur osoro galdua. "Ez da lotsagarria auxen, ene euzkuak?"

- Parrezka dago emengo sorgiña... Lo duzu, ordea, euzkotarra. Erne dedin, betor oiñazkarra! Lekobide egik burruka; esaiguk: "Aberria galduta, zer baiña?" Gu gera errudun, auxe akatsik beltzena; legeak kutsuz, ta Euzkadi lokaztua!

- Lekobide-ko sorgiñ dantzariak, egin goiak zear "kuku! kuku!" Sargori nazkatuak jotzen du txistua, ipar-aizeak dagi ots amurratua. Or oiñazkarra, or eraso! Odeiak erruz bildu dira oldarrean; mendi-beera datozte ulu-marruak.

- Ozantzak orruz: "Non dugu Lekobide-Etxea?" Jutzuria goietan ortots beraren galdea uxtuz idazten. Ibarrek zakar bete dira korronkaz, sukarrez suturik oianak, mamuak, mozorroak, aztiak, txerrenak igeska. Samindua dirudi itxasoa, zauriaren zauriz otso zakartua... Arramaka uñak, lertuko dira laster erpin arroak.

- Lertu da ortzia, ta mendien dardar artean onela abotsak:

Euzkotarra, nun aukak orbangetasuna?
Nun edo duk Euzkera, euzkeldun izuna?
Aberriya nun ote? nun Goiko ire Jauna?
Euzkadi zarrarekin, nun azkatasuna?

- Gogor ere gogor, trumoi otsez jarraituz oraindik:

Irail duk Aberriya; il zaik izakera;
Urtzi-onestasuna jaurti duk aldera;
ta Ama'tzat auturikan Amaizun Erdera
oinpian lerdekatu eukan gure Euzkera...

- "Euzkera" entzutean, gotzon bat agertu da, aserre ta ozen euzkotar gaiztoen aurka mintzo dana. Bijoa emendik zintzo ez dana, izkuntzaz ta erriz duin ez dana. Urruti etoiak emendik, jauregi zarra utsik nai du orain Euzkadik, "negarrezka aritzeko seme-ume gaberik".

- Azkenez, goitik ots ikaragarria! Euzkera galdu da, Euzkadi ere bai. Betor geroztik normai Lekobide etxera. I ere bai, arrotz, zaindu egik antziñako euzkoen jauregia. Euzkoak ez ditu bere lurra, etxea ta izkuntza zaitu. Lotsagarria!

- Onezkero, betoz ona leize-sorgin, bele, arrano ta abar, bebiltza emen uluka ta irraka, ta mokoetan dutela erdera oiuz. Ator, i ere, Lekobide, basajaun jator, eure etxera, ta zorrotz idekirik aoa, ta birautu zak irainka euzkotar billaua.

Adizkerak eta itz gutxi erabili batzuk: "Irasia" (egokitua); "dirudiz" (dirudite); "txarran" (txerren, deabru); "egatz" (teillatu-erlax); "arrasi" (arresi, orma); "egetu" (suntsitu); "azoin" (oiñarri, zimentu); "ondiko" (tamal, zoritxar); "kaxkaldu" (eragabetu); "dari" (ari da); "orrobi" (orroe); "irelu" (mamu); "ozantz, ortots" (trumoi); "kuskatu" (apurtu); "iztandu" (ler-egin); "ortzitu" (eortzi); "nausaz" (isekaz); "irotu" (igatu); "geztera" (eztena).

15. AGUR!

Lan onetan pozez gaiñezka dagerkigu egillea. Ez dakigu zer gertaera, baiña zerbait garrantzi aundikoa gertatu zan unean idatzi zuen. Azkenengo ahapaldian "izparringia" aipatzen du; beraz, argiro adierazi ez arren, ba liteke *Gipuzkoarra* sortu ta kaleratu zanekoa izatea, edo-ta *Euzkadi*, 1913-an ateratzen asia³⁸.

³⁸ Uste dugu bigarrena izan daitekeela, *Gipuzkoarra* aldizkaria 1907ko maiatzaren 18an hasi baitzen kaleratzen. *Euzkadi* egunkaria, berriz, bai, 1913an hasi zen.

Egitura: Amalau ahapaldi ditu, lau bertso lerroko. Onela:

- 5/5 (uts)
- 3 (a)
- 5/5 (uts)
- 3 (a)

Gaia: Pozaren dirdira agertzen du emen olerkariak, alai gaudenean adierazten duguna. Agur, gora! —dio—, jeikitzen asi zeran eguzkia! Ujui! Ba dator eguna, ainbatean opa izandako eguna noski. Auxe bai poza! Agur!

- Beetik ortzirantz doa laiñoa, erriak argi utzirik. Gauean geunden leen, biderik gabe ta galduak; illun gure arimak, etxeak eta erriak. Ontzak ere pozetan dagite ujui, leen bildurgarri ulu zegitenak. Euzkadi kutun, zein latza zan ontzak zegizun gauezko ulua!

- Baiña orain, argia piztutzen ari da-ta, begira! Eguzki gartsua laster datorkigu bazterrak biziiaziz. Itxartu, ba, euzkoa, zabal itzazu begiak. Egunabarra or duzu, gaitza ba dijoa uxatuz.

- Jeiki ta atera Aberria lurpetik. Agur dagigun bero, asi gaitzen oiui-oiuka. "Gora izparringi euzkaditarren argia! Aupa, jeikitzen ari zeraden euzkia!"

16. GURENDA

Aldaya-k onela diosku olerki onen azpian: "Olerki onen kementsu ta adoretsua! Onek dakarren abiadura sendo ta oldarkoia. Ta asieratik azkeneraño geroago ta kementsuago; geroago ta adoretsuago! Orrelakorik oraindaño ez degu erdel-elertietan ikusi. AITZOL ospetsuak itzaldi batean zion Errenderi Abaren olerki batzuei, euzko elertian ez-ezik, ludi guztiko elertietan goigoieneko mailla zegokiela. Olerki oietatik bat auxe da noski".

Egitura: Amairu ahapaldi dauzka, bikotetan. Zortziko nagusi legez ere idatzi dezakegu. Onela:

- 5/5/5/3 (a)

- 5/5/5/3 (a)

Ikus dezakezunez, emen ere, lasa darabil luma euskal metrika baratzean.

Gaia: Ia illa zegoen euzko-erria, azken arnasak egiten. Eta euzkal seme guztiak negarrari³⁹. Ba zijoan Euzkadi, ta negar-negarka bere semeak.

- Baiña azkenez Goiko Jabiak digu Arana bialtzen; Arana-Goiri'tar Sabin datorkigu. Eta, geroztik, zer atsegiña! Zer poza sendatzen zijoala ikusiz gure erri gaixoa! Il-zori zegoena berbizten da...

- Jeiki ta aurrera! oiu dagi Arana-k. Eta or azkatasun-eguzkiaren izpiak! Erne, mutillak! Gaua igaro da, zutik guztiok: or gipuzkoar, bizkaitar, arabar eta naparrak; or zuberu ta lapurditarrak... Denak dagite deadar: Gora Euzkadi!

- Or Euzkadi Aralar gaiñean... Ezpata nai du, Mikel-en ezpata! Zertako baiña? Zaipean daukan bere erria babesteko. Mikel donea!, zaindu ta gorde Euzkal-erria!

Sabin aundia, Sabin aundia, berbiztu duzu Abenda;

Euzko-semiak, Euzko-semiak! Ojuaz esan: GURENDA!!

17. EGI-GURENDA

Au orobat kementsua duzu, aurrekoaren ondorio legez egiña. Ba zuen sugarra Errenderi Abak barne-barnean lan adoretzu auk osatzeko. Mendi-beera orruka amiltzen dan ugoldea dirudi. Eutsi eziña, oro narrasean daramana.

Egitura: Amaika estrofa ditu, ez errezak baiña bai maisuki egiñak. Zazpi lerroko.
Onela:

- 5/6 (a)

- 5/6 (a)

- 6 (b)

³⁹ [Sic]. Negarrez.

- 6 (b)
- 5/6 (a)
- 5/6 (z)
- 5/6 (z)

Bostgarren ahapaldian du uts bat, bigarren bertso lerroan 5/6 ordez 5/7 egiten digu-ta.

Gaia: Gurenda, egiaren gurenda... Jeiki euzkeldunak, zabal begiak, bero biotzak; argi-erraiñuak datoz ortzi goitik; iges doa gaua... Aupa euzkuak! Gera da euri-jasa. Larogei urte ondorean, aertu zaigu ekaitza. Or Aberria, gure gaixoa, berriz pizturik, bizi nairik datorkigu aurrera.

- Gure erkaba Sabin, oraingo Noe, etzan il ugolde zirimoltsuan. Emen dugu Euzkadi-n Jel-ontzia artezten, Kutxa Deuna zaitzen. Aralar mendian Kutxa jarri zaigunean, Arana-k sutsu dagigu ots: "Piztu da Aberria!" Nainun abestiak eta gorak, euzkal erriko muga batetik bestera.

- Oztadarra, uztai eder antzo, Adur ibaitik Ebro alderaiño zabaldu da: "geren Euzkadi orla geldituaz / lotuta Urtziren laztan berotsuaz".

- Aragitzen ari da egi-argia. Arana-ren indar azkarrak alde guztietara edatuz doaz. Lurpera satorrak, eta betoz gizon argiak, gure erriaren alde lan egitera. Usoa uso ta belea bele, uxa gezurra ta jo egi-alde. Aberria aberri, atzerria atzerri, ez da gezurrik; egiaren alde.

- Nun zaude orain gure lurreko suge ta piztiak? Sabin-ek didar: "Jainko-legia". Zer duzu ori? Goitiko otsa: "Nor gure kaltez?" Aralar mendin au entzutean, jar zutik. Jun dira nekeak, etsaiak, lapurrak! Egin oi: GURENDA!

17. **ARGIYA!**

Azin, baikorra bene-benetan.

Egitura: Zortzi ahapaldi. Iru lau bertsookoak; bi onela: 5/5 ta 5/3 beste bi zortzi bertsoko lau silabadun, eta azkena, onela:

Agur, agur, eguzkiya!!
Gora, gora, Aberriya!!!

Gaia: Abefiaren poz-alaitasuna dager bizi-bizi, azke ta argiz inguratua bait da ikusten. Egundu da-ta, jo igesi, etsai ta laiñoak! Jeiki-jeiki, euzkotarra!

3.4. Entziklopediak eta beste

PADRE RAIMUNDO DE RENTERÍA*

La calidad poética de la obra del Padre Rentería debe ser buena porque su nombre aparece citado con honor entre los poetas destacados del renacimiento literario vasco. Sin embargo, no he sido afortunado al buscar bibliografía sobre este autor capuchino. ¡Cuánto se echa de menos en estas ocasiones la *Bibliografía Vasca* inédita de Jon Bilbao, actualmente en la Universidad Georgetown de Nueva York, o la *Historia del Renacimiento Literario Vasco*, de Bernardo Estornés Lasa, de inminente publicación!

Recurro a la *Bibliografía de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón*, del Padre Felipe de Fuenterrabía, y encuentro los siguientes datos:

Ramón de Astibia y Echegoyen (en Religión el Padre Raimundo de⁴⁰ M.^a de Rentería) nació en 1881 y falleció en 1916 (fecha en que nació en Rentería otro escritor, José Antonio de Loidi Bizcarrondo).

Su libro *Olerkiak*, tomo de 72 páginas, se publicó en la imprenta y editorial de Isaac López Mendizábal, de Tolosa. Es obra póstuma, pues se publicó en 1935, y contiene las poesías religiosas y profanas de este autor renteriano.

* N. De Cortazar, "Padre Raimundo de Rentería", *Cien autores vascos*, 1966, Auñamendi, San Sebastián, 23.

⁴⁰ [Sic].

**JOSE RAMON ASTIBIA ECHEGOYEN. P. RAIMUNDO MARIA DE
RENTERIA. ERRENDERI'tar ERRAIMUNDA (1881-1916)***

- 1881: n. en Rentería (Guip.) el día 17 de noviembre.
1894: Estudia en el Colegio de Lekároz (Nav.)
1900: Ingresó en los P.P. Capuchinos.
1910: Colabora en el Almanaque de *Euskal-Esnalea* con su poesía "Oroituzaitz".
Residió varios años en el Pardo y en Estella.
Los euskaltzales de Rentería le tributan un homenaje.
1916: m. en Tudela (Nav.) el día 10 de junio a los 35 años de edad.

SU OBRA

En 1935 se publica una antología de sus poesías: *Olerkiak* [López Mendizábal. Tolosa. 72 págs.], con prólogo del P. Tomás de Elduayen. "Las composiciones poéticas son de dos clases: religiosas la primera parte, y la segunda, patrióticas. Las primeras, de un sentido totalmente popular están hechas para ser cantadas en las iglesias y la mayoría de ellas en honor del Corazón de Jesús. En las patrióticas hay dos o tres como "Lekobidena" y "Euskeraren eriotza", *La muerte del Euskera*, que son realmente primorosas". [Yakintza 1935, p. 403].

JUICIOS

"...poeta ardiente, tierno y fácil..."

"Olerkari bero, bigun ta erreza, euskera ta erria maite ebazana. Euskaldun lotiak esnatzeko zenbat oiuz-mota! (...) Txandaka darabilz "parra ta negarra", itxaropena ta etsipena, leunkeriak eta isekak, eztiak eta ozpiña, larritasun marraskak eta gurenda-oiu

* Auñamendi, "Jose Ramon Astibia Echevoyen. P. Raimundo Maria de Rentería. Errenderr'tar Erraimunda. (1881-1916)", *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Literatura II, 1970, 187-190.

alaiak!; alde guztietatik gogo ta biotza astintzen eta kilikatzen ditu". [Onaindia: *M.E.O.E.*].

"Poeta ardiente, tierno y fácil, que amaba el euskera y al pueblo. ¡Cuántos gritos para despertar a los vascos adormecidos! Emplea por turno, "la risa y el llanto", la esperanza y la desesperación, halagos y burlas, la miel y el vinagre, bramidos de congoja y alegres gritos de victoria; por todas partes sacude y expolea al espíritu y al corazón".

EUSKERAREN ERIOTZA

LA MUERTE DEL EUSKERA

Yo tenía un amor, que era mi delicia y mi dicha. Pero sea que ande o me detenga, no lo encuentro por ninguna parte: ando siempre en su busca, pero sin duda ha muerto en algún sitio.

Pregunto en las márgenes de los ríos por si está aquí: unas veces doy gritos, otras gemidos lastimeros. "Amada, digo, ¿dónde estás?"; pero sin duda ha muerto en algún sitio.

Penetrando dentro del monte, "¿dónde puedes estar?", digo yo; y oigo el bramido del oso, que me dice: "¡Vete!"; y el lobo dice también: ¡Huye!"... Ha muerto sin duda la pobre.

Árboles de bosques y selvas, esbeltas hayas y robles, ¿por ventura no se ha posado mi amada al pie de vuestros troncos? ¿No se ha sentado regaladamente todos los días a vuestra sombra?

Ribazos, barrancos, oquedades de canteras, valles, collados y montes, cualesquiera lugares, ¿no habéis registrado en vuestros parajes la gracia de sus besos?

Clara y sonora campana de la torre de la iglesia, ¿por qué estás quieta? ¿por qué tan callada? Si es que ha muerto, toca a duelo, transida de llanto y de dolor.

Sí, campana de la torre, fiel compañera de los enfermos, ¡ha muerto!, y sin embargo callas; ha muerto excomulgado, ha muerto el pobre euskera, el casto y gracioso euskera.

Dondequiera los enemigos ríen noche y día; (hay) crueles enemigos en las plazas, y extraños también en la iglesia. ¡Solo yo tengo que llorar por ti, oh euskera!

ENARA GAXUA

POBRE GOLONDRINA

Ved, buen Jesús, a la pobre golondrina, totalmente deshecha de penas y de dolencias.

Ahora va hacia ti volando: ¿no le tenderéis vos vuestro brazo, mi buen Jesús amado, mi Dios?

Ya la golondrina, sin temores, se halla fortalecida, porque vos oh Dios, sois muy misericordioso: pero ¡ay! cuán desfallecida en el perverso mundo. ¿Le negaréis un lugar al que huye? ¡Abrid, Señor, las puertas, abrid la ventana!

La golondrina ha completado calladamente su vuelo; ved que llega, llamado por Vos mismo, y entonces ¡oh! dadle vuestro abrazo y beso, y en el cielo el galardón eterno. ¡Pobre golondrina!

Trad. I.G.

Refs.: Onaindia (S.): *Errenderi'tar Erraimunda Aba*. "M.E.O.E.", p. 800-803.

Yakintza: "Olerkiak", *Yakintza*, 1935, p. 403.

Cortazar (N. de): *Cien autores vascos*. Notas. n.º 12. San Sebastián, 1966.

Fuenterrabía (P. Feliciano de): *Bibliografía de la Provincia Capuchina Navarra-Cantabria-Aragón*.

Michelena (L.): *Hist. Lit. Vasc.* p. 143.

ERENDERI'TAR ERAIMUNDA ABA*

Astibia ta Etxegoien'dar Joxe Eramun Efenderi'n jaio zan, 1881'gafenean, azaroak 17 ebazala. Amairu urteko mutil, Lekarotz'eko ikastetxera joan zan, ta emeretzigafean, buruñurdunen bizitzari lotu yakon, Lekarotz'en bertan. El Pardo'n eta Lizafa'n urte batzuk egin ondoren, Muskaria'ko lekaidetxean il zan, 1916-VI-10'an. Olerkari bero, bigun ta ezeza, euskera ta eria maite ebazana. Euskaldun lotiak esnatzeko zenbat oiu-mota! Txandaka darabiltz “pafa ta negafa, itxaropena ta etsipena, leunkeriak eta isekak, ezta ta ozpiña, lafitasun mafaskak eta gurenda-oiu alaiak; alde guztietatik gogoa ta biotza astintzen eta kilikatzen ditu”. Bere *Olerkiak* —33 guztira— 1935'gafenean (Tolosa) argitaratu ziran.

* Aita Onaindia, “Efenderi'tar Eraimunda Aba”, *Mila euskal-olerki eder*, 1976, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 800-803.

4. Bibliografia

1.1. Errenderi Abak eginak

- Argitzale, "Amor patrio", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra*, 174 (1910) 1-2, 175 (1911) 1, 176 (1911) 1.
- Argitzale, "La lengua nacional", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra*, 177 (1911) 1.
- Argitzale, "Las lenguas y el derecho canónico", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra*, 178 (1911) 1.
- Afobi'tar Danel, "¡Ama tamaltsua!", *Euzkadi* 17 (1912) 383-385 [Arrobitar Danel, *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 240 (1912) 2].
- Arrobi'tar Danel, "Comentos", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 260 (1912) 2.
- Arrobitar Danel, "En defensa del euzkera", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 215 (1911) 1, 216 (1911) 2, 217 (1911) 1-2, 218 (1911) 2, 219 (1911) 2, 223 (1911) 1-2, 225 (1911) 1.
- Arrobitar Danel, "La muerte del euzkera", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 252 (1912) 1.
- Arrobi'tar Danel, "Pro euzkera", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 274 (1912) 1, 275 (1912) 1-2.
- A'tar D., "Euzkerafobia", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 282 (1913) 2.
- Aya, "¡Gurenda!", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 169 (1910) 2 [Errenderi'tar Erramon Aba buruñurduna, *Euzkadi*, 1916/06/12, 1].
- Buruñurdun bat, "Errenderi'tar Erramon Aba'ren azkenak", *Euzkadi*, 1916/06/13, 1.
- E., "¡Erne!", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 277 (1912) 4.
- Errenderia'tar Erraimunda Aba, "Arantzatzuko Miren Garbiyari Obertikiya", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 262 (1912) 1.
- Errenderi Aba, "Lourdes. Osterariyen ereserkiya", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 196 (1911) 2.
- Errenderitar Erramon Aba, "Agur", *El Día*, 1935/07/11, 6.
- Errenderitar Erramon Aba, "Euzko-lagirik gabe", argitaragabea.

- Errenderitar Erramun Aba, "Garaipen abestiya", argitaragabea.
- Errenderi'tar Erraimunda Aba, "¡Oroitu zaitez...", *Euskal-Esnalea-ren 'Esku-Egundiya'*, 1910, Valverde, Irun, 41.
- Errenderi'tar Erramon Aba Buruñurduna, "Argiya", *Euzkadi*, 1916/06/20, 1.
- Errenderi'tar Erramun A., "Gurutze ondoan", *Zeruko Argia* 4 (1919) 66 [Errenderi'tar Erramun Aba, "Gurutze ondoan", *Zeruko Argia* 51 (1923) 42].
- Errenderitar Erraimunda Aba, Errenderi'tar Erraimunda Aba 1881-1916 Olerkiak, 1935, I. Lopez Mendizabal, Tolosa.
- Errenderi'tar Erramun A., "Jesus maiteari", *Zeruko Argia* 1 (1919) 5.
- Fanderiya, "Josu-biyotzaren abestiya", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra*, 102 (1909) 4 [Errenderi'tar Erraimunda Mirena Aba, "Josu-Biyotzaren abestiyak", *Euskal-Esnalea* 13 (1909) 159; Panderiya, "Josu-Biyotza Abestiya", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 197 (1911) 1; Errenderi'tar Erramun Aba Buruñurduna, *Euzkadi* 1916/06/30, 1].
- Gabiola, "Egi-gurenda", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 125 (1909) 4.
- Gabiola, "Gentza", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 130 (1910) 3.
- Gabiola, "Un punto etimológico y alguna cuestión adyacente", *Euzkadi* 1 (1910) 55-64, 2 (1910) 99-107.
- Ori'tar Koldobika, "Enara Gaxua", *Euzkadi*, 1916/06/11, 1.
- Panderi'tar, "¡Negar!", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 116 (1909) 2.
- Ramón de Rentería, "Estudio genético y evolucionar del euzkera", *Revista Euzkadi*, 3 (1914) 169-171, 4 (1914) 204-208, 5 (1914) 264-268, 6 (1914) 307-309.
- Sarbide, "Yo envidio", *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra* 169 (1910) 3 [Sarbide, *Euzkadi*, 1916/06/12, 1-2].

1.2. Errenderi Abaren gainekoak

- Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea.

- Aita Onaindia, "Errenderi'tar Erraimunda Aba", *Mila euskal-olerki eder*, 1976, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 800-803.
- Andoni, "Errenderi", *El Día*, 1935/07/03, 10.
- Andoni, "Homenaje al Padre Astibia", *El Día*, 1935/07/07, 14.
- Andoni, "¡El homenaje al Padre Astibia de Rentería!", *El Día*, 1935/07/11, 10.
- Andoni, "Aita Astibia'ren omenez eratutako jaiak ederto ospatu ziran", *El Día*, 1935/07/17, 6.
- Andoni, "En honor del Padre Astibia", *El Día*, 1935/07/20, 10.
- Ariztimuño, J., "Poesías vascas: nuevas floraciones", *Impulsor del renacimiento cultural vasco y social cristiano. Euskal kultura pizkundearen eta kristau gizartegintzaren eragile*, 1987, Erein, Donostia, 341-342.
- Auñamendi, "Jose Ramon Astibia Echegoyen. P. Raimundo Maria de Rentería. Errenderr'tar Erraimunda. (1881-1916)", *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Literatura II, 1970, 187-190.
- Auñamendi, *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, 1971.
- Bozas Urrutia, E., *Andanzas y mudanzas de mi pueblo. Errenteria kondairan eta ipuin-zaharretan*, 1976, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián.
- N. de Cortazar, "Padre Raimundo de Rentería", *Cien autores vascos*, 1966, Auñamendi, San Sebastián, 23.
- Iñor, "¡¡Aita Errenderi'n omenez!!", *El Día*, 1935/07/11, 6.
- Euzkadi, "El P. Ramón de Rentería", *Euzkadi*, 1916/06/11, 1.
- Euzkadi, "El P. Rentería", *Euzkadi*, 1916/06/12, 1-2.
- Euzkadi, "Errenderia'tar Erramun Aba", *Euzkadi*, 1916/06/14, 1.
- Euzkadi, "Por el alma del P. Rentería", *Euzkadi*, 1916/07/08, 1.
- Euzkadi, "Por el alma del Rvdo. P. Rentería", *Euzkadi*, 1916/07/10, 2.
- Ituría, "Renterianos que se fueron", *Rentería* 11 (1928) 53.
- Jautarkol, "Astibia'tar Jon Andoni. Aita Errenderi kaputxinoa, olerkari ta idazle", *El Día*, 1935/07/12, 1.
- Kirikiño, "Errenderi'tar Erramon Aba", *Euzkadi*, 1916/06/11, 1.
- Litargi, "Errenderi-tar Erramon Aba Buruñurduna", *El Día*, 1935/07/04, 6.

- Litargi, "Errenderi-tar Erramon-Aba Buruñurdun Olerkari ospetsuaren Omena", *El Día*, 1935/07/13, 6.
- Michelena, L., *Historia de la Literatura Vasca*, 1988, Erein, Donostia.
- Olaskoaga, Xabier, "Efenteria'tar Efamun Aba, olerkari eta lekaide", *Oarso* (1981) 50-51.
- Pérez Aguirre, C. J.J. & Pérez de Villarreal, V. (capuchinos), *Escritores de la Provincia capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón 1900-2000*, 2000, Curia Provincial de Capuchinos, Pamplona.
- Yakintza, "Olerkiak", *Yakintza* 17 (1935) 403.

1.3. Partiturak

- "Argiya!". Musika: Aita Donostia, "Ara eguzkia! (Argia!)", *Obras musicales del Padre Donostia: IX-Larre gorrian: edición preparada y anotada por el P. Jorge de Riezu, O. F. M. Cap*, 1971, Archivo Padre Donostia, Lekaroz.
- "Arrats-Abestiya". Musika: Aita Donostia, *Euzkel eresiak: II. Salaberri'k Bildutako: Donostiar Joseba Andoni Abak ereskidetuak*, 1914, Arilla & Compañía, Iruñea.
- "Atoz, jaun ori". Musika: Elduayen, "Atoz jauna ori", *Zeruko Argia* (1923-1924) 136-137.
- "Bi eguberi abesti". Musika: Aita Donostia, "Osto ta abar artian" ("Pues andáis en las palmas") eta "Malko samin oyek" ("No lloréis, mis ojos"), *Obras musicales del Padre Donostia: I-Navidad: edición preparada y anotada por el P. Jorge de Riezu, O. F. M. Cap*, 1960, Archivo Padre Donostia, Lekaroz.
- "Cántico al Patriarca San José". Musika: Alfonso Ugarte, *Colección de Cantos al Sagrado Corazón de Jesús*, Arilla & Compañía, Iruñea.
- "Deun Pantzeska-Ífugarren Batzaren Ereserkiya". Musika: Aita Donostia, "Gora Frantzisko", *Himno a San Francisco de Asís a una voz y órgano / Letra euzkérica del R. P. Ramón de Rentería, O. F. M. Cap, / versión castellana de Srta. M. Mutuberría / Música del R. P. José Antonio de San Sebastián, O. F. M. Cap*, 1911, Arilla & Compañía, Iruñea.

- “¡Eguzkiyik gabe!”. Musika: Aita Donostia, *Euzkel eresiak: II. Salaberri'k Bildutako: Donostiar Joseba Andoni Abak ereskidetuak*, 1914, Arilla & Compañía, Iruñea.
- “Euzkeraren eriotza”. Musika: “Lili eder bat”, *Euzkel-Abestijak. Bigarén-Txortea*. Bilbaoko Euzko-Gastedija. (1921) 6-7. *Euzkel eresiak: I. Salaberri'k Bildutako: Donostiar Joseba Andoni Abak ereskidetuak*, 1914, Arilla & Compañía, Iruñea.
- “Josu-Biyotzaren abestiya”. Musika: Aita Donostia, “Josu-Biyotzaren abestiyak”, *Euskal-Esnalea* 13 (1909) 159 [Aita Donostia, “Lourdes'ko Ama'ri Ereserki bi: 1. Lourdes'ko Ama'ri, 2. Josuren Biotz Deuna'ri”, Erviti, Donostia].
- “Josu Biyotzaren abestiyak”. Musika: Alfonso Ugarte, *Colección de Cantos al Sagrado Corazón de Jesús*, Arilla & Compañía, Iruñea.
- “¡Josu negarrez!”. Musika: Alfonso Ugarte, *Colección de Cantos al Sagrado Corazón de Jesús*, Arilla & Compañía, Iruñea.
- “Juan zan”. Musika: “Argizariak zelutik”, *Euzkel-Abestijak. Bigarén-Txortea*, Bilbaoko Euzko-Gastedija. (1921) 4-5.
- “Karnaba”. Musika: Aita Donostia, *Euzkel eresiak: I. Salaberri'k Bildutako: Donostiar Joseba Andoni Abak ereskidetuak*, 1914, Arilla & Compañía, Iruñea.
- “Kistoren gogua”. Musika: Aita Donostia, *Dos motetes en honor del SS.^{mo} Sacramento, (textos latino, vasco y castellano) a una voz y coro al unísono con acompañamiento de órgano: 1º Anima Christi*. 1912, Arilla & Compañía, Iruñea.
- “Lourdes. Osterariyen ereserkiya”. Musika: Aita Donostia, “Lourdes'ko Ama'ri Ereserki bi: 1. Lourdes'ko Ama'ri, 2. Josuren Biotz Deuna'ri”, Erviti, Donostia.
- “Lourdes'ko amari”. Musika: Aita Donostia, “Lourdes. Osterea'ko abestiya”, *Gipuzkoarra. Jaun-Goikua eta Lege-Zarra*, 197 (1911) 2.
- “Urretxindorra”. Musika: Aita Donostia, *Euzkel eresiak: I. Salaberri'k Bildutako: Donostiar Joseba Andoni Abak ereskidetuak*, 1914, Arilla & Compañía, Iruñea.
- “Uxua”. Musika: Aita Donostia, *Euzkel eresiak: I. Salaberri'k Bildutako: Donostiar Joseba Andoni Abak ereskidetuak*, 1914, Arilla & Compañía, Iruñea.

1.4. Bestelakoak

- Bera, A. Lopez Mendizabal I., *Diccionario Castellano-Euzkera*, 1916, Lopez, Tolosa.

5. Eranskinak

5.3 Testuak

ERRENDERIA'TAR ERRAMUN ABA*

Beronen argazki bat (erretrato) bidaldu euskuben arañegun Errenderi'tik ia izparringijan agertu al ba'genduban. Atsegiñez argitalduko genduban; baña argazki ori makala da, edo baltz-zurijan ezta gogorra, ta augaitik ezin leike ondo etara bigarrenez, gustiz txarto urtengo litxake, nor dan igarri bez.

Iñok baleuko Aba onen argazkirik, baltzak gogorrak daukozana, ta bidaldu gura ba'leusku egun batzuetarako bakarrik, ordubantxe argitalduko geunke emen Errenderi Aba'ren irudija.

* Euzkadi, "Errenderia'tar Erramun Aba", *Euzkadi*, 1916/06/14, 1.

POR EL ALMA DEL P. RENTERÍA*

Mañana, á las ocho, en el Convento de Capuchinos de Basurto, se celebrará la Misa de Comunión dispuesta por Bizkai-Buru-Batzarra, en sufragio del alma del insigne religioso y ferviente patriota Reverendo Padre Ramón de Renteria.

El coro de niños de Juventud Vasca, que ha de ejecutar en el piadoso acto varios cantos populares eucarísticos, será muy numeroso. Hoy terminarán los ensayos, y, como el de antes, el de esta tarde comenzará á las siete.

El Consejo Regional de Bizkaya y Juventud Vasca piden á los nacionalistas bilbainos la ofrenda de asistencia y el ofrecimiento de sus oraciones y Comuniones en dedicación al humilde é inolvidable Capuchino que consagró toda la inmensidad de su amor al servicio de Dios y la Patria.

* Euzkadi, "Por el alma del P. Rentería", *Euzkadi*, 1916/07/08, 1.

POR EL ALMA DEL RVDO. P. RENTERÍA*

Como anunciamos, ayer se celebró en el convento de Capuchinos de Basurto la Misa de Comunión en sufragio del alma del insigne religioso reverendo Padre Rentería, dispuesta por Bizkai-Buru-Batzarra.

Al acto concurrieron muchísimos patriotas, y entre ellos notábase la presencia de numerosas señoritas.

Fueron acercándose á la Sagrada Mesa, para recibir la Comunión, los asistentes, incluso el coro de niños de Juventud Vasca de Bilbao, que ejecutó brillantemente varios cantos populares eucarísticos, algunos del reverendo Padre José Antonio de Donostia.

La niña María Paz de Kastrexana cantó los solos delicadamente, con su vocecita tersa y límpida.

Acompañó al harmónium D. Tomás de Obieta, miembro del Consejo Regional de Bizkaya.

¡Digna ofrenda la dedicada ayer á aquella alma fervorosa consagrada al sacrificio por Dios y por Euzkadi!

* Euzkadi, “Por el alma del Rvdo. P. Rentería”, *Euzkadi*, 1916/07/10, 2.

ERRENDERI*

Badator eguna, ixilik bañan ziur gañean degu errenderiar euskaltzalean egun aundia.

Dakizuten bezela, Uztaiñaren 14 gn. izango dira Efenderin "Euskaltzaleak" Astibia'tar Efaimunda Abaren omenez eratu ditun jaiak.

Euskal jaiak, gure jaiak, Astibia Abari dagokion bezelakoak.

Euskal jai aundi guziei asiera Meza eder bategaz eman oi zaie guk ere ofela emango diegu. Goizeko 10'tan Meza gorengo bat izango da Eleiz Nagusian.

Begira nago, Eleiz guzia euskaltzalez josirik daukat begi afean.

Meza amaitu ondoren txistularien eresi gozo batzuk entzun da, On Bide Antzoki'ra zuzenduko gera. Bertan Donosti'ko Etxebefia'tar Eli irakasle azkañak mutiko talde batekin erakusketa ikusgañiak egingo dizkigu.

Argi ta garbi azalduko digu gure euskera, gogoz ikasita beste edozein izkuntza lain dala edozer gai erabiltzeko.

!A zer nolako aztin aldia gure euskera zaafari ixeka besterik egiten ez dioten batzuei!

Ordu ofetan bai Efenderi'ko euskaltzale guziok On Bide Antzokian bildu bear degula.

Afatsaldeko jaiet lautan asiera emango zaie.

Lenengoz, orma añari eztalkia kendu ta Juaregi'tar Koldobika eñitar olerkari azkañak itzaldi eder bat egingo digu.

Ondoren, eñiko ezpatadantzari, makildantzari eta poxpolintxoak euren saioak egingo dituzte eta azkenik euskal eñomeri eder bat izango da.

Jai ok "Panderi" etxe afean izango dira.

Zer esanik ez dago afatsaldez ere jendetza aundia bilduko dala "Panderi" toki politean.

Erne bada euskaltzaleak, gertu egun ofetarako jai oiet daukaten gañantzia eman bear diegu, gañontzean gure euskaltzaletasuna utsa dala esango digute.

ANDONI

* Andoni, "Errenderi", *EIDía*, 1935/07/03, 10.

HOMENAJE AL PADRE ASTIBIA*

Hay gran entusiasmo entre la masa euzkaltzale renteriana por los actos que el próximo domingo, día 14, tendrá lugar en homenaje del poeta fallecido Padre Ramón de Astibia, de Rentería (G. B.). El programa completo lo daremos a conocer la próxima semana.

ANDONI

* Andoni, "Homenaje al Padre Astibia", *ElDía*, 1935/07/07, 14.

EN HONOR DEL PADRE ASTIBIA*

Todos los actos anunciados se celebraron con gran animación y asistencia de público. Nuestro zorionak a “Euskaltzaleak” por el éxito obtenido y ojalá en años sucesivos organice actos semejantes para el bien de nuestra lengua nacional.

ANDONI

* Andoni, “En honor del padre Astibia”, *El Día*, 1935/07/20, 10.

OLERKIAK*

**Egile: JOSE RAMON ASTIBIA,
AITA ERRENDERI, KAPUTXINOA**

GAIAK

I

EUSKERAZ

- ITZAURREA, 15 folio
- "Olerkiak", 1935-an argitaratu zana bera
- Olerki bakoitza azaldurik
- Olerki guztiak euskara batuan

II

ERDERAZ (Geigarri bezala)

- "Estudio genético y evolucionar del euskera", que el P. Ramón Astibia estaba escribiendo y publicando en la Revista "Euzkadi" de Bilbao, cuando se enfermó y murió en Tudela.
- El artículo laudatorio de Aitzol en el diario "Euzkadi" a los pocos días del fallecimiento del P. Astibia, el 10 de junio de 1916¹.

Lan guztiak, 185 orrialde inguru, egingo ditu.

* Aita Santi Onaindia, *Jose Ramon Astibia, "Aita Errenderi" kaputxinoaren Olerkiak*, 1986, argitaragabea. Izenburu hori argitaratzaileok jarria da.

¹ Ez dakigu zehazki zein zuen gogoan aita Onaindiak. Guk ez dugu Aitzolen izena daramanik aurkitu, bai, ordea, beste batzuk, batez ere *Euzkadi* egunkarian. Hementxe irakur daitezke.